



ttipi-ttapa

TOKIKOM

erran.eus



Maika ARIZTEGI
→ 62

Ingudearekin marka egin eta Nafarroako txapeldun

2017ko uztailaren 27a | XXXVII. urtea | 691. zenbakia

Herrietako bestak
Beintza-Labaien, Bera, Gaztelu, Leitza, Sunbilla, Ziga.

LESAKA → 38
Ur terapia eta kirol egokituari buruz ikastaroa

DONEZTEBE → 43
Laxoa Txapelketako finala abuztuaren 5ean

LEITZALDEA → 50
Errespetuz Blai prebentzio kanpaina abiatu dute

SARA → 60
Pottokaren Eguna uztailaren 29an

ISTRIPU-SIMULAZIOAK



Arreta azkarra eta segurua emateko elkarlanean

Zauritua ahalik eta modurik azkar eta seguruenean artatzeko funtsezkoa izaten da sektore guztien arteko elkarlana. Hori dela eta, koordinazioa hobetzeko asmoz, Oronoz-Mugariko suhiltzaileek eta Elizondo eta Doneztebeko mediku eta erizainek istripu-simulakroak egiten dituzte. Horiei esker, elkarren arteko komunikazioa hobetzeaz gain, istripu eta larrialdietan erabiltzen diren baliabideak elkarrekin manipulatu eta irizpideak bateratzeko aukera dute.

ERREPORTAJEA → 4-5



Miren LIZASOAIN BALEZTENA | Erlezaina «Urtetik urtera gero eta lur gehiago ari dira paratzen ekologikoan»

Nafarroako Nekazaritzako Produzio Ekologikoaren Kontseiluko kidea da Miren, Nafarroan ekologikoaren produkzioa kontrolatzen duen entitate publikoko kidea. Produzio ekologikoaren garrantzia nabarmentzeaz gain, erronka ugari dituztela kontatu digu, tartean, transgenikoaren gaia. Hori omen da kontseilaren kezkarik nagusiena.

ELKARRIZKETA → 3



URDAZUBI → 55

Burdinaren Eguna abuztuaren 5ean

Aurten 10. edizioa izanen da eta egun osoko besta antolatu dute.

ZOZKETAK → 72



Txartela egiteko deitu **948 63 54 58ra** edo idatzi **info@ttipi.eus** helbidera.



Instalazio Elektrikoak: Industria, etxebizitzak, komertzioak...

Instalazio automatizatuak eta programatzaileak: Partner zenbakiak 37050 eta 43139

Proiektu elektrikoak. Kolegiatu zenbakia: 3868

Goi mailako kalitate zerbitzuak: MOBOTIX bideozaintza | SONOS musika

Domotikaren abantailak:

Energiaren kostua murriztea zereginak automatizatuz | Segurtasuna hobetzea
 Pertsonen bizi kalitatea hobetzen da | Mantenuerako zerbitzuen efizientzia hobetzen da
 Kontrola eta egiaztapena | Zerbitzuak urrunetik gestionatzeko aukera



fenienergía

Energia sentitzeko bertze modu bat

Dirua aurreztu nahi duzu?

Merkatuaren liberalizazioak aukera ematen dizu energia (elektrizitatea eta gasa) nahi duzunarekin kontratatzeko.

Zure konfiantzazko instalatzailearekin baino hoberekin?

Elektrizitate eta Gas Fakturak

aztertzen ditugu dirua aurrezteko helburuarekin, **konpromisorik gabe**



2001az geroztik, erlezain profesionala da Miren Lizasoain Baleztena eta 2010etik ekologikoan aritzen da. Arbiztan (Lizarralde) bizi bada ere, Saldias, Oiz eta

Irungo erroak ez ditu atzenuak. 2014an NNPEK Nafarroako Nekazaritzako Produkzio Ekologikoaren Kontseilua osatzeko hauteskundeetara aurkeztu zen EHNE

sindikatuarekin, eta geroztik kontseiluko kidea da Nafarroan. Produkzio ekologikoaren garrantziaz eta NNPEKren erronkez solastu da TTIPI-TTAPArekin.

Miren LIZASOAIN BALEZTENA | Nekazaritzako Produkzio Ekologikoaren Kontseiluko kidea

«Elikadura subiranotasuna lortzeko bide bakarra ekologikoa da»

G. PIKABEA

Zer da NNPEK?

Nafarroako Nekazaritzako Produkzio Ekologikoaren Kontseilua da. Entitate publiko bat ekologikoaren produkzioa kontrolatzeko. Nekazaritzan eta abeltzaintzan Europako legeak agintzen du ekologikoaren gainean: nola produzitu eta etiketatu behar den, baita produktuak nola kontrolatu behar diren ere, etxaldetik hasi eta kontsumitzailearengana ailegatzeko diren arte. Gero, estatu bakoitzak ahalmena ematen die entitate publiko edo pribatuei ekologikoa kontrolatzeko. Eta Nafarroan, oraingoz, entitate publiko horrek bakarrik du kontrolerako agintaritzak. Horrek ziurtatu behar du abeltzaintzan eta nekazaritzan jatekoa sortzeko prozesu guztia ekologikoa izan dela eta horren gaineko legeak betetzen dituela. Gero, jakina, abeltzaintza eta nekazaritza ekologikoa hedatzeko indarra ere egin behar dago, eta, horretarako, klase askotako kanpainak egiten ditu.

Noiz sartu zinen kontseiluan?

2010. urtetik ekologikoan aritzen naiz, eta lau urtez behin hauteskundeak egiten ditugu kontseilua osatzeko. 2014. urteko ekainean izan ziren azkenekoak, eta EHNE sindikatuak aur-



ARGAZKIA: WWW.CPAEN.ORG

Miren Lizasoain erlezaina da eta 2014az geroztik NNPEK-ko kontseiluko kidea.

kezturiko zerrendan sartu nintzen. Sei kidedatik bost atera genituen, ordura arte UAGN sindikatuak izaten baitzuen gehiengoa. Sektoreko asko arduratuta geunden NNPEKren martxarekin, eta, horregatik, ahalegin berezia egin genuen jendea mobilizatu eta bozka eskuratzeko. Emaitzak ikusita, oso harro sentitu ginen, baina ardura handia zela ohartzen ginen.

Zer eskaintzen du NNPEK-k?

Alde batetik, aukera ematen die ekologikoan aritzen direnei ekologikoaren ziurtagiria edo etiketa ateratzeko. NNPEK-k paperak tramitatzen ditu, eta informazioa eman;

KONTSUMOIA

«Euskal Herrian, ekologikoaren kontsumoia eta kontzientzia handitzen ari dira. Baina oraindik urrun gaude beste herrialde batzuen portzentajetatik (Alemania, Austria, Frantzia...)».

KEZKA NAGUSIA

«Erronka ugari ditugu, baina gehien kezkatzen gaituen gaietako bat transgenikoena da, eta Nafarroan lan handia egin behar da. Transgenikorik gabeko Nafarroa gauza handia izanen litzateke».

inspezioak egiten ditu, eta, hala berean, analisiak egiteko laginak hartzen ditu. Bestetik, berriz, jangarri ekologikoen sustapena eta publizitatea egiten du, bai kontsumitzaileei begira eta bai dendetan eta bai komertzioetan ere. Ikastaroak ere antolatzen ditu eta azoketan eta ferietan parte hartzeko aukera ematen du. Berak antolatzen du, urtero, Nafarroako feria ekologikoa.

Janari ekologikoa garrantzitsua dela esan izan duzue...

Niretzat, jateko manera zuzen bakarra dago: justua, iraunkorra eta osasunerako on dena. Horretarako, jangarriak hurbilekoa eta bere te-

norekoa izan behar du, eta hori produktore txikien esku egoten da jeneralean. Ekologikoa gauza ona da guretzat eta gure ama den lurarentzat ere bai, elikadura iraunkorrek ez duelako ez ingurunea eta ez geure burua hondatzen eta pozoitzen ere. Bestalde, noizbait elikadura subiranotasuna lortzeko bide bakarra da.

2020rako Nafarroan lantzen den luraren azaleraren %10a nekazaritza ekologikoa izatea da zuen erronketako bat...

Nafarroan urtetik urtera goiti doa ekologikoan lantzen den luraren azalera, dagoeneko %5era ailegatu gara; lortuko dugulakoan nago! **Zerbait gaineratuko zenuke?**

Elikagaiak ekologikoan ekoiztea ez da erraza, baina, aldiz, ematen duen poza, lasaitasuna, ilusioa ez dago gaitzerik. Batez ere gazteei esanien nieke nekazari edo abeltzain izateko asmorik baldin badute, ekologikoaren aldeko apustua egin dezaten, eta beste guztioi, beraien esku dagoen heinean, egin dezatela horren aldeko eginahala, merezi du eta. Kontsumitzaileari ere ohar bat egin nahi nieke: kontsumitu hemengo janari ekologikoa!

GIZARTEA → ISTRIPU-SIMULAZIOAK

Hil ala bizikoak diren mugimenduak

Elkarlana lantzeko istripu-simulakroak egiten dituzte suhiltzaile, mediku eta erizainek

Erabaki azkarrak hartu behar izaten dituzte, aunitzetan bizitza baita jokoan dagoena. Zaurituari arreta azkarra eta segurua ematea da larrialdi zerbitzuetako profesionalen helburua eta horretarako, funtsezkoa izaten da sektore guztien arteko elkarlana. Koordinazioa hobetzeko asmoz, Oronoz-Mugairiko

suhiltzaileek eta Elizondo eta Doneztebeko mediku eta erizainek istripu-simulakroak egiten dituzte. Horiei esker, «gure arteko komunikazioa hobetu, istripu eta larrialdietan erabiltzen diren errekurtsoak elkarrekin manipulatzeko ikasi eta irizpideak bateratzeko aukera izaten dugu».

Eneritz IRAOLA

Eszenatoki berdinean bat egiten dute eta helburu bakarra dute: zauritua ahalik eta modurik azkar eta seguruenean artatzea. Elkarren osagarri dira, bakoitzak bere lanean betebeharrak zehatzak dituen arren: «ibilgailuan sartu eta zauritua asartzeko erabiltzen diren teknikak eta zaurituari ematen zaion osasun arretak osatzen dituzte erreskate lanak». Hori dela eta, Agurtzane Goienetxe Elizondo-

ko Osasun Etxeko erizainak eta Josu Busto eta Jon Ander Zangitu Oronoz-Mugairiko suhiltzaileek azaldu dutenez, «suhiltzaileen, osasun langileen eta segurtasunaz arduratzen diren langileen arteko koordinazioa ezinbertzekoa da».

ELKARREKIN TREBATUZ

Talde lanean trebatzeko asmoz 2010. urtean antolatu zituzten lehenbizikoz simulakroak «elkarrekin lan eginda, lan

egiteko modu desberdinak eza-gutzeko aukera izaten dugu. Gure arteko komunikazioa eta koordinazioa momentu oro hobetzen saiatzen gara eta istripu eta larrialdietan erabiltzen diren errekurtsoak elkarrekin manipulatzeko ikasten dugu». Praktikak ezagutzak garatzea errazten dietela diote, «teorian hori egitea oso zaila baita». 2011. urtetik aitzinera, talde handiagoak biltzen hasi ziren eta horrela, «simulakroak dinami-

koagoak bihurtu eta kasu klinikoak gehiago sakontzeko aukera izan dugu. Izan ere, osasun langileek kasu klinikoak prestatzen dituzte lehendabizi eta gai horren inguruan auto-istripu simulakroa prestatzen da gero». Simulakroen antolakuntzan eten bat egon arren, 2016. urtetik aitzinera, praktika hauek berreskuratu dituzte eta arrakastaz gainera: «Aurten ortzegunero antolatu ditugu simulakroak, borts edo seinako taldetan banatuta, txandakatu. Horrela talde bakoitzak urtean hiru kasu lantzeko egutegia prestatu dugu. Irailetik azarora bitarte landuko dugu hiru garren kasua».

«Erreskaterako lehendabiziko 10 minutuak arras garrantzitsuak dira. Erreskateak azkarra izan behar du eta horretarako ezinbertzekoa da larrialdi zerbitzuen koordinazioa».

EGOERA AHALIK ETA ERREALENA

Suhiltzaileek astero, beraien entrenamendurako izaten dituzten autoak baliatzen dituzte simulakroetan, «gure egunerokotasunera, osasungintzako langileak batzen dira». Egoera ahalik eta errealena irudikatzea izaten da asmoa eta horretarako, «partaide batzuk medikua eta erizainaren papera beteko dute, bertze batzuk suhiltzaileen papera eta partaide batek edo bik zaurituarena».



Agurtzane Goienetxe erizaina eta Josu Busto eta Jon Ander Zangitu suhiltzaileak.

Simulakroetan erabiltzen duen materiala ere erreala da, «suhiltzaileok dugun anbulantzia erabiltzen dugu, esku-ohesak, tableroak, inmobilizaziorako materiala, oxigeno-maskara, autoa desegiteko materiala...». Hori baliatuta, «zaurituaren inmobilizazioa, extrikajea eta osasun arreta lantzen ditugu. Egin behar diren atentzio guztiak ahal bezain ongi koordinatuz». Zati praktikoa amaitutzat jotzen dutenean, denek arteko ebaluazio saio bat egiten dute «zalantzak argitu, eza-gutzak trukatu...».

«Irizpide desberdinak izan ditzakegu baina beti biktimaren hobeto beharrez pentsatuz lan egiten dugu. Zaurituaren egoera da guztiok burutan duguna».

TEORIATIK PRAKTIKARA

Erabakiak hartzen ere trebatzen dira, «baita eskaini beharreko arretan lehentasunak zein diren argitzen ere». Erreskatelanak martxan jartzeko, hasmentan, eszenatokiarene balorazio orokorra egiten dute eta segurtasunari ematen diote lehentasuna: «argi eta triangeluen bidez istripua dagoen lekua ikustarazten da, eta gure kamioi eta anbulantziarekin ingurua babesten dugu. Gasolioa eta bertzelako produktuen isuriak prebenitzen ditugu... orokorrean izan daitekeen edozein arrisku sahiestuz». Ibilgailuak egonkortzea izaten da hurrengo pausoa eta ondotik, zaurituarengana iritsi ahal izateko ateak zabaltzea: «zaurituarengana iristeko sarbidea lortu dugunean, zaurituaren balorazioa egiten da. Nola dagoen ikusi eta nolako larrialdia den baloratzen dugu. Hor-tik aitzinerat, zaurituaren egoeraren larritasuna kontuan hartuta erabakiak hartzen ditugu».

TEKNIKA DESBERDINAK

Larrialdi motak baldintzatu-ko ditu extrikajearen erabiliko dituzten teknikak: «adibidez, paziente kritiko baten aitzinean azkartasunez ateratzeko teknikak erabiliko ditugu. Bizkarrezurreko lesioak prebenitzeko berriz, "angulo 0" deitutako teknika erabiltzen dugu.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Istripu-simulakroetan kasu errealetan oinarritzen dira trebatzeko.

Autoa istripuan kokatua dagoen moduak ere baldintzatzen du extrikajerako erabili behar duten teknika: «lau gurgipen gainean, erabateko itzulian edo albo batera itzulita egoten ahal da autoa. Eta kamioi eta autobusekin ere, erabiltzen ditugun maniobrak desberdinak eta bereziak dira».

IRIZPIDEAK BATERATUZ

Sektore desberdinetako profesionalek izan arren, elkar hartzen dute beraien lanean: «irizpide desberdinak izan ditzakegu, baina beti biktimaren hobeto beharrez pentsatuz lan egiten dugu. Zaurituaren egoera da denok burutan duguna. Simulakro hauen bidez, bertzeek egiten du-

ten lana hurbiletik ezagutu eta ikasi egiten dute. Konsensez dira beraien lanak duen garrantzia, badakite momenturen batean gure bizitza beraien eskue-tan egon daitekeela eta horregatik, antolatuta eta elkarrekin lanean ari dira, simulakroak behar direlako benetako istripuetan kalteak gutxiago izan daitezen.

ZER EGIN ISTRIPU BATEN AURREAN

Istripu baten lekuko izaten bazara

Tokia seinalizatu

Deitu 112

Lokalizazioa bidali

Suhiltzaileak
Medikuak
Erizainak
Poliziak

112koen aholkua entzun

- Kaskoa ez kendu
- Zauritua ez mugitu
- Odol isuriak konprimitu
- Arnasik hartuko ez balu bihotz biriketako bizkortze ariketak egin



Nire txanda
Joseba URROTZ

Eskerrak

Nire txanda hontan zertaz solastuko pentsari ari naizela, konturatu naiz ikasturteko azkeneko alea dela hau, herrietako besten berri emanen duenaren aitzinetik, eta aitzakia iduritu za-it aspaldi pentsatu nuena egiteko: esker-agur gisako bat egitea otu zait, abuztua ondotik itzultzeko gogoarekin, noski!

Alegia, hau irakurtzen ari haizen/zaren, horri ari nauk/naun/naiz. Hor nonbait topatzen garenean, bazaudetelako mordoxka bat nire burutazioak irakurtzen dituzuela erraten didazuenak. Batzuk, behin eta berriz leituta ere, ez omen duzue tutik enteleгатzen (behar bada batzuetan trakets arituko naiz), bertz batzuk berriz gustuko izan duzuela. Egia erran, ez nuen espero horrelako harrera izanen zutenik nire predikuek, eta aunitz poztzen nau.

Hautzaro eta gaztaroan burla egin nahizik, batzuk filosofo bezalako hitzak erraten zizkidaten, gaur egun ere izanen da irri eginen duenik nire bizkar, baina horrek honezkero ez nau kezkatzen, eta gainera badakit badela nire burutazioak ongi hartzen duenik ere.

Eskerrak aunitz!

Ezpala

Aitor AROTZENA

Dena ez da txantxa birala

Lesakako sanferminetako larunbata. Deustako gauza ez dela, lurrean eserita dagoen gazte bat kolpatzen du zezenak horma baten kontra. Handik guttira, bili-bolo hedatu da bideo-irudia guatsap bidez, txantxa artean. Hil dela ere zabaldu da gero (gezurra). Gisakoak maiz ikusi izan ditugu, baina, gustatuko al litzazuke hori gertatzea protagonista gu bagina? Edo senideren bat?

Nabarmentzekoak



Ane PETRIRENA
Europako txapeldun

Poloniako Bydgoszcz hirian egin duten Europako 23 urtez beheitiko atletismo txapelketan urrezko domina historikoa lortu du sunbildarrak 4x100 errelebo lasterketan.



Oaia PERUARENA
Margolan

Margolari beratarren azken lanak ikusgai daude abuztuaren 6ra bitarte artistak Bidasoa karrikaren 4.ean duen tailerrean. Hainbat artista eta ezagun hurbildu ziren irekierara.



Maika ARIZTEGI
Ingude altxatzen errekorra

Lehen ere aipatua dugu atal honetan baina kirolari iturendarrak ez dauka mugarik. Oraingoan, Nafarroako ingude altxatze txapelketa Euskal Herriko marka ezarri irabazi du: 99 altxaldi!

Atzera begira → 1997-VII-31 • TTIPI-TTAPA 211 zk.



Erratzuko Joxe Mari Apezetxea margolariarekin solasean

Duela hogeitau urte Joxe Mari Apezetxea margolari erratzuarra elkarrizketatu zuen ttipi-ttapa. Goiburuan, «Paisaiak margotzeko estudiantik kanporat ataraztea beharrezkoa da» zioen. «Bere burua ezagutzen duenetik» omen zuen pintatzeko zaletasuna, baina margolaritzan lehen urratsak Jabier Ziga bere osabarekin eman zituen, 12 urte bertzerik ez zituela. Margolari aunitz izan arren, ez zuen maite Baztango Eskolaz solastea: «Bakoitzak badu bere estiloa eta bere pintatzeko modua. Eta gainera, ez dago beharrik, horrek pobretu bertzerik ez baitu egiten. Bakoitzak bere fakultateak erabili behar ditu», aipatu zigun.

ttipi-ttapa

Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • Egoitza Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA
Tel. (+34) 948 635458 • Faxe (+34) 948 635457 • whatsapp: 744 484361 • info@ttipi.eus



Zuzendaria Aitor Arotzena Erredakzioa Gurutze Pikabea, Eneritz Iraola Publizitatea Usosa Vicente, Amaia Odriozola, Arantza Agirre Berriemaileak Juana Mari Saizar, Arkaitz Mindegia, Josebiñe Agirre, Koro Iratzoki, Nerea Altzuri, Joseba Urrotz, Irune Elizagoien, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Joana Gueren-diaín, Martin Bertiz, Martin Larraide, Juan Mari Barriola, Iñigo Imaz, Marga Erdozain

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea Kudeatzailea Joxemanuel Irigoien Administrazioa Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • ISSN 1578-4673 • Tirada 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkart, Malerrekako Zerbitzuen Mank.

2017ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerreka	36€
Leitza	22€
Hego Euskal Herria	42€
Ipar Euskal Herria, Europa	75€
Amerika eta Australia	130€

Nafarroako
Gobernua



Gobierno
de Navarra



Bortzietako Euskara
Mankomunitateak
diruz lagundua



Prentsatik bildutakoak



«Pena handia ematen dit nirekin urte haue-
tan guztietan ibili izan
diren pilotari horiek,
figura handiak eta
lagunak, joateak.
Denontzat da pena
handia, baina azkene-
an ez dakigu noiz arte
egongo garen.
Momentuz, behintzat,
ongi gaude, baina ez
dakigu noiz arte
egongo garen horrela
edo. Ni unean unekoa
bizitzen saiatzen
naiz».

Oinatz BENGOETXEA
Leitzako pilotaria
AIZU 2017ko uda



«Nik ez diot horri
garrantzirik ematen
[lehenbiziko emaku-
mea San Fermin bez-
perako danborrada
gidatzen], berdin ber-
din ongi egin dezake
neska batek edo mutil
batek. Egia da ilusioa
egin zidala nigan kon-
fidantza jartzeak agin-
te-makila hartzeko,
baina bertze edonori
ere pasatzen ahal zio-
ten. Hasieran hagitz
urduri nengoen, baina
kontent eta harro».

Amaia TELLETXEA
Lesakako danborrada
D.NOTICIAS 2017.07.08

11 galdera labur

**Nola aurkeztuko zenuke zure bu-
rua?**

Galdera hau erantzutea zaila egi-
ten zait baina momentu haue-
tan, egunerokotasunean lasaitasuna
bilatzen eta aplikatzen saiatzen
den pertsona bezala definituko
nuke nire burua.

Zein afizio dituzu?

Familiarekin naturaz gozatzea eta
gure inguruko leku berriak ezagu-
tzea. Baina nire momentu goxo-
enetako bat gaueko lasaitasune-
an liburu on batean murgiltzea da.

Asteburuko planik ederrena?

Familia eta zakurrarekin mendi ibi-
aldi polit bat egitea.

**Irakasleen oporrak omen dira ho-
berenak...**

Oporrak denentzako go-
xoak dira, irakaslea izan
edo ez. Hala ere, ez naiz
kehatzen ditudan opo-
rrekin....

**Herriko eskolan edo kan-
poan nahiago duzu lane-
an ari?**

Gauregun nahi-
ago dut herri-
tik kanpo
dagoen
eskola
batean
aritu.

Baina semeak herriko eskolan ez
daudenean gustatuko litzaidake
Zigako eskolako andereñoa izatea.

Zigako txoririk gustukoena?

Zigak txoko polit aunitz ditu baina
niretako politena Idoiako parajea
da. Bertako oroitzapen polit aunitz
ditut.

Zer da Zigaren berezitasuna?

Herri tiki guziek bezala, herri ba-
tek ematen dizun lasaitasuna eta
hurbiltasuna.

**Zer da bestetatik gehien gusta-
tzen zaizuna?**

Giroa, umore ona eta plaza ingu-
ruan sortzen diren elkarrizketak.

Eta ekitaldirik gustukoena?

Zikiro eguna aukeratuko nuke;
bertako giroa eta janaria ezin ho-
beak dira.

Mendia ala hondartza?

Biak aunitz gustatzen zaiz-
kit; lasaitzeko eta desko-
nektatzeko elementu natu-
ral paregabeak dira.

Amets bat?

Amets eta desio aunitz di-
tut baina momentu haue-
tan niretako inportan-
teena, nire familia
orain bezala egotea
da. Denborarekin
gainerako ametsak
etorriko dira.



Mirian BARBERENA IBARRA → Zigako gaztea

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Merkealdia!

Edredoi nordikoetan espezialistak

edredoi fundak • albornoak • edredoi nordikoak • ohe estalkiak • maindiak • mantelak • kuxinak • toailak

Tafalla, 13 • IRUÑEA • 948 230 634

Irakurleak mintzoPP alderdi
burutsuaXanti BEGIRISTAIN
MADOTZ (Auritz)

Denok dakigu Espainiako PP izeneko alderdi politikoko buruzagiak zeinen burutsu, adimentsu, buruargi eta azkarrak diren. Hori ez dugu inola ere zalantzan jartzen. Horrexegatik, niri oso harrigarria suertatzen ari zait ikustea nola sartzen ari diren hanka iztarteraino Altsasuko kasuan, beren Guardia Zibil, Polizia Nazional eta kristo guztia-ekin, alegia, terrorismo talderik ez dagoen lekuan terroristak ikusten dituzte, ordu txikietako taberna bateko liskar bat terrorismo ekintza batekin nahasten dute, inplikaturako gazteak epaitu baino lehen dagoeneko zigortu dituzte (non ote dago beraien errugabetasun-presuntzioa?) eta orain, diotenez, "Altsasukoak aske!" esatea edota idaztea legez kanpoko omen da, eta inortxok ere ez genuen horren berri arrastorik ere. Halaber, Espainiako polizia indarrak Euskal Herrikeritik eraman ditzaten eskatzea ere orain egundoko lege-haustea omen da; guztiz ulertezina, dakigunean, konparaziora, Euskal Autonomia Erkidegoko bere Autonomia Estatutuan erabat legezkoa dela.

Bai, hasieran esan dudana bezalaxe, denok dakigu PPko buruzagi batzuk oso zentzudunak direla, baina, azken

bolada honetan ez dakit zer txoro-haizek edota zein deabruzko intsektuk ziztatu dituzten, halako zentzugabeke-riak, aldrebeskeriak eta ankerkeriak egiteko.

Antza denez, hain zu-

zenak eta santuak diren PPko buruzagi horiek ez dira konturatzen gorrotoa zabaltzen ari direla, eta, berebat, basakeriak eta gaiztakeriak egiten ari direla zuzentasunaren izenean,

batzuk beste batzuen atzetik, eten gabe, ohar-tu gabe, konturatu gabe, eta, noski, nahi gabe.

Argi dago, PPko buruzagi batzuk aingerutxo hutsak dira!

**Bota bertsoa**

Julen ZELAIETA IRIARTE

Doinua: Esateko ez naiz lotsa • Neurria: 6ko motza

Baztan-Bidasoko 30. Bertsopaper lehiaketan aipamena (18 urtetik goiti)

iBilerak

Fundamentuzko mutila, langilea ta umila azken urtetan agendan daukat konpromezu pila. Sarri, bukatzen dut hila, akitua edo hila. Ez da errexa izaten mila saltsetako perrexila. (ber)

Orain, jarrera alaiaren nengo modu lasaian ezetz erraten ikasi banu behar zen garaian! zenbat hitzordu jarraian, borobilean, zein mahaian, ingurukoek dioten gisan: *mundua konpondu nahian.*

Guraso naizen neurria, ikastolara begira watsapa utzi ta hamabortzero gauzak aurpegira. Bertan, zenbat tira bira, gure umeen harira, baina arazoa ez dira haurrak, bertze gurasoak dira. (ber)

Euskara gure omen. Nere jakintza ta sormen, herriko euskara batzorderako ustez prest nengoen. Mila eztabaiden ondoren; ilusioa, eromen! Sarri nahiago, jaiotza banintz Cadizen edo Lyonon. (ber)

Eta, aunitan, le(he)nago bertze bilera bat dago; herriko bestak prestatzeko da. Hor ere banago. bi ordutatik harago nor antolatzaileago une hoietan sentitu ohi naiz *buruhaundi* bat gehiago. (ber)

Nahiz ta aurtengo urtean, egon azpiko partean, Osasunako peñan gabilta ilusio betean. Baina bien bitartean, pena dut nere artean, bilera hauek ezin utzia bigarren maila batean. (ber)

Egun, proiektu gorena *Gure Esku Dagorena*; jokoan dago herri bat eta bere ondorena. Batzarretako problema: nolatan jarri ordena? Konturatu naiz, deus gutti dela nere esku dagoena. (ber)

Bertsozale elkarteko kide naizela tarteko zuzendaritzan sartu ninduten taldea osatzeko. Hilean, batz bertzeko ehun ta hoge kilometro, erabakita dagoenari onespena emateko. (ber)

Korrika-talde bikaina sortu dugu, alajaina! ta laisterketak antolatzea urteko ordaina. Helburua, hori,... baina *batallita* ta hazaina, gure bilerek irauten dute maratoni-osoak haina. (ber)

Kontsumo talde bat bada, behin hurbildu nintzen hara. Bertze gisako bizimodu bat helburu gisara. Solasean hasten gara helduz hiru ordutara ta kontsumitzen doan bakarara nere pazientzia da. (ber)

la hogeitalau ordutan, mila istorio burutan, baina *Gandhiak Indian* eta *Teresak Calcutan!* zertarako jarri sutan? nere kulpa da, batzutan; ikasiko dut noizbait ez sartzen behar ez nauten lekutan. (ber)

"Ez" hitza buru barnean sartuko dut azkenean nere burua zaindu nahi baitut etorkizunean. Hasi behar dut "lanean" sosegatzeko planean azken bilera ez dadin izan psikologoarenean. (ber)



IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta:

info@ttipi.eus

Posta: **Koskontako bidea, 07-1, 31770 LESAKA**Tel.: **948 63 54 58**Faxa: **948 63 54 57**



BIOK

**SUPERMERCADO · SUPERMARCHÉ
SUPERMERKATUA**



IBARDIN

Alto de Ibardin, 28
T 0034 948 630 707

Alto de Ibardin, 37
T 0034 948 630 717

DANTXARINEA

Dantxarinea, 31
T 0034 948 599 093

Landibar, 5
T 0034 848 478 879

PARQUE COMERCIAL AXULAR
Dantxarinea, 5
T 0034 848 478 881

VALCARLOS

Barrio de Ventas, s/n
T 0034 948 790 179

www.ventabiok.com

MARITX

· Ingeniaritza elektrikoa · Boletin industria
· Proiektu elektrikoak · Instalazio elektrikoak

Ongi pasa bestak!

Legia, 23 - BERA | T. (0034) 636 617 450

ITSASOA HURBILAGOL

amaleun
ARRAINDEGIA

948 630 981 · 620 828 757 · Itzea, 6 · BERA

ALZURI
ETXERAKO EDERTASUNA
ASTONDOA

DROGERIA
MENAJE DENDA
ESPEZIALIZATUA

Ongi pasa bestak!

948 625 442
San Esteban 17 · BERA

Goieko *DESIN* **ERA**

INDUSTRIA GARBITASUNERAKO
SISTEMA ETA PRODUKTOAK

DESINFEKZIOAK · DESINSEKTAZIOAK · DESARRATOITZEAK

Zure ingurua klase guzietako insektuz (xomorro, zinaurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi xagutxo garbitu nahi baduzu deitu! Termita eta Pipien tratamenduak

T. 948 625 597 · Zalain, 42 B · BERA

ONGI PASA BESTAK!

ION DOZAGARAT GIL

Igeltseritza orokorra

Itzea, 5 · BERA · 689 046 720

ONGI PASA BESTAK!

BIANDITZ
NEKAZARIEN ETXEA

etxerako behar duzun guztia

PENTSUAK · FORRAJEAK · LANDAREAK · ABONOAK · PLASTIKOAK
FITOSANITARIOAK · PATATA HAZIAK · BOLOEN PLASTIKOAK
BASERRIRAKO TRESNERIA... etxez etxeko zerbitzua

Zalain ind. 5 · BERA | T. 600 977 339 | bianditzpentsuak@gmail.com

froling

Alemanian gehien saltzen den egurrezko galdara

Etorri gure erakusketa ikustera:
Bidasoa Karrika, 45 - BERA

PATXI MUTUBERRIA ITURRIA
686 23 52 30 - patximutu@hotmail.com

LIXOIA
OSTATU · JATETXEA

ONGI PASA BESTAK

Itzea, 2 · 31780 BERA · 948 631 271

ilaia
ileapaindegia

ONGI PASA BESTAK!

T. 948 63 14 27

JAKONE - GOZOTEGA

Besta gozo eta zorionsuak opa dizkizuegu

Altzate, 19 · BERA · Tel: 948 630 786

MENDIKO
SAGARDOETEGIA · ERRETEGIA · JATETXEA

T. 948 63 03 02
Ibardingo gaina · BERA · Nafarroa
www.mendikoibardin.com

0034 699 81 08 70

ETORRI IBARDIN ERA
BERAKO BESTAK
GUREKIN OSPATZERA

BAZKARIA
AUTOBUSA
DJ-a

ONGI PASA BESTAK

okaNe

HARATEGIA
URDAITEGIA

Eñaut & Nekane

T./Fax: 948 630 018
Kantonberri 12 · BERA

IREKI
LEIHOAK

Aluminio R.P.T / PVC | Pertsianak | Toldoak
Itxidurak | Kontraleihoak | Barandak | Berandak

ONGI PASA BESTAK!

T. 948 630962 F. 948 625400 H. 31780 BERA
irekileihoak@irekileihoak.com · www.irekileihoak.com



xarma
ESTETIKA

Ongi pasa bestak!

xarmaestetika@hotmail.com

T. 948 630 904
Altzate, 33 behea
31 780 BERA

BERAKO BESTAK

BESTA AITZINETIK

UZTAILAK 29, LARUNBATA

16:00 3X3 Kuadrillen arteko Saskibaloitxapelketa kiroldegi aitzinean (izena emateko 15:00etatik aitzinera) (eguraldi txarra eginez gero Toki-Ona kiroldegian). Antolatzailea: Toki Ona Saskibaloia. Taldeek 3-4 lagunez osatuak egon behar dute. Gutieneko adina: 16 urte. **16:30** Plater tiroa minifoso modalitatean. Bera eta kanpotik etorritako tiratzaileen txapelketa. Antolatzailea: Berako Ehiza eta Arrantza Elkarte.



UZTAILAK 30, IGANDEA

10:00 Herriko pilotarien pilota partidak Eztegarapilotalekuan Benjaminak, alebinak, infantilak eta helduak. Antolatzailea: Gure Txokoa Elkarte. **11:00** Txirrindularitza Proba. Berako IX. Saria. Kadeteak. **16:00** 3x3 Saskibaloitxapelketa. kiroldegi aitzinean (izena emateko 15:00etatik aitzinera) (eguraldi txarra eginez gero Toki-Ona kiroldegian). (Gutieneko adina: 16 urte). **19:00** Herri kirol jaialdia kiroldegi aitzinean (eguraldi txarra eginez gero, Eztegarapilotalekuan). Antolatzailea: Nafarroako Herri Kirol Federazioa.



ABUZTUAK 1, ASTEARTEA

13:00 San Jose Zahar etxeko familia bazkaria. **19:30** Dantza jaialdia Eztegarapilotalekuan. Antolatzailea: Gure Txokoa Elkarte. **22:15** IV. Berako Gau krosa. (Izen-ematea: www.manntale.com).

ONGI PASA BESTAK!

Bidasoa
GASOLINDEGIA

A, B eta C motako GASOLIOA ETXERA
24
ORDUZ

Alkaiaga Industrialdea, 4. LESAKA · T. 609 446 693

GORA SAN ESTEBAN!

borzuzrud
IMPRESA - HOPISTEGIA

948 631 521
material guztietan inprimatzen dugu
hamisetak / oparitzeko artikulua

ARTIEDA ESTANKOAK
Estanco Nº 3
Cava de Puros
ongi pasa bestak!

Piazza Urnua 1, bajo (Aguerra)
31760 Bera
Tel: 948 631 637
Fax: 948 631 654
estanco3@estanco3.e telefonica.net

HARATEGIA
Errotazar
Bertako produktuak
ONGI PASA BESTAK

Eztegara, 3 - BERA | T. 948 63 04 39
errotazar.harategia@gmail.com

ORDOKI
GIZONEZKO ILEAPAINDEGIA
ongi pasa bestak!

T. 637 40 83 20 · Kanttonberri, 4 · BERA

JOSE I. GONZALEZ ENGUIA
Pintura orokorrean
Barrualdeak eta fatxadak

T. 666 235 466

SEGUROS BILBAO Ongi pasa bestak!
Grupo **CATALANA OCCIDENTE**

ie Iriarte-Etxandi
artekaritza-aholkularitza

Kanttonberri, 1 · BERA · 948 631 169 · Faxa: 948 630 385

ONGI PASA BESTAK!

ITURRIONDO
ZURGINDEGIA
ZURGIN LANAK OROKORREAN

T./F. 948 631 430 · M. 607 890 923 · 607 890 966
Zalain ind. 7 · BERA



udana
salazones

*Inportazioko
bahailu, gazitua,
gezatua eta kongelatua*



Gora San Esteban!

Alkaiaga Ind. • Lesaka • T. 948 631 536 • F. 948 631 550



PRIM, c.b.
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masajeak
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak
- Presoterapia
- METODO BERRIA:
- Umeentzako arnas fisioterapia

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • **BERA**
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • **IRUN**

Kafetegia Okindegia

Garbi ogi & coffee

Gosariak, merenduak, gofreak, krepak,
txokolate beroa txurroekin, izozkiak, goxokiak, etxeko batidoak
Tarta eta pastel freskoak enkarguz
Aperitiboak (pintxoak, ardoak, garagardoa...)
BOKATAK ETA PIZZAK BERTAN JATEKO EDO ETXERA ERAMATEKO

ONGI PASA BESTAK!!

07:30-13:30 / 16:00-20:30 | Asteazken arratsaldetan itxita

Iturlandeta, 6 • BERA • 948 625 673



HORTZ-Klinika

Iker Albisu Altolagirre
Mediku Ortopedologoa (Kol. Zko. 449)

Iturlandeta, 3. behe ezkerrean
31780 Bera (Nafarroa)

Tel: **948 631 631**



Savera
Elevator System Solutions

ONGI PASA BESTAK

Beratik mundura

Zalain auzoa, 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.: +34 948 626 900 - Fax: +34 948 626 904
savera@saveragroup.com - www.saveragroup.com

The Kingdom Tower
Jeddah, Saudi Arabia
1.000 m.ko altura

Berako gidak erabiliz egina




Anzoa

JATETXEA - OSTATUA
Egunero 09:30etik aitzinera irekita

Bertan jan edo etxera eramateko...

- Pintxoak
- Errazioak
- Plater konbinatuak
- Hanburgesak
- Sandwichak
- Entsaladak
- Oilasko erreak
- Su motelean erretako bildotsa
- Urdaiazpiko Iberikoa labanaz moztua

Illekueta, 11 | BERA | Enkarguak hartzen ditugu • T. 948 631 509

ONGI PASA BESTAK!



BERAKO BESTAK

ABUZTUAREN ZTIK GRA

EGITARAUA

ABUZTUAK 2, ASTEAZKENA

12:00 2017ko San Esteban besten hasiera adierazteko Herriko Etxetik altxareroa botako da eta ezkil-jotzea izanen da. Aldi berean, tikiendako goxokiak eskainiko dira. **Ondotik** Erraldoiak eta buruhandiak karriz karriz ibiliko dira, Incansables Txarangak eta Ezpelur gaiteroek lagunduta. **17:00** Ezpelur gaiteroek San Jose zahar etxean joko dute. **18:00** Herri-poteoa Errekalde ostatutik hasita. **19:00** Berako txistularien kalejira. Illekuetatik Herriko plazara. **19:30** Kontzertua Altzateko plazan Broken Brothers Brass BAND taldearekin. **21:00** Dantza herrikoiak Altzateko karrikan (fandangoa, arin-arina, larrain dantza...) Ezpelur gaiteroen laguntzarekin. **23:30** Kontzertua Altzateko plazan Txamukos Taldearekin. **Egunean zehar**, Incansables Txaranga ariko da karriz karriz.



ABUZTUAK 3, ORTZEGUNA

09:30 Herriko txistulariek argisoinua joko dute; Ezpelur gaiteroek herrian barna joko dute. **10:30** Udal ordezkariak, txistulariak, makil dantzariak eta Berako bandera aitzinean dutela, Herriko etxetik San Esteban elizara abiatuko dira, Esteban Donearen ohoretan eta Berako abesbatzak lagundurik emanen den Meza Nagusia aditzera. Meza ondotik, Berako bandera dantzatuko da eta Gure Txokoa Dantza Taldeko kideek Berako Makil-dantzak eta Bordon-dantza dantzatuko dituzte txistularien laguntzaz. Gero Eneko Lazkoz eta Iratxe Ibarra bertsolariak kantatuko dute. **13:00** Ezpelur gaiteroak Ibardinen ibiliko dira. **17:00** Incansables Txarangak San Jose zahar etxean joko du. **18:00** Gure Txokoa Dantza Taldeak Berako Aurrekua dantzatuko du Herriko Etxeko Plazan txistularien laguntzaz. Gero Berako Bandaren kontzertua herriko etxeko plazan. **21:00** Dantza herrikoiak Altzateko karrikan Ezpelur gaiteroen laguntzarekin. **00:00** Dantzaldia Altzateko plazan Saltoka Taldearekin. **Egun osoan zehar** Incansables Txaranga karriz karriz ibiliko da.



Jorge Sopena Colombera
ODONTOLOGOA
Colegiado 223
Itzea, 1 - 1º 31780 BERA
T. 948 63 06 47
Ongi pasa bestak!



ongi pasa bestak!
F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea
jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 607 406 781



Zuhaitzak erosi, bota eta ateri. Piketeak eta sutarako egurra.
ONGI PASA BESTAK!
Pio Baroja, 3 | Obenea | Bera | T. 617 981 427

arropa-denda | etxeko osagarriak | lantzeria

Arduro

Ongi pasa bestak!

Altzate, 30 31780 BERA T. 948 630 136



VENTA GORA

OSTATUA - JATETXEA
Menu | Karta
KAFETEGIA · OROIGARRIAK
AUTOZERBITZUA
Besta zorionsuak igaro!

Ibardingo gaina | BERA
Tel.: 0034 948630729

K
KORTA ANAIAK

AROZTEGI METALIKOA
CARPINTERIA METALICA

ongi pasa bestak!

Alkaiaga Ind. Elutxa 1 · 31789 LESAKA
T./F. 948 631 651
info@kortanaiak.com

Kortinak
Estoreak
Etzerako
ehungintza
osagarriak

Kotoi

Bidasoa karrika 14 · 31780 Bera · T. / F. 948 631 660
ongi pasa bestak!

Pizzio

tabako-denda 2. zbk

ongi pasa bestak!

Altzate, 26 · Tel. 948 630 788 · 31780 Bera

ZUBIONDO

Jatetxea Sagardotegia

GARRAIO ZERBITZUA ESKAINTZEN DUGU

Alasta Karrika BERA • T. 948 625 472
www.zubiondojatetxea.com

SMAZIZIOR
edariak

EDARIEN
eta
JANARIEN
SALMENTA
eta
BANAKETA

T./F. 948 631 557
Helbidea Ziobi, 3 ALKAIAGA
eposta: maziziorsenper@gmail.com

ZELAIETA
tabakodenda

egunkariak, aldizkariak...
Iturlandeta • BERA • 948 631 246

ONGI PASA BESTAK

MEKANIZATUAK

ongi pasa bestak!

Zalain Ind., 9 · BERA
T./F. 948 63 11 67

Jauriena
Instalazio elektrikoak

T. 948 631 217
M.630 136 863
jaurenabera@gmail.com

ONGI PASA BESTAK!

Instalazio elektrikoak · Mantenimendu industriala
Etxetresnak · Antenak · Sukaldeko altzariak



ABUZTUAK 4, ORTZIRALEA

09:00 Musika eskolako biolin taldea Dornakun ibiliko da, eta Ezpelur gaiteroak Zalain auzoan. **11:00** Berako igerilekuan haur eta gazteentzat XXX. Igeriketara Txapelketa. Antolatzailea: Gure Txokoa Elkarte. **12:30** Danborrada Herriko etxea plazatik Altzateko plazara. Entsaioak uztailaren 27 eta 28an 20:00etan Herriko etxea plazan. **13:00** Kukaña Illekuetan. **14:30** Muixte! bazkaria (Berako herri mugimenduak antolatuta) Altzateko plazan (eguraldi txarra eginez gero, Altzateko frontoian). Txartelak salgai Katakun eta Errekalde ostatuetan. **Ondotik**, poteoa Incansables Txarangarekin. **18:00** Pilotari profesionalen arteko partidak. Eztegarra pilotalekuan. Aspeko punta-puntako pilotariak. Sarrera: 25 euro (atzeko paretan 15 euro) Salgai Puri-enean eta Zalainen. **18:00** Haurrentzako ikuskizuna: Dj Porru Altzateko pilotalekuan. **19:00** Kontzertua Altzateko plazan Duo Jade taldearekin. **20:00** Etxera! Elkartasun kalejira Mukixutik Altzateko plazara. **21:00** Dantza herrikoiak Ezpelur gaiteroekin Altzateko karrikan. **00:00** Kontzertua Anari eta Kaskezur taldeekin eta ondotik Tirry Tery dj-arekin. Egun osoan zehar Incansables Txaranga karrikaz karrika ibiliko da.



ABUZTUAK 5, LARUNBATA

09:00 Musika Eskolako trikitilariak eta Pandejoleak Suspelan ariko dira, eta Ezpelur gaiteroak Kaule auzoan. **10:00** Plater tiroa, ehiza ibilaldia modalitatean. **Ondotik**, txistorra eta xingarra denentzat. Antolatzailea: Berako Ehiza eta Arrantza Elkarte. **11:00-13:00** Puzgarriak Eztegarra pilotalekuan. **12:30** Erraldoiak eta buruhandiak Ezpelur gaiteroen laguntzarekin ibiliko dira Agerran **13:00** Kukaña, Illekuetan. **14:00** Kantu bazkaria Altzateko pilotalekuan (Sarrera: Helduak: 21 euro/ Haurrak: 9 euro). Salgai uztailaren 28ra arte (ortziralea) Agara prentsan eta Labezarren. Antolatzailea: Labiaga Ikastola. **16:00-18:30** Puzgarriak Eztegarra pilotalekuan. **18:00** Kukaña, Illekuetan. **19:00** Migattuak Herriko etxea plazan. **19:30** Kontzertua Altzateko plazan Azken trena taldearekin. **21:00** Dantza herrikoiak Ezpelur gaiteroekin Altzateko karrikan. **Ondotik** Zezensuzkoa aterako da Altzateko karrikan. **00:00** Kontzertuak Altzateko plazan: Petti eta etxeko uzta eta Drumkopters.



**ALL
YOU
NEED
IS**
Wolala

**BIZI BIZITZA ETA
BESTA ONAK PASA**



BIOK - IBARDIN



SUKALDEKO ALTZARIAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK
KOLTZOIAK - ETXETRESNAK

BORTZIRI
UNSION ANAIAK

Ongi pasa bestak!


Erakusketa: Bereau Etxea LESAKA Nafarroa
T. 948637266 M. 607226891
bortzirialtzari@telefonica.net

ONGI PASA HERRIKO BESTAK!



Errandonea
EDARIAK

Ziobi 11, Alkaiaga Industrialdea.
31789 BERA Tel. 948 630 982



ZELA
KIROLAK

Ongi pasa bestak!


948 630 598
Altzate,6 · BERA



CARROCERIAS
ALZATE

TXAPA eta PINTURA

Alkaiaga ind. Alasta, 4 · Tel: 948 630 373 · BERA



G A
U N

ONGI PASA BESTAK!

ONGI PASA BESTAK



elika
Dietetika = elikadura

IXIAR ANDUEZA LANZ
Dietista-Nutrizionista
Kolegiatu zenbakia NA221

Itzea, 6 behea 31780 BERA
T. 948 631 283 645 708 512
e. elikabera@hotmail.com



Hotel Churrut
HOTEL

Churrut hoteleko
jatetxea (LENKONEA)

Foruen plaza | BERA
T. 948 625 540 · T. 948 625 542
www.hotelchurrut.com

BERAKO BESTETAKO MENUA

FANDANGO entsalada
(ganboiak, txipiroiak eta shii-take onddoa).
ARIN ARIN bolobana
(mariskoa), tipulin eta perrexil-emultsioarekin.
AURRESKU legatza
baraxuri fresko-saltsa finarekin eta barazki-broxtetarekin.
MAKILDANTZA Roastbeefa
ardo beltzaren erredukzioarekin
CHURRUT tarta zitrikoa,
almendrazko etxeko teila eta mugurdi-sorbetea.
ARDOAK, KAFAA ETA BEZ BARNE.

PREZIOA: 33 €

TXOMIN IRAZOKI FISIOTERAPEUTA



MASAJEAK
BIZKORTZE ARIKETAK
ESKU TERAPIA

ongi pasa bestak!

Eztegara, 28 behea BERA
T. 948 631 391
M. 670 471 200



BIZIKLETEN SALMENTA ETA KONPONKETA.

Eta orain,
GIMNASTIKA ETA FITNESS MAKINAK,
bizikleta estatikoak
lasterketako zintak

...

948 631 218
Kanttonberri 1, BERA

kateabera@telefonica.net

MASATI ORBEA MERIDA SCOTT BH



ABUZTUAK 6, IGANDEA

09:00 Bera kantari eta Ezpelur gaiteroak Garaitarreta eta Suspelttiki auzoetan ibiliko dira. **12:00** Erraldoiak eta buruhandiak, Altzatetik Herriko etxera, Incansables Txaranga lagunduta. **14:30** Herri bazkaria Herriko etxeko plazan (eguraldi txarra eginez gero, Altzateko pilotalekuan). Txartelak salgai abuztuaren 1era arte, Errekalde eta Xuga ostatueta. Txartela: 16 euro. **18:00** Kuadrillen jautsiera. Plazatik plazara. **18:00** Haurrentzako ikuskizuna: Txantxariak (Urtxintxa) Altzateko pilotalekuan. (eguraldi txarragatik, leku honetan herri-bazkaria egin behar izanez gero, ekitaldia Eztegarra pilotalekura pasatuko zen). **18:00** Kukaña, Illeketan. **19:30** Berbena Alzateko plazan Tximeleta taldearekin. **21:00** Dantza herrikoiak Ezpelur gaiteroekin Alzateko karrikan. **Ondotik** Zezensuzkoa aterako da Alzateko karrikan. **23:00** Berbena Alzateko plazan Tximeleta taldearekin. Egun osoan zehar Incansables Txaranga karrikaz karrika ibiliko da.



asesoría
Emaitza
AHOLKULARITZA
Kontable · Fiskala · Laborala

Eltzeta, 20 behea
31770 LESAKA
T. 948 638 077
www.emaitzai.eu
amaia@emaitza.eu

ongi
pasa
bestak!

ELIZALDE

Benta | Ostatura | Jatetxea

Besta on batzuk pasa!

948 631 024 | Ibardin | BERA

Goxune

Kafetegia  Okindegia

Sara kalea, 7 - BERA
Tel: 948 630 235

Udako ordutegia (Ekainaren 24tik irailaren 1era)
Asteartetik igandera Astelehena

7:30 a 13:30h. **7:30 a 13:30h.**

17:00 a 21:00h. Astelehen arratsaldean itxita

EGUTEGI PERTSONALIZATUAK

Paretan jartzekoak
Kontsultatu neurriak, hilabeteak
ilargiekin, euskaraz, elebitan...

Mahai gaineko egutegiak
Modelo ugari aukeran, trokelatuak,
paper edo PCVzkoak

Posterrak Neurri handikoak:
A1, A2, A3. Paper lodian

Sakelekoak 55x85 mm.
66x96 mm. Izkin borobilduak

 **ttipi-ttapa**

948 63 54 58 | www.kulturkari.com
kulturkari@ttipi.eus



Eskatu aurrekontua!


Halcon **bidaiak.com**
MUSKOA TOLOSA

948 630 451

ONGI PASA BESTAK!

Eztegara 30 · 31780 Bera · Nafarroa

HAMAIKETAKO ERAMATEKO JANARIA

ETXERA ERAMATEKO MENU OSOA 7€tik HASITA
948 631 017



ONGI PASA BESTAK!

Sara karrika, 7 · Agerra auzoa · BERA

Gestel®

K SAT ONGI PASA BESTAK!

TELEKOMUNIKAZIOAK
ANDONI LASAGA APEZTEGUIA
T. 637 40 86 40 · 31780 BERA
andonimatxako@gmail.com

- TDT instalazioak
- TB instalazioak (satelite, lurrekoak)
- Instalazio indibidualak eta kolektiboak
- Satelite bidezko interneta
- Internet konexio simetrikoko ultralastera

ONGI PASA BESTAK!

LD

◀◀◀◀ HIRUKIDE ▶▶▶▶

Eguzki panelak ▶▶ Iturgintza
Industria mantenimendua ◀
Aire egokitua ◀

T./F. 948 625 395
Alkaiaga ind. • Alasta, 4-6 Behea • 31770 LESAKA

Luahi

ileapaindegia • solarium • estetika zentroa



ONGI PASA BESTAK!!

LUAHI ILEAPAINDEGIA
Eztegara kalea, 20 · BERA · 948 625 742



Ane BERASAIN GOIA

Berako gaztea

«Emozio handia sentitu izan dut Bordon-dantza dantzatzen»

19 urteko «neska alai» dela erranez aurkeztu digu Anek bere burua eta gaineratu digunez, «irakurtzea eta ingurukoekin denbora pasatzea» atsegin ditu. Udako hilabeteetan izan ezik, ikasturte garaian kanpoan pasatzen du astea, ikasketak kanpoan egiten ari delako. Baina asteburuetan etxera bueltatzen da eta «asteburuetan eta udan lana egiten dudala» erran digu. Lan egitea tokatuko zaio sanestebanetan ere, baina hori ez da aitzakia bestarik ez egiteko. Bilatzen du tartea. Lanera joateko ohatzetik jaikitzea «zaila» egiten zaiola onartu badigu ere, aipatu digu, «ahal bezain ongi» moldatzen dela lana eta besta bateratzeko. Berak dioen bezala, «bestazalea» delako eta are gehiago herriko bestak baldin badira. Gustukoak ditu, eta batez ere, «egun osoan dagoen bestetako giro berezia da» gehien gustatzen zaiona: «normalean jendea kontent egoten delako».

«Egun osoan dagoen giro berezia da bestetatik gehien gustatzen zaidana, normalean jendea kontent egoten delako».

DANTZA TALDEAREKIN

Lanean libre baldin badu, txoznetako bazkarira joatea maite du: «lagunekin joatea aunitz gustatzen zait», dio. Baina hortaz aparte, Gure Txokoa Dantza Taldean ere badabil: «12-13 urterekin hasi nintzen». Bere irudiko, «nahiko berandu, normalean jendea tiki-tikitatik hasten delako». Baina geroztik, aukera baldin badu, ez du hutsik egiten besten aitzinetik dantza taldeak egiten duen jaialdian. Aurten abuztuaren 1ean izanen da, 19:30ean Eztegara pilotalekuan. Hori prestatzeko «ordu aunitz» pasatzen dituztela adierazi digu Berasainek: «gehienbat helduek, baina ttikiekin ere ordu dezente pasatzen ditugu, batez ere azken errepassoekin».

Ez da jaialdi horretara mugatzen besten bueltan Anek egiten duen dantza saioa. Izan ere, San Esteban Egunean Gure Txokoa Dantza Taldekoek egiten dituzten dantzetan ere parte hartzen du. Duela hiru urte hasi ziren emakumezkoak Bordon-dantza dantzatzen eta tartean zen Ane. Gabezia bat sumatu zutelako hasi ziren: «emakumeok ere herriaren parte izanda, herriko bestetan Bordon-dantza ez dantzatzean plazan hutsune bat zegoela ikusi genuen, eta gu ere dantzatzen hasi ginen». Kontatu digunez, saltoa ematea «ez da batere zaila izan, jende gehienak bere babesa eman digu eta hori ere eskertzekoa da». Gehiago ere azaldu digu Berako gaztak: «emozio handia sentitu izan dut Bordon-dantza dantzatzen, batez ere jendea animatzen aditzen duzunean».

«Emakumeok ere herriaren parte izanda, herriko bestetan Bordon-dantza ez dantzatzean plazan hutsune bat zegoela ikusi genuen, eta gu ere dantzatzen hasi ginen».

Alde horretatik, hutsunea ez du dantzan bakarrik sumatzen Berasainek. Goldatz Berako Emakume Feminista Taldeko kidea da eta feminisotik begiratura, «toki gehienetan bezala, Beran ere hutsune handiak» daudela uste du. Hala ere, lanean ari dira: «hutsune horiei ahalik eta hobekien aurre egiten saiatzen gara, bai egunerokotasunean eta bai bestetan ere». Erronka «ugari» omen dituzte Goldatzen barrenean, «baina orain, bestetan zentratuak gaude». Horien artean, eraso sexistak prebenitu eta hauen kontzientziarioa jendarteratzeko, eta eraso bat dagoenean erantzun antolatua bat emateko protokoloa landu dute. Kontuak kontu, lanean bai, baina baita dantzan eta bestan ere. Hola ibiliko da Ane Berako bestetan.



**BESTA ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUEGU!**

IDOIA LURRINDEGIAK
IBARDIN · DANTXARINEA · VALCARLOS

LABIAGA

eraikuntzak

GREMIOEN KOORDINAZIOA

IMANOL 608 117 634
XATUR 608 117 635

Ongi pasa bestak!

BERA | ELIZONDO

ONGI PASA BESTAK!



ugaldea

AHOLKULARITZA · FISKALA KONTABLEA
ASESORIA · FISCAL CONTABLE

Rafa Pombar Sainz
Sara karrika, 1 31780 BERA (Nafarroa)
tel 948 63 02 01 fax 948 63 02 55 e-mail asesoria@ugaldea.com

UDAKO ETXEA

Benta · Ostatua · Jatetxea



Larun - BERA
Tel.: 948 63 11 15
Tel.: 00 34 948 63 11 15 (Iparraldetik)

Ongi pasa bestak!!

Erabili TTIPI TXARTELA

pegatina hau ikusten duzun
denda eta zerbitzuetan



probentzu aukera!



ONGI PASA BESTAK

MS

Ile-apaindegia
Estetika

- EMAKUMEENTZAKO ILE-APAINDEGIA, ESTETIKA ETA SOLARIUM
- GIZONEZKOENTZAKO ILE-APAINDEGIA ETA BIZARTEGIA

Eskatu aurretik ordua
Iturlandea, 4 | 31780 BERA | T. 948 630 483



Berako udalak besta zoriontsuak opa dizkizue



B E R A

Gora Berako bestak



Goldatz Berako Emakume Taldea Feminista

«Eraso sexistak daudenean erantzuteko eta laguntzeko prest egonen da beti Goldatz»

«Dantzatu, gozatu eta nahi duguna egin nahi dugu, deseroso sentitu, kikildu eta erasorik jasan gabe». Mezu argi horixe zabaldu du Goldatz Berako Emakume Talde Feministak herriko beste begira. Izan ere, Goldatzeko kideen irudiko, «egunerokoan indarkeria sexista gure jendartean hagitz hedatua dago», eta bestetan, «alkoholak eta bestetako giroak sortzen duten askatasun sententzioaren ondorioz, indarkeria sexista kasuak areagotu egiten dira. Erasos sexistak ohikoagoak bihurtzen dira ostatu eta parranda giroan, baita kalean ere». Horregatik, hain zuzen, «eraso sexistak prebenitu eta hauen kontzientziazioa jendarteratzeko, eta eraso bat dagoenean erantzun antolatu bat emateko» protokoloa landu du talde feministak. Gehiago ere bai. Bestetarako egin duen protokoloarekin bat egin baitute herriko hainbat ostaturik: Auzoa, Bidaxka, Errekalde, Ikuliu, Katakua, Lixioia, Xuga eta Txoznak. Erasoa jasan duenak behar duenerako laguntzeko prest agertu dira, baita Berako Udala eta Bortzirietako Oinarriko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea ere. Gainera, txozna gunea eremu zaindua izendatuko dute bestetan. Goldatzeko hitzetan, «lehenasunezkoa delako gu babestuta eta espazio eroso batean sentitzea».

ERASOAK IDENTIFIKATZEN...

Eraso sexistak prebenitu eta horien kontrako kontzientziazioa indartzeko, informazioa zabalduko du talde feministak: Berako Oihua aldizkarian, etxez etxe diptikoa banatuz, kartelak, iragarkiak eta kantak paratuz... Baina horrez gain, eraso bat baldin badago, nola jokatu ere zehaztu du, bai jazarpena dagoen kasuetan eta bai eraso fisiko dagoenean ere. Goldatzetik oroitarazi dutenez, «kontaktu

fisikorik gabeko edozein jarrera sexista da jazarpena, gustuko ez duguna, deseroso sentiarazten gaituzten piropoak, begirada lizunak, mespretxuak, irainak...». Erasos fisikoak, berriz, «nahi ez ditugun ukituak, bortxaketak, jipoiak... dira».

Goldatzek bestetarako egin duen protokoloarekin bat egin dute herriko hainbat ostaturik, eta eraso jasan duenari laguntzeko prest agertu dira.

ZER EGIN ERASOA DAGOENEAN

Erasoa jasan duenari babesa eta laguntza eskaintzeko deia luzatu dute Goldatzeko kideek eta gaineratu dutenez, «erasoa jasan duenak nahi duen bezala jokatzeko eskubidea du. Ez badu erantzunik eman nahi, bere erabakia da. Konfidentzialtasuna beti gorde behar da». Jazarpena dagoenean, erasotzaileari abisua ematea garrantzitsua da Goldatzentzat: «bere jarrera eraso sexista bat dela eta eraso jasan duena deseroso sentitzen dela jakinarazi behar zaio eta jarrera honekin segitzen badu, kanporatua izanen dela». Erasoa larria denean, bortxaketa kasu, Goldatzetik aipatu dute, «emakumeari beti jakinarazi behar zaiola laguntza eskatzen ahal duela 112ra deituta». Arropaz ez aldatzeko eta gorputza ez garbitzeko ere aholkatu dute. Erasoa jasan duenak erantzuna ematea eta eraso publikoa egitea erabakiz gero, bertzeak bertze, erasotzailea eremutik kaleratu eta bihar munean kontzentrazioa eginen dute. Hori guztia, «egiturazko zapalkuntzei aurre eginen dien besta ereduak sustatzeko. Bestak ongi pasatzeko direlako. Denon artean denontzako bestak egin ditzagun».

Besta onak pasa!!!

E D A R I A K



MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11
tabernabera@gmail.com
www.tabernaedariak.com

Zalain
JATETXEA RESTAURANTE



**BESTETAN LASAI IBILTZEKO
GARRAIO ZERBITZUA ESKAINTZEN DUGU
21:00-01:00
TXUPINAZO EGUNEAN EGUERDIAN ERE**

Zalain Auzoa z/g 31780 Bera - Nafarroa
t. 948 631 106 w. www.zalain.com



xuga

tel. 948 631 519
www.xugabera.com | www.facebook.com/xugabera

**BESTA ON
BATZUK OPA
DIZKIZUEGU!**

ZU loredenda
dekorazioa
osagarriak

Altzate, 33
31780 BERA

zuloredenda@hotmail.com
Tel.: 948 625 786

MALE REKA
KUSTOM

Arropa eta osagarri pertsonalizatuak

30 URTE

ZOANS

Nagusia, 1 · Doneztebe T. 948 451 571 / 636 885 190
male-reka@male-reka.com Male-Reka

ONGI PASA BESTAK!

matxako
KALEFAKZIOA · GASA · ITURGINTZA

PELLETEZKO ESTUFAK eta GALDARAK

609 808 756 · BERA

HK podologia
Nora Maiza Arozena

KIROPODIA
HAUR PODOLOGIA
KIROL PODOLOGIA
OIN AZTERKETA DIGITALA
ORTOPODOLOGIA
ORTONIXIA
OIN DIABETIKOIA
KIRURGIA PODOLOGIKOIA

Legia 42, 31870 Bera | T. 688 878 177

ongi pasa bestaki

Oiartzabal
arkitektoa

Ipar karrika, 15
31780 BERA
T. 948 630 304 · 627 955 349



Lupe MENDIGUTXIA

Isidororen Lagunak taldeko kidea

«Berako ondare haundiak erakusleihu bat eduki behar du»

Aurkezpen guttirikin aski du Lupe Mendigutxiak Beran, baina bada jendeak argi izatea nahiko lukeen zerbait: «igantziarra eta beraterra naizela». Hori garbi dio, nahiz eta Erreterian bizi izandakoa den eta Oiartzunen lan egiten duen: «ni, berez, Igantzin jaioa eta Igantzin bizitutakoa naiz. Aitak Pasaian lan egiten zuen eta Erreteriarra joan ginen bizitzera, baina nik bihotzean eraman dut eta daramat Igantzi». Baita Bera ere: «Berara ezkondu nintzen eta 34 urte daramazkit bertan. Beraterra ere sentitzen naiz».

«Gustatzen zaizun hori egiteak ematen dizun plazeragatik baldin bada afizioa, nik aunitz ditut. Beti badut zeregina eta izanda ere hurrengoan pentsatzen ari naiz».

AFIZIOEN ZERRENDA LUZEA

Irakaslea da ofizioz, baina afizioen zerrenda luzea du: «landareak, artea, historia, musika... eta batez ere lagunekin egotea». Berak onartu baitigu «aspertzea zer den ez dakien pertsona» dela: «beti badut zeregina eta izanda ere hurrengoan pentsatzen ari naiz». Zaletasun aunitz ditu: «afizioa gustatzen zaizun hori egiteak ematen dizun plazeragatik baldin bada, afizio ausarki ditut». Honela azaldu dizkigu: «etxean nagoenean landareekin ordu dezente pasatzen ditut». Artea ere «bere diziplina desberdinetan» maite du: «pintura hagitz gustuko dut, baita eskultura eta antzerkia ere. Artearen munduan zinema da guttien erakartzen nauena». Euskal Herriko historia «aunitz interesatzen» omen zaio eta azaldu digunez, «1989an, Oiartzungo bortz lagunekin, Bera lurraldeko mapa argitaratu genuen, Bera udal mugaparean ondare eta lekuen izenekin. Lan sakona izan zen, erruz disfrutatzen nuen». Gero, Igantziko toponimia ikertu zuten, «baina sortutako materiala Nafarroako Gobernuari saldu genion».

Historiazalea izanda, «liburuak irakurtzen ditudanean, normalean, nobela historikoak irakurtzen dituela» aipatu digu. Musika da bere bertze pasioa: «gehienbat, musika klasikora jotzen dut. Musika korala eta opera arrunt gogokoak ditut». Onartu digunez, «autoan gidatzerakoan, Gaztea paratzen dut eta gustatzen zait, baina musikaz gozatu nahi badut ez dut hori entzuten». Isidoro Fagoagaren omenaldia antolatzen aritzeak «bertzeen artean, Wagner eta bere operak deskubritzea suposatu dit. Ez dira Verdirenak edo Mozart batenak bezain atseginak entzuteko, luzeagoak eta gogorragoak dira, baina tira! Momentuz, ariak entzuteari ekin diot».

SAL TSA UGARITAN

«Etxean diote mari-saltsera jaiotzen nintzela eta hala izaten segitzen dudala». Bere hitzak dira. Geldirik egoten ez dakienez, saltsa mordoxketan sartzen da: «1983an Berara joandakoan, Gure Txokoa elkarteko bazkide egin nintzen eta Artea eta Kultura batzordeetan urte batzuk lanean eman ondotik, elkarteko lehen emakume lehendakaria izan nintzen». Udaleko kultura batzordean ere urte batzuk eman ditu eta egun ere partaide da. Eta ia zitiak Isidororen Lagunak taldean dabil. Aurten 80 urte bete dira Gernika bonbardatu zutenetik, eta bonbardaketaren berri izan zuenean, betirako kantua uztea erabaki zuen Isidoro Fagoaga Berako tenorrik. Hori gogoan, ekitaldi saila antolatu ditu Isidororen Lagunak taldeak aurten. Bederatzi kide dira taldean: Jon Abril, Ixa Ordoñez, Marisol Taberna, Helena Santesteban, Rosa Errandonea, Juan Ignacio Oiartzabal, Arantxa Arregi, Aitor Elexpuru eta Lupe Mendigutxia. Eta horietako batzuk bertze proiektuetan ibilitakoak dira: «2013an 200 urte bete ziren San Miguel zubian ingeles eta frantses artean liskarra izan zela. Horren harira, lantalde bat sortu eta zubia konpontzeaz gain, zubian gertatu zena Berako herriari jakinarazteko ardura

Elkarrizketaren segida 25. orrialdean.

Martiko® Keztatuak

Xantelmar S.L. Zalain Ind. z/g
31780 Bera. Nafarroa.
Tel: 948 625156 Fax: 948 625 157
www.martiko.com



BESTA ONAK PASA!



ZURE GOZAMENERAKO LEHENGAIK HOBERENAK.

DENDA ORDUTEGIA
Astelehenetik-ortziratera 08:00-17:00
Martiko Zalain Ind. z/g 31780 Bera Nafarroa
Tel. 948 625 016 Fax: 948 625 036
www.martiko.com · martiko@martiko.com

ZORIONAK!



DANCHARIA



BÉHOBIE



ARNÉGUY



IBARDIN



Jantzi-dendak · Lurrin-dendak · Bitxi-dendak
Supermerkatuak · Tabako-dendak · Harategiak
Jatetxeak · Ostatuak · Sagardotegia · Diskoteka





sarobe[®]
gozotegia okindegia

D^o de eztegarra 25 bajo
31780 bera (navarra) t.948 63 08 99
www.sarobe.net

Oinetako eta osagarriak

Ongi pasa bestak



Oinatz

Altzate, 5 31780 BERA • T. 948 630 120



744 484 361



caveo

Funvera Plant

ongi pasa bestak!

Bidasoa, 84 · BERA
Tel.: (+34) 948 62 50 20
Fax: (+34) 948 63 10 01
www.caveoautomotive.com

BAZAR FELI
Kanttonberri, 5 · BERA · 948 625 285

Ongi pasa bestak!

LITXARRERIAK · IZOZKIAK · BITXIAK · ARROPA
ETXERAKO TRESNERIA · BURDINDEGIA
ESKOLAKO MATERIALA · JOSTAILUAK
GARBIKETA PRODUKTUAK



ESKERRIK ASKO
GURE HERRIA BIZIRIK MANTENTZEN
LAGUNTZEAGATIK ETA GURE
HERRIETAN LAN EGIN ETA
BIZITZEKO AUKERA EMATEAGATIK



bera

• merkatarien, ostalarien eta zerbitzu enpresen elkarteak
• asociación de comerciantes, hosteleros y empresas de servicios



Isidororen Lagunak taldeko kideak. Argazkian Rosa Errandonea falta da, argazkilaria.

Lupe MENDIGUTXIA | Isidororen Lagunak taldeko kidea

22. orrialdeko elkarizketaren segida.

hartu zuten». 2014an, berriz, Julio Caro Barojaren jaiotzaren mendeurreneko ospakizunak antolatu zituzten. Orduan sartu zen taldean Lupe eta barojatarrak ikastetxeetan ezagutarazteaz arduratu zen: «horretarako lan-koaderno bat egin nuen». Aldi berean, «Beran gure ondare guztia bilduko lukeen museo edo espazio bat» sortzeko ideia lantzen hasiak ziren, eta horretan ari zirela, 2016ko irailean Isidoro Fagoagaren omenaldiari heldu zioten: «Herriko Etxeak aurkeztu genion aurrekontua onartu zuen, eta bideragarria zela ikusitakoan, lanean hasi ginena». Laguntza horri esker ekintza-programa zabala landu dute Isidororen inguruan: erakusketa, hitzaldiak, mahai-ingurua, omenaldia, antzerki musikatua... Baina oraindik gehiago egiteko asmoa dute: «programazioa bi zatitan banatu genuen: udaberrikoa eta udazkenekoa. Lehenbiziko zatian, ekintzen bidez, Isidoro ezagutaraztea zen helburu nagusia. Beran bereziki, baina baita Bortzirietan eta hedabideetan ere». Pozik sumatu dugu emaitzarekin: «bikain gainditu dugu». Udazkeneko ekitaldiak musikaren ingurukoak izanen dira. Hala, irailaren 24an Jabier Perez de Azpeitia pianista beratarrak Miguel Olano tenor errioxararekin kontzertua emanen du. Errenteriako Andra Mari abesbatzaren eskutik Faureten requiema entzuteko aukera ere izanen da. «Zoragarria izanen da», dio. Horrez gain, «Berako musikariek egun bat antolatu nahi dugu».

«Nafarroako Gobernuarekin kontatu gabe, ez da bideragarria Beran museo bat egitea».

ONDAREA PLAZARATZEKO

Isidororen inguruan egin den lanaz gain, ikerketa gehiago egin dira azken urteotan Beran: On Julio Caro Baroja, San Miguel zubia, herria ezagutarazteko egindako lanak... Luperen irudiko, «horiek guztiak ezin dira bere horretan utzi, ezta oraindik ikertzeko ditugunak ere. Museo bat edo erakusleho bat behar dute». Eta hori da

esku artean duten bertze egitasmoetako bat. Argitu digunez, «Berako Herriko Etxeak ezin du museo bat egiteak sortuko lukeen zama ekonomikoa bere gain hartu». Hortaz Nafarroako Gobernuarekin harremanetan hasiak dira.

«Bestetako egitarauaren inguruko kritikak aditzea ez dut atsegin, badagoelako jendea antolatzeko lanean aritu dena, horrek suposatzen duen dedikazio eta esfortzuarekin.»

BESTAK GOZATZEKO

Urte osoan hainbertze lan egin ondotik, Isidororen Lagunak taldeak atsedean hartuko du herriko bestetan. Eta Lupek ere gozatzeko probestu nahi ditu bestak: «urte aunitz eman ditut Berako bestetako programa antolatzen». Gustuko ditut bestak, baina bereziki bezpera eta San Esteban Eguna. Bezperatik «prestaketak, txupinazoa, txupinazoaren ondotik Maite lagunaren etxean aperitiboa hartzea, erraldoi eta buru-haundiak ikustea...» atsegin ditu. Bestetako egun handian, mezara joatea gustatzen zaio, edo berak dioen bezala, «parrokiko kontzertura joatea. Perosiren meza entzuteagatik joaten naiz, abesbatza eta kantatzera joaten den adineko jende hori aditzera». Musika Bandaren kontzertua, Gure Txokoa Dantza Taldearen saioa, eta gaez Altzateko Plazan egiten den Larraindantza ere «ez ditut galtzen». Aurten pilota partidak ikusteko sarrera ere erosi omen du. Bestetan zerbait faltan edo soberan sumatzen ote duen galdetuta, garbi mintzatu da: «bestetako programa ona da. Musika talde hori eta ez bertzea nola ekarri den entzutea; edo nolatan ez diren su artifizialak urtero ekartzen, edo bakillak paratu edo kendu direlako kritikak egitea ez dut atsegin. Badagoelako jendea Herriko Etxeak egin duen deialdiari kasu egin eta bileretan parte hartu duena, horrek suposatzen duen dedikazio eta esfortzuarekin».

Semper autoeskola

ESKAINZA BEREZIAK!

Ikastaro teorikoa nahiz praktikoa euskaraz!

- INFORMATU ZAITEZ -

Eztegara pasealekua, 26 Plaza Berria, 7
 BERA LESAKA
 T. 948 630 298 T. 948 638 299
 e-posta: semperautoeskola@gmail.com
ongi pasa bestak!

ONGI PASA BESTAK!

BERA · IBARDIN · 00 34 948 630 724

ongi pasa bestak!

FONTANERIA

Carlos Pacheco

C/Legua nº 19
31780 BERA (Navarra)
Telefono: 637 15 11 70

Instalatazaile teknikoa **629 449 602**

ITURGINTZA · GASA · BEROGAILUAK
AIRE GIROTUA
KOMUNEKO & SUKALDEKO OSAGARRIAK
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

Zerbitzu & Gremioen koordinazioa

ONGI PASA BESTAKI



Kalash

Bitxi-denda | Erloju-denda

Qure ideia "bitxi" bihurtuko dugu

Banatzailerik ofizialak:   

Kanttonberri, 6 BERA | 948 630 751
Merkatarien Karrika, 7 DONEZTEBE | 948 451 519

ZENTRU LOGOPEDIKO-PEDAGOGIKOA

Nekane Ordoki Gonzalez
ongi pasa bestak!

- ✦ Ahozkapen zailtasuna ("erre" gaizki esana, "ceceo"-a...)
- ✦ Gauzak kontatzeko zailtasuna
- ✦ Irakurketa arazoak
- ✦ Idazketa arazoak
- ✦ Toteltasuna "tartamudeo"
- ✦ Ahots arazoak
- ✦ Arnasketa arazoak

Euskaraz/Erdaraz

646 894 332
BERA

ERREKALDE



PLATER KONBINATUAK
PINTXOK
BOKATAK

ABUZTUAK 4 eta 5
GAUEZ IREKIA.
KUBATA BEREZIAK.
GAU GIROA

Tfn: 948 630 259
BERA



PIKA BEA

HARATEGIA
URDAITEGIA

Ongi pasa bestak!

T. 948 631 284
Sara karrika, 7 · Agerra auzoa · BERA



INDARRI

HOTZ KOMERTZIALA
ETA INDUSTRIALA

Ongi pasa bestak!

T. 639 103 305 · BERA

Alberto RETEGI

abokatu

Ongi pasa bestak!

948 630 763
Altzate, 17 · BERA

ONGI PASA BESTAK!

OSTARGI OPTIKA

ABUZTUKO ORDUTEGIA
Goizez 09:30-13:00
Arratsaldez: ordua eskatuta bakarrik.

Bidasoa 8 BERA
948 630 753




Aitzinaldeak, angeluak, pareta aitzinekoak
leihoak, atek, arkuak, pilareak,
tximiniak, erlaizak, moldurak
zokaloak, hilarriak, marrazkiak

ongi pasa bestak!

Tel. 948 631 317 · Faxe. 948 631 587
Irungo errep. BERA
www.antzuzelai.com · info@antzuzelai.com

TTIPI-TTAPA
ALDIZKARIA
SARE SOZIALETAN

facebook

www.facebook.com/ttpi.ttapa
www.facebook.com/ttpi.eus

EGIN ZAITEZ GURE LAGUN




OTXAMARI CARROCERIAS

ONGI PASA BESTAK!

Zalain Industrialdea 3 · Pab. 124 · 31780 BERA
Tel.: 948 625 538
otxamaricarrocarias@gmail.com

Toki Ona

Berako Udal Kiroldegia




Kirol bulegoa:
948 630 215 | bera@urdisl.com

Ongi pasa bestak!  



GANIX

Tallerra



FIAT zerbitzua

Ongi pasa bestak!

Zalain ind. 11 · BERA
T. 948 63 06 69

SUNBILLAKO BESTAK

ABUZTUAREN 10 ETIK 14 RA



EGITARAJA

ABUZTUAK 10, ORTZEGUNA

20:00 Suziria Herriko Etxetik, erraldoiak, buruhandiak, gaiteroak eta Elutxa txarangarekin. **21:30** Zopak Ulibeltzak elkartearen. **Gauetz** Dantzariak. **20:00** Txupinazoa. **21:00** Afaria Altxunea erretegiaren. **00:30** Dantzaldia Oharkabe musika taldearekin..



ABUZTUAK 11, ORTZIRALEA

09:30 Argi soinuak gaiteroekin. **11:00** Meza nagusia Tiburtzio Deunaren omenez. **12:15** Sunbillako dantzarien emanaldia eta luntxa plazan. **19:00** Toka, aitzur eta zartagin tiraketa igerileku ondoko belagian. **20:30-22:00** Txamukos taldearen emanaldia. **22:30** Su artifizialak Pirotecnia Oscenseren eskutik. **00:00** Kontzertuak Sustrai Berriak, Ahuntzape eta Ingo al deu? taldeekin..



ABUZTUAK 12, LARUNBATA

09:30 Argi soinuak. **11:00** Herri Krosa Ulibeltzak Elkartetik hasita. **19:00** Zumba plazan. **19:00** XVI. Ramon Latasa Saria. **20:00** Bokadilo jana plazan (3 eurotan) Guraso Elkartearen antolatuta. Arratsaldean eta gauetz dantzaldia Lehian taldearekin eta ondoren Azanza DJa.

Janari - dena
MARISOL ONGI PASA BESTAK
JANARIAK | TABAKOA | DROGERIA | LOTERIA | PRENTSA
Kale Nagusia 7, 31790 SUNBILLA | T 948450608

trans-almaluz garratxoak **MENDEBERRIA**
eskabazioak S.L.
GARRAIKO OPERADOREAK
KAMIOIAK TRAKTIOAREKIN
ETA BAINERA
ONGI PASA BESTAK!
LEKU EDER 13 · 31791 SUNBILLA
675 266 027 (ANDONI) 657 580 551 (JUAN LUIS)
BULEGOA 948 450 108 · 672 098 384

JAVI PETRIRENA ONGI PASA BESTAK!
ELEKTRIZITATEA ITURGINTZA KLIMATIZAZIOA BIOMASA PELLET BEROTZA
Ramon Latasa 5, Sunbilla (Na) | T 679354947 | jabi_p@hotmail.com

Ongi pasa bestak!
larreta lanak
IGELTSU PROIEKTATUA PLADUR LANAK
Bidasaia kalea 36 - Bera
larretaigeltsua@gmail.com
Gorka Arretxea 627 225 514 Juanen Saralea 637 921 299

SUNBILLAKO UDALAK
Besta zorientsuak opa dizkizue
sunbildar eta bisitari guztioi
GORA SAN TIBURTZIO !

GAZMENDI
ERAIKUNTZAK
ongi pasa bestak!
DONIBANE KARRIKA
GURE BORDA • SUNBILLA
T. 948 450 130 - 948 451 666
M. 619 469 784



**FACEBOOK eta TWITTERREN
EGIN ZAITEZ GURE LAGUN**



ONGI PASA BESTAK!

Sunbilla · Tel: 948 450 862

JAVIER | BARRA

**ERAIKUNTZAK GREMIOEN KOORDINAZIOA
MOTA GUZTIETAKO IGLTSEKIZTZA LANAK**

**ONGI PASA
BESTAK!!!**

- Etxe bizitza berriak
- Zahar berritzeak
- Erreformak
- Teilatuak
- Komun eta sukaldeak
- Lur zoruak
- Harri lanak orokorrean
- Hormigoio lanak

699 122 815
31791 - SUNBILLA
(Nafarroa)



**Aukerako autoak
Turismo eta furgoneten salmenta
4x4 autoetan modelo guztiak | Salerosketa zerbitzua**

ONGI PASA BESTAK!

T. 948 450 399 · 620 950 687
Iruña-Irun errep. zaharra | SUNBILLA

Zurgin lanak orokorrean

Luis Ibarra

636 701 204

690 388 263
luisibarra86@hotmail.es
Salbatore karrika, 28 · ARANTZA

Armairua
Leihoa
Atea
Teilatu berriak
Parke flotantea
Tarima
Teilatu zaharberitzeak

ongi pasa bestak

SUNBILLAKO BESTAK

ABUZTUAREN 10ETIK 14RA

Itxaso ARRIETA
Sunbillako gaztea



«Bestak lau egunez balira, jendeak gogo gehiagorekin probestuko lituzke»

«Pertsona mugitua eta alaia naiz». Halaxe dela dio Itxaso Arrieta 24 urteko sunbilda gazteak. Eta herriko bestak ere hala pasatzen ditu, geldirik egon gabe eta batean eta bertzean parte hartuz. Azken urteetan, gainera, bestetako ekitaldi batzuen ardurua hartua du Itxasoren kuadrillak, eta beraz, ezin hutsik egin. «Udalak diru kopuru bat ematen digu gazteoi, gehienbat musikarentzat. Gazteok musika taldeak hartzen ditugu eta diru horrekin ailegatu ez bada, Antrotokiko Gazteek paratzen dugu gelditzen dena. Normalean zerbait paratzen dugu».

«Bestetan gazteok izaten ditugun lanak egiteko ardurua kuadrilla batek hartzen du, baina bilerak gazte guztiendako irekiak dira, eta jendeak ongi erantzuten du».

Aurtengo taldeak lotuak dituzte: «bestetako bilerekin ekainean hasten gara, baina taldeak lehenagotik hartuak izaten ditugu». Hala ere, gazteen ardurua ez da musika taldeetara mugatzen. Bertzeak bertze, «Kuadrillaren Eguneko gazteen bazkaria eta txoznako guztia ere guk antolatzen dugu». Eta zorteko dira, lanerako jendea biltzeko ez baitute arazorik: «ardurua kuadrilla batek hartzen du, baina bilerak gazte guztiendako irekiak dira, eta jendeak ongi erantzuten du».

HAN ETA HEMEN PARTE HARTUZ

Zerbitzaria eta begiralea da lanbidez Itxaso. Urte batzuek begirale gisa atsedean hartu badu ere, aurtengo maiatzetik uztail hondarrera arte Arantzan ibiliko da hurrekin begirale. Abuztuan, ordea, oporrak hartuko ditu: «urte batzuetan herriko bestetan zerbitzari lanetan ibili izan naiz, baina aurtengo ez». Gazteek bes-

tetan dituzten ardurua horiek beretako «ez direnez lana», aurtengo santiburtzioak nahi bezala probesteko aukera izan du. Gainera, lehenbiziko egunetik indarrean hasteko asmoa du, hori duelako egunik maiteena: «denak %100ean egoten garelako». Ekitaldirik kuttunena, berriz, Kuadrillaren Eguneko bazkaria: «ongi pasatzen dugu». Gainerako egunetan ere ez da etxean gelditzen: «lehenbiziko egunean, normalean, arratsalde txoznaren egoten naiz, eta bertzeak, txupinazoa ikustera joaten naiz. Bigarren egunean, dantza taldearen saioan parte hartzen dut, baita aitzur tiraketan ere. Kuadrillaren bazkaria ere joaten naiz...». Gorputzak laguntzen badio eta «erpe baldin banago, ahal den guztietara joaten naiz».

EGUN BAT SOBERAN

Bortz egunez ekitaldi saila izaten dituzte Sunbillan, baina Itxasoren irudiko, «gehiegi da. Egun bat kenduko nieke beste eta lau egunetan utzi». Hartara, dirua aurrezteaz gain, jendeak bestak gehiago probestuko lituzkeela uste du: «San Tiburtzio Egunean talde bat ekartzeko dirua gastatzen da, baina jendea bestondorekin dagoelako edo, ez da aunitz mugitzen. Ez dakit merezi duen». Beretako, «lau egun izanda, jendeak gogo gehiagorekin probestuko lituzke lau egunak». Badiu proposamen gehiago ere: «haurrendako zerbait gehiago paratuko nuke eta horrez gain, Antrotoki ostaturak irekitzea eskatuko nioke Udalari». Proposamenak proposamen, gogotsu eta ilusioz dago bestak hasteko. Hasi bai, baina akitu ez. Beretako, abuztuaren 15a, bestak akitu ondoko eguna, «urteko egunik itsusiena delako, inauterietako astelehenarekin batera. Herria hain mugitua egon ondok, dena akitzen da». Erran digunez, «herriar batzuk orduan joaten da oporretara». Eta berak ere halaxe egiten du: «horrela ez dut herria hain hila ikusten». Baina gero gerokoak. Oraindik bortz egun ditu herriaz gozatzeko.

XVI. RAMON LATASA SARIKETA



Abuztuaren 12an, larunbatean, 19:00etatik aurrera Ramon Latasaren omenezko sarijeta jokatu da Sunbillako pilotalekuan. **Bost bikote** ariko dira lehian: Aitzol Atutxa eta Ugaitz Mugertza, Iker Vicente eta Ruben Saralegi, Arria V eta Joseba Otaegi, Donato Larretxea eta Jon Rekondo eta Mikel Larrañaga eta Iñaki Azurmendi. Bikote bakoitzak hamar kanaerdiko eta sei 60 ontzako ebaki beharko ditu.

Ekitaldi berean, **Xanta Sousak marka** ahalegina egiteko asmoa dauka, 75 kiloko txingak erabiliz esku bakoitzean. **Aizkora desafio berezia** ere izanen da, gizonezkoa eta emakumezkoa aurrez aurre ariko baitira. Ernesto Ezpeleta **Bihurri** aizkolaria eibartarrak eta Maika Ariztegi aizkolaria iturendarrak neurtuko dituzte indarrak. **Bihurri** esku bakarrekin ariko da eta Ariztegi bi eskuekin. Bukatzeko, **Aimar Irigoien eta Jexux Mari Iruetagoiena** *zeta III.a*, bi minutuko txandetan 125 kiloko zilindroarekin, eta 112,5 kiloko harri kubikoarekin.



ABUZTUAK 13, IGANDEA

09:30 Argi soinuak. **Goiz eta arratsaldez** Tren txutxua herrian barna. **14:00** Kuadrillen bazkaria Ulibeltzak Elkartearen. **Bazkalondoan**, ura ura Jaiak Txarangak alaiturik. **17:00** Pilota partidak. **20:00** Tortilla eta postre lehiaketa. **Ondoren** pintxo dastaketa eta sagardoa. **Arratsalde eta gauaz** dantzaldia Tirry&Teri DJ-ekin.



ABUZTUAK 14, ASTELEHENA

09:30 Argi soinuak. **10:00** Mus txapelketa. **11:30-13:00 eta 16:30-19:00** Jokulandia. **22:00** Herri afaria Ulibeltzak Elkartearen antolatuta. **Arratsaldez eta gauaz** dantzaldia Aldats taldearekin.

Bustitz ostaturia
Ungi pasa bestak!

PINTXOAK • RAZIOAK • BOKATAK
HAMAIKETAKOAK • KAXULAK

T. 948 450 504 - Leku Eder - SUNBILLA

sasoi eraikuntzak s.l.
ONGI PASA BESTAK!

Leku-eder, 5
31791 • SUNBILLA • (NAFARROA)
T.: 948 451 596 F.: 948 456 168
info@sasoi.es

ALTZURI ONGI PASA BESTAK!

MENDI LANAK
EGUR ATERATZEAK
ESKABAZIOAK
GARRAIOAK
GARBITZE MEKANIKOAK
ITXITURAK

Leku-Eder, Bustitz • 31791 SUNBILLA
altzuri@yahoo.es • Tel. 948 450 504
M. 659 867 287 • 699 461 394

SU EGURRA ETA
PIKETEAK SALGAI

M^aJESUS HARATEGIA

Etxean egindako txistorrak eta hanburgesak

ZONALDEKO KALITATEZKO HARAGIA
ONGI PASA BESTAK!

Karrika Nagusia, 11 • SUNBILLA • T. 948 451 530

ONGI PASA BESTAK!

CAMPING • KANPINA


ARIZTIGAIN



BOKATAK
AUKERA ZABALA
Eskatu eramateko!!

PINTXOAK | RAZIOAK
HANBURGESAK
SANDWITCH-
AK
PLATER KONBINATUAK
MENUAK | KARTA

31791 SUNBILLA
948 450 540 | 660 798 249 • 636 488 300
info@campingariztigain.com
www.campingariztigain.com



AiNART
ILEAPAINDEGIA

ongi pasa bestak!
Elbarren, 67 - behea
LEITZA · 948 510 197

Arzallus
HARATEGIA

ongi pasa bestak


Txistorra eta artisau produktuak, etxean eginak
Elbarren, 37 · LEITZA · Tel. 948 510 377



BEATRIZENEA
TABERNA-JATETXEA

ongi pasa bestak!

menua · otartekoak · kaxuelitak · pintxoak
Mikel Deuna, 2 · Tel: 948 510 991 · LEITZA



Aliprox

Urdaitegia · Harategia · Arraindegia · Frutategia

Tel: 948 510 007 · 948 610 657
Elbarren, 20-71 *ongi pasa bestak!!*

ASTIZ ANAIK
ZURGINDEGIA



Klase guztietako egur lanak, atekak, leihoak, tarima, armairuak eta kristaldegia

Enborrak neurri guztietan zerrazten ditugu

948 610 606 · 948 510 285

AMAIA
arraindegia



ongi pasa bestak!
Uharte Gotzaia · LEITZA
948 510 590

LEITZAKO PESTAK

ABUZTUAREN 5, 6 ETA 10ETIK 15ERA

EGITARAUA

ABUZTUAK 5, LARUNBATA

14:00 Eskelarien bazkaria Aurreran.
16:00 Auzoz auzo, Plazaola aldizkariaren banaketa: trikitalari, txistulari, akordeoilari eta gaiteroen laguntzaz.



ABUZTUAK 6, IGANDEA

09:00 Diana txistulariekin. **10:00** Korporazio txikiko hurrek Udal ordezkariekin gosalduko dute. **10:30** Gurpildun zezenen entzierroa. **Ondoren**, Aurrerako pilota eskolako gazteak arituko dira plazan. **11:30** Umeen txupinazoa. **11:30-13:30 eta 16:00-18:00** Puzgarriak eta jokoak. **18:30** Aurrerako dantzari ttikien ikuskizuna eta umeen ingurutxo irekia plazan. **20:00** Buruhaundiak aterako dira. **20:00-00:00** Joxe Mendizabalekin musika.



ABUZTUAK 10, OSTEGUNA

11:30 Kuadrillen arteko herri kirolak plazan. **13:00** Elkartasun manifa. **13:30** Jubilatuen bazkaria. **14:00** Herri bazkaria karrapean, musikaz alaiturik. **18:00** Txupinazoa eta Plazaolako aldizkariaren azalaren egileari sari-banaketa. **Ondoren**, Incansables txaranga, txistulariak, erraldoiak, gaiteroak eta buruhaundiak herrian barrena kalejiran. **Segidan**, zuzeneko emanaldia Aurrerako atarian. **21:30** Zezensuzkoa. **23:00** Tximeleta taldea plazan. **Ondoren**, Plazako txoznan DJ Bull. **01:00** Incansables txarangaren erronda.





ABUZTUAK 11, OSTIRALA

08:00 Diana txistulariekin. **09:00** Entzierroa eta behiak plazan. **10:30** Ha-maiketako irekia karrapean. **12:00** Aurrera dantza taldeko Ezpatadantzariak plazan. **Ondoren** Afizionatuen arteko pilota partidak plazan. **13:00** Aurreratik Incansables txaranga aterako da. **17:00** Leitzako Bertso Eskolako bertsolariak Aurreran. **18:00** Zezenak plazan. **19:00** Herri kirolak plazan: Aizkolariak. **Ondoren**, goxokiak banatuko dituzte. **19:30** Incansables txaranga eta buruhaundiak. **21:00** Leitzako ingurutxoia nahi duen guztiarentzat. **Ondoren**, zezensuzkoa. **23:00** Laiotz taldearekin erromeria. **01:00** Incansables txarangaren erronda.



ABUZTUAK 12, LARUNBATA

08:00 Diana txistulariekin. **09:00** Entzierroa eta behiak plazan. **09:00** Zumba. **Ondoren** gazte gosaria eta ginkana plazan. **11:30** Txoro-txaranga. **13:00** Incansables txaranga karrapean. **14:30** Gazte bazkaria karrapean. **17:00** Zezenak plazan. **18:00** Gazte txupinazoa eta kalejira aldarrikatzailea. **19:00** Aurrerako dantzarien emanaldia plazan. **Ondoren**, goxokiak banatuko dituzte. **20:30** Incansables txaranga eta buruhaundiak Aurreratik aterako dira. **21:30** Zezensuzkoa. **23:30** Niña Coyote eta Chico Tornado eta La Mala Pecoraren kontzertuak. **Ondoren** DJa plazako txoznan. **02:00** Kontzertua Ate-kabeltzen. **03:00** Leitzako ingurutxoia nahi duen guztiarentzat.



POLIURETANOZKO
BABES ETA
INJEKZIOZKO
ISOLAKETA

ONGI PASA PESTAK!
AISLAN-LEITZA, s.l.

618 915 943

Santa Luzia pasealekua, 4 B Behea · Butintxuri · IRUÑA
aislanleitza@vahoo.es

ONGI PASA PESTAK
**ARIZTIMUÑO
ANAIK
ERAIKUNTZAK**



Landa Ind. 19 · 31880 LEITZA
T. 948 610 648 · M. 619 664 109 F.948 510 693
construccionesariztimuno@gmail.com

ARKITEKTURA ETA HIRIGINTZA BULEGOA
Celia Lana Ranz, arkitektoa. COAVN 2827
Uharte Gotzaina 7 · 31880 LEITZA · T 645 008 478

**Bi
Lagun**

Iñurrista ind.P-2
31880 LEITZA
T. 948 610 985



ATSEDEN-GOZO

PINTXOAK, BOKATAK, PIZZAK...
BERTAN JATEKO eta BAITA ERAMATEKO ERE
GOSARI eta BAZKARIAK

www.facebook.com/atse Dengozo

ONGI PASA PESTAK!

Landabekoa 1zk kalea · LEITZA · 948 610 572

MANUELA ARIZTELA

Euskal Produktuak **ONGI PASA PESTAK!**



Landa Industrialdea, Suizpi 3 LEITZA (Nafarroa)
T. 948 61 06 11 - www.manuelaariztela.com



LEIMEN S.L.

Era guztietako elektrizitate lanak
 LEITZA 628 725 396 Argoitz
 MENDILLORRI 628 725 397 david

Jai zoriontsuak denoi!!

EZKAIN eraikuntzak S.L.



ongi pasa bestak!!

Lizarraga, 3 • LEITZA
 M. 650 910 868 • 650 910 867
 T./F. 948 610 956 • 948 610 956
 ezkain1@gmail.com



ETXE TRESNAK S.L.

Elektrogailuak
 Instalazio elektrikoak
 Telekomunikazioak

ongi pasa pestak!

948 510 181
 948 510 208
 Elbarren, 45 • LEITZA



Leitza Garajea Multimarka

LEITZA GARAJEA
 MULTIMARKA TAILERRA
 STILH AGENTZIA
 NEKAZARI TAILERRA
 SALEROSKETA

ONGI PASA BESTAKI!

Landa Industrialdea • LEITZA
 948 510 466 • 948 510 972





TALLERES Ireber S.L.

- MANTENTZE-LAN PREDIKTIBOA
- MAKINERIA INDUSTRIALAREN KONPONKETA ETA MUNTAIA

Ongi pasa bestak!

T./F. 948 510 842 • 639 134 464
 Landa industrialdea, Nabe 9-10 B • LEITZA
 ireber@cenavarra.es

Allianz 

ELKARLAN aseguroak

- Autoak, etxeak, komertzioak, R.C. bizi eta baja aseguroak
- Pentsio planak
- Aurrezteko planak
- Kotxe transferentziak

Eskatu aurrekontua inolako konpromisorik gabe!

ONGI PASA BESTAKI!

Elgoien, 53 • LEITZA
 Tel./Faxa: 948 510 490
 jaione.alduntzin@allianzmed.es

ONGI PASA BESTAKI

Clinica Dental IRURITA RUBIO

ORTODONTZIA ETA INPLANTOLOGIA

Rx. Panoramikoa • Periodontzia • Odontopediatria
 Kirurgia • Endodontzia • Protesiak • Hortz-zuritzea
 PADI (Haurren hortzak zaintzeko programa)

DONEZTEBE
 Rosa Seminario, 19
 948 450 267

LEITZA
 Manuel Lasarte, 7
 948 610 713

GAZTAÑAGA
 TABERNA

OTARTEKOAK
 PINTXO BEROAK
 KAXUELAK
 PATATA BRABAK

ONGI PASA BESTAKI!



948 610 708 LEITZA

TXOKO
 TABERNA

PINTXOAK
 OTARTEKOAK

ONGI PASA BESTAKI!

Elbarren, 22 • LEITZA
 T. 948 510 227

FERRETERIA - PENTSUAK

ORTIZ *Ongi pasa bestak!*



Baserriko gaiak
 Tresnak
 Haziak
 Sagardoak
 Baratza
 Ardoak
 Kontserbak
 Pentsuak
 Eraikuntzarako gaiak

@ ortizpentsuak@gmail.com
 Landa industrialdea 13
 31880 Leitza - Nafarroa
 T. 948 513 600
 www.ortizferreteriapentsuak.blogspot.com.es

EXPLOTACIONES FORESTALES ZUBILLAGA SARALEGUI, S.L.



Oihan aprobetxamenduak
 Bertako eta kanpoko zur-biltegia
 Egurra aireko kable bidez ateratzen dugu
 Oihanberritze lanak
 Zur-salmenta, eskabazioak, garraioa

Landa Ind. I eta II • LEITZA
 Tfnoa: 948 510 214 • Faxa: 948 510 841
 M: 606 949 130 - 606 949 131
 info@zubillagasaralegui.es



OGI BERRI
 KAFETEGI • OKINDEGIA



948 610 974 LEITZA



ABUZTUAK 13, IGANDEA

08:00 Diana txistulariekin. **09:00** Entzierroa eta behiak plazan. **11:30** Esku pilota partida bertsulariek girotuta plazan. **Ondoren** Umeentzako apar-festa plazan. **12:00** Paella lehiaketa. **13:00** Incansables txaranga plazan. **17:00** Zezenak plazan. **18:00** Igualadako Castellerrak. **Ondoren** goxokiak banatuko dituzte. **19:00** Aspeko pilotari profesionalen partidak Amazabal pilotalekuan. **19:30** Incansables txaranga eta buruhaundiak Aurreratik aterako dira. **20:00** Rock kalean. **21:30** Zezensuzkoa. **23:00** Oihan Vega. **01:00** Incansables txaranga gaueko erronda egitera aterako da.

ABUZTUAK 14, ASTELEENA

08:00 Diana txistulariekin. **09:00** Entzierroa eta behiak plazan. **12:00** Bertso-saioa plazan. **Ondoren** txakolin dastaketa Karrapean. **13:00** Incansables txaranga aterako da Aurreratik. **18:00** Dirt jump bizikleta salto ikuskizuna. **Ondoren** goxokiak banatuko dituzte eta Incansables txaranga eta buruhaundiak aterako dira. **21:30** Zezensuzkoa. **22:00** Herri afaria plazan. Afalondoan Incasables Txaranga. **02:00** Zezenak plazan.



ABUZTUAK 15, ASTEARTEA

08:00 Diana txistulariekin. **09:00** Entzierroa eta behiak plazan. **12:00** Herri kirolak plazan. Harri-jasotzaileak eta txingalariak. **13:00** Incansables txarangaren erronda. **14:00** Aurrerako bazkideen bazkaria elkartearen. **18:00** Helduen entzierroa eta ondoren zezenak plazan. **19:00** Helduen ingurutxo plazan. Ondoren goxokiak banatuko dituzte. **20:00** Ortzadar taldearen emanaldia. **22:00** Zezensuzkoa. **23:00** Txamukos mariatxia plazan. **Ondoren** Gaixoa ni Incansables txarangarekin.

DENAUTO SAGASPER Tailerra

ongi pasa bestak
AUTO KONPONKETA

Eluserder Ind. • ARESO • T 948 510 610 • F 948 510 917

Dia OKABIO

SUPERMERKATUA
KAFETEGIA

Pesta zoriontsuak
opa dizkizuegu!

T. 948 510 731
Landa Etxea
Leitza

Pesta zoriontsuak igaro!!!

edr' gunea
Ainhoa Azpiroz
Esfetizista

Laserra • Solariuma • Depilazioak • Makillajea • Begien edertzea
Aurpegiko tratamenduak • Gorputzeko tratamenduak • Opari baleak

Elbarren 67 behea • LEITZA • T 948 510 273 • edrgunea@yahoo.es



FISIOMETXEA

Ane Egizabal Llata
Fisioterapeuta

CPS-1824C/INA • 026 kolegiatu zenbakia

ongi pasa
pestak!

- Bizkortze arrietak - Kirol eta Zirkulazio Masajea
- Erditze aurreko/ondorengo tratamendua
- Etxez etxeko laguntza - Aseguruak
- Osteopatia • Mutuak • Partikularrak

Huarte Goztaia, 8 3.C • LEITZA • Tel: 948 510 730

gaztelu scl

KALEFAKZIOA • SANEAMENDUA • GASA • ITURGINTZA • KLIMATIZAZIOA
BAITA ZIURTAGIRI ENERGETIKOAK ERE


Landa Behikoa Ind, 21 • LEITZA
T. 948 510 086 • 948 510 156 • F. 948 610 856
gazteluf@infonegocio.com • www.gaztelu.info

ONGI PASA
PESTAK!

talleres Guria karrozeriak

ONGI PASA PESTAK!

Landa Ind. P-1531880 LEITZA
T. 948 510 255 • M. 649 383 912
F.948 510 838
talleres.guria@gmail.com



KIDE aholkularitza

ongi
pasa
pestak!

KONTABILITATEA | ZERGAK | AUTONOMOAK | ENPRESEN SORRERAK
AUTOEN TRANSFERENTZIA | ERRENTA AITORPENAK
AHOLKULARITZA JURIDIKOA | NOMINAK, KONTRATUAK...

LEITZA: Landa Ind. Suizpi 3 • T. 948 510 990 F. 948 510 429
DONOSTIA: Urbieta 60 - 1 ezker • T. 943 42 03 48 F. 943 44 18 38
izaskun@kide.eus | www.kide.coop



Elbarren, 36 • LEITZA
Tel. 948 610 976
info@leitzakirolak.com
www.leitzakirolak.com

ONGI PASA PESTAK!



• Ogi egin berria
• Prensa, Gosari goxo goxoa (naranja zuku naturala, croissant eta kafea)
• Pastak, Pastelak, Tartak (Enkargatuak egun batetik bestera)
• Izozkiak

PESTA ONAK PASA!!

ELBARREN 20 | LEITZA | 948 510 720



Melo ONGI PASA PESTAK!!!
Pinturak koop.
T. 609 873 178
LEITZA
www.pinturasmelo.com
melopinturas@hotmail.com



MUSUNZAR
OSTATU-JAETXEA
ONGI PASA PESTAK
Elbarren, 14 · LEITZA
T. 948 51 06 07
www.musunzar.com



OIALDE-BERRI JAETXEA
Bazkariak, afariak, musika eta giro ona
Uharte Gotzaia, 1
LEITZA 948 513 659



Olaia Bazar
Ongi pasa pestak!
Jantziak - Loreak
Jostailuak - Papertegia
Garbiketarako Produktuak
Etxeko Tresnak
Herramientak
Landabekoa - Leitza - T. 948 510 437 - 667 675 463



OLIVEIRA - VICENTE
eraikuntzak
ongi pasa pestak!
Amazabal, 17 · LEITZA · 629 418 431 · 606 307 810

LEITZARAN AUTO KLUBA
Mikel Aristeta
Inurrista 21 · LEITZA
T. 948 610 568
www.lakservice.com



LEITZAKO PESTAK

ABUZTUAREN 5. G. ETA
10 ETIK 15 ERA



Mikel ASTIBIA
Leitzako gaztea

«Norbaitek ardura hori hartzen ez badu ohiturak, ekitaldiak... galdu egiten dira»

Leitzar peto-petoa da Mikel eta herrian ekitaldiren bat bada, ez da urritu ibiliko: «edozer gauza denean Leitzan egon beharra naiz, bestela gaizki pasatzen dut». Ekitaldietaz gozatu soilik ez, antolakuntza lanetan ere aritzen da, ALKE Leitzako Kultur Taldeko kidea baita. Duela urte eta erdi inguru jaso zuen taldean sartzeko gonbidapena: «taldekide batek aipatu zidan jende berriaren bila zebiltzala. Betidanik gustatu izan zait saltsa hori, herriaren alde zerbait egiteko aukera ikusi nuen eta ez nuen zalantzarik egin, ahal nuena eginen nuela esan nien». Beteranoen itzalean ari da ikasi beharrekoak ikasten eta argi ikusi du jarrera aktiboa izatea funtsezkoa dela: «jakina da norbaitek ardura hori hartzen ez badu ohiturak, ekitaldiak... galdu egiten direla».

«Pesten aurreko asteburuan hasten gara motorrak berrotzen, reparto gauarekin. Kuadrillako afaria izaten dugu, aurreneko parranda eta rodaje pixka bat egiten hasteko primeran etortzen da».

Pestetan ere jarriko du bere apurra Mikelek, pesta batzordean lanean aritu baita azken hilabeteetan: «otsail aldean hasi ginen lehendabiziko bilerak egiten. ALKEko ordezkari bezala nago ni eta gure taldea txakolin dastaketa antolatzeaz arduratzen da. Gero denek bezala, behar denean laguntzen dugu, pestak denen artean egiten direlako».

EGUNEAN EGUNEKOAZ GOZATUZ
Pestazalea ere badela aitortu digu: «nire burua definitzen hasitakoan horixe da burura datorkidan lehendabiziko gauzetako bat». Horregatik, egutegiari gogotsu begira jarria dago dagoeneko, abuztuaren 5a burutan: «pesten aurreko asteburuan hasten gara motorrak be-

rotzen, reparto gauarekin. Kuadrillako afaria izaten dugu, aurreneko parranda eta rodaje pixka bat egiten hasteko primeran etortzen da». Biharamunean umeen eguna izaten da «baina nahikoa lan izaten dugu guk ajeari aurre egiten... iluntzean pote pare bat hartu eta horrekin nahikoa». Pestak ailegaten direnean berriz, egunean egunekoaz gozaten ahalegintzen da «10ean txupinazoaren ondoren hasi eta ahal den ekitaldi guztietara joaten naiz. Egunez edo gauez izan... Batzuetan besteetan baino komeria gehiago izaten ditut baina horregatik ez naiz etxean geratzen».

EKITALDIRIK BEREZIENA

Pestetako ekitaldirik bereziaz galdetuta, berehala eta inongo zalantzarik egin gabe eman du erantzuna: «Ezpatadantza bai edo bai ikusi beharreko ekitaldia da. Oso gutxitan huts egin dut eta orain dela bi urte neskak dantzatzen hasi zirenetik oraindik eta politagoa da». Neskek pausoa emanen zutela espero zuten, «mundo guztiak genekien denborarekin zer pasa behar zuen baina momentu berezia izan zen. Jendea pozik geratu zen, naturaltasun osoz eman zen aldaketa eta hori harro egoteko modukoa da». Ezpatadantzarien saioagatik izanen da agian, baina egunik bereziena ere Santiburtzio eguna da beretzat «oso gustuko dut. Ezpatadantza ikusi, bermuta hartu eta bazkarien ondoren, arratsaldean plaza eta taberna inguruan sortzen den giroa berezia izaten da».

«Ezpatadantza bai edo bai ikusi beharreko ekitaldia da. eta orain dela bi urte neskak dantzatzen hasi zirenetik oraindik eta politagoa».

GAUTXORIEN PARADISU

Leitzako pesten beste bereizgarrietako bat da, gautxorientzat toki aproposa

izatea: «parrandak oso luzeak dira, ez dago etxera bueltatzeko ordurik, tabernak ez direlako beste herri gehienetan bezala zazpietarako isten. Nahi baduzu eguerdiko hamabiak arte egon zaitezke pestan».

GIROAN ALDAKETA

Edozein moduz, gaueko giroa zertxobait aldatu dela uste du: «garai batean egun guztietan egoten zen parranda ederra, orain jendeak pesta eta deskantsua tartekatzen ditu. Nahi duenak, egunero izanen du aukera baina abuztuaren 10, 12 eta 14an biltzen da orain jende gehiena». Aurten jai-egunak egun seinatuetatik hurbil direnez, ikusi beharko da jendeak zer egiten duen: «abuztuaren 11 ostirala da eta 13 igandea izanda... garai batean bezala egunero ibiliko da agian jendea».

«Gauetan plazako taldea ikusteraz bueltaren bat egin arren, tabernan bukatzen dugu gero. Argi dago, gehiago nagusitzen dela orain taberna giroa».

«Eguneko giroa gehiago indartzeko herri bazkari gehiago eginen nituzke eta arratsaldean erromeriaren bat antolatu. Jendea garai batean bezala plazan dantzan gustura aritzeko».

OHIKO EKITALDI AKETA BERRIAK

Pestetako egitarauari errebasoa emateko ere eskatu diogu eta dantzariak, herri kirolak, bertsolariak, haurrentzako jolasak... urtero errepikatu eta arrakasta duten hainbat ekitaldi aipatu ditu: «ekitaldia edozein dela ere, egunez bete egiten da plaza». Gauetan, ordea, iraganean geratu da plaza dantzariak betetzen zen garaia «plazako taldea ikustera bueltaren bat egin arren, tabernan bukatzen dugu gero. Argi dago, gehiago nagusitzen dela orain taberna giroa». Horri buelta eman nahian edo, aurtengo berrikuntzen artean Oihan Vegaren kontzertua aipatu beharko, «orain artean egunero izaten zen erromeria eta DJ-en bat egon izan denean, euskal giroko Dja izan da. Ikusiko da jendeak aurten nola erantzuten duen». Ez da hau aurtengo pestek dakarten berrikuntza bakarra, abuztuaren 14an arratsaldean Dirt Jump bizikletako saltoen ikuskizuna izanen da aurten estreinakoz».

EGUNEKO GIROA INDARTU

Egitarauaren ingurua galdetuta, «egunez giroa indartzeko zerbait falta dela uste dut». Plazan zerbait bada, «ikuslerik ez da falta izaten baina ikusle izatetik haratago, jendea pestaren parte izatea garrantzitsua da eta horretarako moduak bilatu behar dira». Berak badu proposamena: «herri bazkari gehiago eginen nituzke eta arratsaldean erromeriaren bat antolatu. Jendea garai batean bezala plazan dantzan gustura aritzeko».



SAGASTI JATETXEA
Festak ongi pasa!

Festetan ere menua, ogitartekoak, plater konbinatuak, gosariak

Elbarren, 98 · LEITZA · 948 610 637 · 629 229 449

LEITZAKO UDALAK
pesta zoriotsuak opa dizkizue Leitza, bisitari eta gurekin egon ezin izan duzuen guztiei

LEITZA UDALAK

ONGI PASA PESTAK!

MAIMUR

Herriko Plaza
LEITZA
Tfnoa-Faxa:
948 510 146

- Prentsa · opariak · testu liburuak
- Plastifikatzeak · enkuadernatzeak
- Inprenta lanak · fotokopiak

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA SARE SOZIALEAN

facebook

www.facebook.com/ttppi.eus

ONGI PASA PESTAK!

DANI
ITURGINTZA

ITURGINTZA · GASA · BEROKUNTZA

672 18 31 99
iturgintzadani@gmail.com
LEITZA

Lopenea
Pesta ongi pasa!

Elbarren, 47 - LEITZA
606 27 35 34 - 688 64 08 34
www.lopenea.com

BOKATAK · KAXULAK
MENUA · PINTXOAK
PLATER KONBINATUAK

Izarraga
harategia

2013. urtean: 3. Euskadiko txistorra txapelketan.
2016. urtean: Finalistak Nafarroako txapelketan.

Haragia, gazta, hestebereak, pateak, aurretik sukaldatutako produktuak

ongi PASA PESTAKI

“Gurea, kalitatea”

ALIPROX Elbarren, 71 behea - LEITZA - T. 948 510 007
T. 676 785 768 | 657 774 641

PERITZA TABERNA

Pesta ongi pasa eta birixo ibili
Mila esker antolatzaileei

LEITZA
948 610 848

ULI-ZAR ELKARTEA, S.L.

ITURGINTZA
BEROKUNTZA
GASA-GASOLIOA
MOBLEAK
MANPARAK
KOMUNERAKO OSAGARRIAK

647 525 516 · ARESO | LEITZA

ARKUPEAK

GIZARTEA → UZTAILAREN 13AN

Bizkaialdeko kostako itzulia egin dute 230 bazkidek

Lekeitio, Elantxobe eta Gaztelugatxe ezagutu zituzten

TTIPI-TTAPA

Arkupeak elkarteko 230 bazkidek parte hartu zuten uztailaren 13an Bizkaiko kostaldeko itzulian. Lau autobus bete-bete egin zituzten eta 8 bazkidek ezin izan zuten joan leku faltagatik.

Gosaltzeko lehen geldialdia egin ondotik, Deba, Mutriku eta Ondarroa ezagutu zituzten eta Lekeitiora ailegatu ziren 10:30 aldera. Hemen, plaza, portua, alde zaharra eta beste leku interesgarriak ezaugu zituzten.

Lekeitiotik Elantxoberako bidea hartu zuten. Elantxoben, bitxikeria modura, herrian bukatzen da errepidea eta buelta ematea ezinezkoa denez, autobusek plataforma baten gainean jarri eta udaltzainaren laguntzaz egiten du bira. Lau autobusetatik bik hamar minutuko geldialdia egiteko aukera izan zuten eta bazkideek kale aldapatsuak, portua eta itsas inguru zoragarriak ikusteko aukera izan zuten.

Kortezubiko Lezika jatetxean bildu ziren bazkaltzera. Bazkalondan Bermeora joate-

ko intentzioa bazuten ere, mahai ingurua espero baino gehiago luzatu zenez, zuzenean Gaztelugatxera jo zuten, baseliza eta Izaro irla ikusteko. Ertzaintzarekin ere gorabehera batzuk izan zituzten, ez baitzuten nahi autobusa denbora gehiegi gelditzea. Azkenik, Bakion barna autopista hartu eta etxera bueltatu ziren.

DATOZEN BIDAIK ETA MENDI IRTEERAK

Aitzinera begira, uztailaren 26an ospatzen den aitaxi-amaxien egunean 171 bazkide joanen dira Aralarre-ra. Eguerdiko meza entzun ondotik Gorraizera joanen dira bazkaltzera eta dantzatzera. Salamanca, Avila eta Segoviako bidaira 102 bazkide jpanen dira eta Lanzarotera 40. Abuztuaren 31n Arantzazura joan behar direnek hilaren 17, 18 eta 19an zuten izen emateko aukera.

Arkupeak elkarteko mendi taldeari dagokionez, 40 bat bazkidek Urdazubi inguruan mendi itzulia egiteko zuten uztailaren 18an. Abuztuaren 22an Ezkurra, Iruñari eta Erakurrira joanen dira. Irailaren 4 eta 5ean Pirinioetara joanen dira 23 mendizale, Respomusotik Baños de Panticosara zehar-



UTZITAKO ARGAZKIAK

Arkupeak elkarteko bazkideak, Lekeitio, Elantxobe eta Gaztelugatxeren barna xarmaniki ibili ziren.

kaldia egiteko. Hilabete berean Artikutzara joanen dira eta urrian Igantzira.

IKASTAROK ETA HITZALDIK

Urtarrilean eskaini ezin izan zen informatika ikastaroa Donezteben ematen ari dira orain. Bertzeak urrian hasiko dira.

Iktusari buruzko hitzaldiak, berriz, urriaren 24an Donezteben eta 26an Leitzan eskainiko dituzte. Elikaduraren inguruko hitzaldiak ere urrian emanen dituzte Elizondon eta Beran, oraindik zehaztu gabeko datan.





Paisajismoa
Kimaketak
Mantentze-lanak
Lorategiak Diseinatzea eta Sortzea
Ureztatze Sistema Automatikoak



Otxangoko Ind. 18 | LESAKA
T. 619 418 683 | johntelletxea@hotmail.com
www.telletxealorezaintza.com

KIROLA → BESTEN AITZINEKO ASTEBURUAN

3x3 saskibaloitxapelketa ADEMGi elkartearen alde izanen da

Gaueko krosaren laugarren edizioa abuztuaren 1ean

TTIPI-TTAPA

Herriko besten aitzineko asteburuan kirolak hartuko du protagonismoa.

Hasteko, uztailaren 29an eta 30ean, larunbat eta igande arratsaldeko 4etan hasita, ADEMGi Gipuzkoako Esklerosi Anitzaren Elkartearen aldeko 3x3 saskibaloitxapelketa jokatu dute kiroldegi aitzinean, Toki Ona Bortziarik saskibaloitaldeak antolatuta. Larunbatean kuadrillen arteko txapelketa izanen da eta igandean elite mailakoa. Bietan, izen-ematea 15:00etatik aitzinera egin daiteke. Euria eginen balu kiroldegian jokatuko liriteke txapelketak. Taldeak, guttinez 16 urte dituzten 3-4 lagunez osatuak egon beharko dute.

Larunbatean 16:30ean plater tiroa minifoso modalitatean antolatu du Berako Ehiza eta Arrantza Elkarteak.

Igande goizeko 10etan herriko pilotarien arteko pilota parti-

dak jokatu ditzute Eztegarra pilotalekuan, Gure Txokoa elkarteak antolatua.

11:00etan Berako IX. Saria txirrindularitza proba antolatu du Gure Txokoak. Kadete mailako txirrindulariek 44 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute.

Arratsaldeko 7etan, herri kirol jaialdia izanen da kiroldegi aitzinean (euria eginen balu, Eztegarra pilotalekuan). Nafarroako Herri Kirol Federazioak antolatutako Herriki txapelketa-aren bigarren jardunaldia jokatu dute Basaburua, Berriozar, Artzanegi eta Menditarrak taldeek.

IV. BERAKO GAU KROSA

Abuztuaren 1ean, asteartean 22:15ean, Berako IV. Gau Krosa antolatu du Manttalen. 7,3 kilometro luze eta 300 metroko desnibel positiboa duen proba izanen da. Federatuek 7 euro ordaindu beharko dute izen ematea eta federatu gabekoek 10 euro. Egunean bertan 13 euro. Parte hartzeko nahitaz kopeta-argia eraman behar da. Gehienez ere 200 lagun apuntatzen ahal dira eta barkarkako sariez gain, herriko kuadrillak ere sarritu ditzute.



UTZITAKO ARGAZKIA

Oaia Peruarenaren margo erakusketa ikusgai

Oaia Peruarena Telletxea margolari beratarren azken lanak ikusgai daude uztailaren 14tik abuztuaren 6ra bitarte artistak Bidasoa karrikaren 4.ean duen tailerrean. Uztailaren 14an egin zen margo erakusketa irekiera ekitaldia eta hainbat artista eta ezagun bildu ziren. Asteleheneetik igandera 17:30etik 20:30era zabalduko ditu tailerreko ateak. Erakusketa gehien bat tintaz egindago lanez osatua dago, baina olioaz egindako zenbait lan ere ageri dira.



ARGAZKIA: MANTTALE

Taillonera ateraldia egin dute

Bi urtero bezala, Agerra Mendi Taldeak eta Manttalen antolatutako mendi irteera egin dute Pirinioetako Gavarnie eta Taillonera. Aurten ere arrakastatsua izan da eta zailtasun ezberdineko bi ibilbide egin ondok, Taillonon zendutako Loro Pikabea, Xabier Zubieta eta Xabier Saralegiren omenezko monolitoan ekitalditxo ere egin zuten. Omenaldiaren ondoren Gavarnie herriaren ondoan bazkaria egin zuten.

Ba al zenekien

Sortzez Lizardibaitakoa zen Jose Maria Goikoetxea apez eta musika konpositore handia hil zela Santandarren, 93 urte zituela. Urte gutti bizitu zen herrian, baina halere beratarra zela aipatzen zuen beti eta herriko hilerrian lurperatu zuten uztailaren 15ean.



xirgil
jalane goya
ileapaindegi mistoa
Altzate 1, 31780 BERA
948 631 462

LESAKA

GIZARTEA → IRAILAREN 1, 2, 3 ETA 4AN

Haurrendako ur-terapia eta kirol egokituari buruz ikastaroak emanen dituzte

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Udako Ikastaroen baitan

Aitor AROTZENA

Nafarroako Unibertsitate Publikoak 30. Urteurrenaren harira antolatutako udako ikastaroen baitan, haurren errehabilitazioa, ur-terapiak eta kirol egokituaren izeneko ikastaroa eskainiko du irailaren 1, 2, 3 eta 4an Udako Kiroldegian. Lesakako Udalak, Guztiok elkarteak eta Udako Kiroldegia lagundu dute antolaketan eta Nafarroako Gobernuaren laguntza izanen

du. 20-25 lagunendako lekua izanen da eta bezaraz, lehenbailehen eman behar da izena Bortzietako Osasun zentzuan edo mediku kontsultatan edo *guztiokbortziriak@gmail.com* helbide elektronikoa.

Irene Sanchez Sastre hidroterapia eta ur-terapiari buruz ariko da, fisioterapiaren ikuspegitik. Jose Luis Sirera kirol monitorea egiten diren ur-terapiari buruz ariko da eta ezintasunen bat duten haurren sarbideaz normalizatu-tako taldeetan. Patricia Jovellar haurren zentzumenen integrazioaren ikuspegiarako sarbideaz ariko da eta Isabel Sanchez kirol egokituari buruz.

'PIEDRA, HIERRO Y PAPEL' IZENBURUPEAN

Herriko historiari buruzko liburua eman du argitara Udalak

A. AROTZENA

Piedra, hierro y papel. Trayectoria histórica de la villa de Lesaka izenburupean, 435 orriko liburu mardula argitara eman du Udalak. Ana Zabalza Seguínek zuzendu du lana eta bere idatziaz gain, Jose Luis Etxegarai alkatearena, Jose Maria Esparzarena eta Egoitz Telletxearena ageri dira.



ARGAZKIAK: AITOR AROTZENA

Guttiago falta da 2018ko Sanferminetarako

Tomas Rekondok eta Modesto Maiak botatako txupinazoarekin abiatu eta giro ederrean joan dira aurten ere Sanferminak. Bezperako danborradan Amaia Telletxea izan zen zuzendari eta peñen egunekoan Mikel Mutuberria, biak lehen aldiz. Egundian, berriz, Martxel Rodríguez izan zen aitzineskua laugarren eta azken aldiz eta Unai Gurrutxagari eman dio erreleboa datorren urterako. Peñen egunak une hunkigarriak ere utzi zituen. Bittiria peñak 25. urteurrena ospatu zuen, Latsagakoe Tximo, Txope, Xabi eta Jonen aldeko brindisa egin zuten plazan eta danborradan, lehen aldiz jo zuen Garazi Migeltorenak, aurten hil den Xebita Susperregik emandako danbor bereziarekin.

KULTURA → IRAILAREN 16 ETA 17AN ANTZETUKO DA

‘Karmen Etxalarkoa’ Pastoralak ikusteko sarrerak salgai daude

Prezioa 15 eurokoa izanen da

Iruñe ELIZAGOIEN

Irailaren 16an eta 17an, 15:30ean antzetzuko den *Karmen Etxalarkoa* Pastoralak ikusteko sarrerak eros-teko ondoko aukera hauek daude:

- TicketMaster web orrian.

- Ticketmasterren denda ofizialetan (Fnac, Carrefour eta Halcón Viajes).

- Inguruko ostatu eta dendetan ere salgai izanen dira: Etxalarren Herriko Ostatuan, Elutza ostatuan eta La Basquen, Lesakan Xagu eta Telletxean, Beran Xuga eta Errekalden, Arantzán Aterpen, Igantzín, Donezteben Titin, Elizondón Intza eta Casinon, Leitzañ Maimur, Peritza eta Astizen, eta Xaretan ere salgai egonen dira bai Urdazubín, Zugarramurdiñ eta Saran ere. Haez gain, Nafarroa hegoaldean, Iru-

ñerriñ, Zuberoan, Bidasoaldean, Oarsoaldean, Goierriñ eta hiri-buruetan ere salgai egonen dira sarrerak.

Berri eta xehetasun guztiak *karmenetxalar-koapastoralak.eus* web orrian edota facebook, twitter, youtube eta instagrameñ jakinaraziko dira.

Udaberriko pilota txapelketaren seigarren edizioa

Martxo bukaeran hasita, ekain erdira arte aritu dira herriko pilotariak udaberriko pilota txapelketa jokatzek. 33 pilotarik hartu dute parte eta honela geratu dira txapelketako emaitzak: Ttikienetan, lehenengo taldean (6-10 urtekoak) Maddi Martínez eta Asier Telletxeak 18-13 irabazi zieten Ur Atondo eta Luken Ansalasi. Bigarren taldean berriz, Markel Irazokik 18-10 irabazi zion Amets Sanzberrori. Alebinetan (10-12 urte) Lan-der Lasaga 22-12 nagusitu zitzaion Xuban



ARGAZKIA: ARANTXA BIZENTE

Santa Krutz ermitan auzolana

Urritzokietako Santa Krutz ermitan, lehenengo zola altxatu eta azpian agertu den galtzada garbitzen ari dira auzotarrak.



ARGAZKIA: AIORA DANBORIENA

Udalekuak

Uztailaren 3an hasi eta 28ra arte egiten ari dira Udalekuak. 16 or lehenengo hamabortzaldian eta 18 bigarreñean, denetara 22 orrek gozatuko dute mem-di, igerileku, joku eta bertze hainbat ekitaldiz. Etxalarko Aiora Danbori-ena eta Lesakako Ganix Arruti izan dira aurtengo begiraleak.



Ba al zenekien

Etxalarko okindegiko urteko batzar orokorra uztailaren 27an, ortzegunean 20:00etan eginen dela Herriko Etxeko batzar aretoan

Gastearenari. Azkenik, infantil-kadete mailan (12-16 urtekoak) Xabier Telletxeak 22-5 irabazi zion Markel Etxar-terri. Altxataren eskutik, partiden ondotik sari banaketa eta berendua egin zen eta txapeldu-mentzat Astoreko kami-setak eta eskumutu-

rekoak edo esku gar-bitzailea eta azpitxa-peldunentzat pilota bana izan zen. Parte hartzaile guztien artean ere zozketak egin ziren

(eskumuturrekoak eta esku garbitzaileak) eta Manex Danbori-ena, Eneko Zubieta, Unax Etxarte eta Oihan Iri-sarri tokatu zitzaizkien.

- Lentzeria
- Bainujantziak
- Mertzzeria
- Jantzi tipikoak
- Peñen blusak

kattagorria
lentzeria mertzzeria

Behoko plaza 10 31770 Lesaka
T. 948 627 514

IRU BIDE
Erretegia · Asador

Biturrana, 3 · Lesaka
Tel: 948 637 127

BEKO

LORÉAK ETA LANDAREAK

Frain Auzoa · LESAKA
Tfnoa: 948 637 826

USOA
Nekazari kooperatiba

T. 948 635 214
ETXALAR

• Pentso ekologikoak
• Kalefakzio eta ibilgailuendako gasolioa

ZONALDEKO FORCE CAM BANATZAILEA

ARANTZA

KULTURA → HERRIKO BESTAK

Idoia Altunak irabazi du bestetako programaren azal lehiaketa

26 lanen artean berea aukeratu du Kultura Batzordeak

Nerea ALTZURI

Dermioko Idoia Altuna Bergarak egindakoa izanen da aurtengo bestetako programaren azala. Berak irabazi baitu Udaleko Kultura Batzordeak herriko eskolan ari diren neska-mutilentzat antolatutako azal lehiaketa.

Lehenbiziko aldiz egin dute aurten lehiaketa eta harrera ona izan du eskolan. 6 eta 14 urteko neska-mutikoeke egindako 26 lan aurkeztu baitira. Horien artean, Idoiarena izan da aukeratua eta bere lana programako portadan agertzeaz gain, Martikoren lotea eta 50 euro hartu ditu sari gisa. Zorionak!

Bertzalde, aurkeztutako marrazki horiek guztiak bestetan ikusteko modua izanen da: abuztuaren 14ko goizean Gorapean paratuko dituzte.

Herriko bestak

Abuztuaren 14tik 17ra herriko bestak izanen dira eta abuztuaren

19an Arantza Rock-en edizio berri bat izanen dugu. Hurrengo alean xehe-xehe egitarauaren berri emanen dugu Ttipi-Ttapan, baina egun horiekin lotuta, Herriko Etxetik ohar bat zabaldu nahi izandu dute: bestetan Goiko Karrika noranzko bakarrantzat irekia izanen da ibilgai-luentzat. Goiko Karrikatik herrira sartzeko modua izanen da baina herritik ateratzeko Goienburutik barna joan behar da.

Mentxu Peña alkate

Duela aste batzuk, orain arte alkateordea izan den Mentxu Peña Lizarazuk alkate kargua hartu zuen. Agintaldiaren hasieran, udal taldea osatu zutenean, orain arte alkate izan den Juan Migel Almandoz eta biek bakoitzak bina urte alkatetzan egiteko erabakia hartu zuten. Hala, dagoeneko agintaldiaren erdia pasatu denez, Mentxu Peña izanen da hurrengo bi urteetan alkate. Juan Migel Almandoz alkateorde izanen da. Edozein moduz, batek zein bertzeak orain arteko gaiekin segituko dute Herriko Etxean lanean.

Idoia Altuna saritutako marrazkiarekin eta sariarekin.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Neska-mutikoeak udalekueetan

31 haurrek parte hartu dute Bortzirietako Euskara Mankomunitateak antolatutako udalekueetan: Haur Hezkuntzako 12 haur eta Lehen Hezkuntzako 19 neska-mutikok. Aste hau dute hondarrekoa eta gehienak hilabete osoan egondu dira. Hiru begirale izandu dituzte: Amaia Zelaieta, Nerea Perez eta Olaia Matxikote eta azken hau izandu dute begirale arduraduna. Ekintzei dagokienez, igerilekura irteerak, ur jolasak, mendira irteerak, sukaldaritza tailerrak, kaleko jolasak, ginkana, altxorraren bila... egin dituzte.

Ba al zenekien

Heldu den abuztuaren 27an Hondarribiko Txistu Taldeak euren herrian eskainiko duen Kontzertu Nagusian Arantzako Dantza Luzearen zati batzuk joko dituztela? 12:00etan izanen da emanaldia, Gipuzkoa Plazan.

t tipi-ttapa
FACEBOOK eta TWITTERREN
EGIN ZAITEZ GURE LAGUN

KIROLA → BILTOKI ELKARTEAK ANTOLATUTA

Frontenis txapelketako finala abuztuaren 5ean jokatuko dute

Zazpi bikote ari dira txapelketan parte hartzen

Mendi bizikleta zeharkaldia

Aurten 27. aldiz, mendi bizikleta zeharkaldia antolatu du Biltoki Elkarteak. Irailaren 3rako egina dute hitzordua eta parte-hartzaileak 09:00etan aterako dira. 30 kilometroko ibilbidea antolatu du Biltokik, baina itzulia laburrago izan dadin bertze bi aterabide ere izanen dituzte aukeran txirrindulariek.

TTIPI-TTAPA

Bertze urte batez, frontenis txapelketa antolatu du Biltoki elkarteak. Aldi honetan, zazpi bikotek eman dute izena eta dagoeneko hasiak dira partidak jokatzen.

Hobekien moldatzen diren bi bikoteek abuztuaren 5ean jokatu dute finala eta finalerdiak aitzineko asteburuan egingen dira.

12 urtetik behekoentzat, bertze ibilbide tikiagoa prestatu dute, herrian barrena egingen dena.



Ba al zenekien

32 haurrek eman dutela izena igeriketa ikastaroetan? Lau taldetan banatuta, uztailaren 10az geroztik astegunez egunero elkartzen dira Julio Garbayo monitorearekin. Uztailaren 28a izanen dute hondarreko eguna.



UTZITAKO ARGAZKIA

Herri kirol taldea Iruñeko Sanferminetako proba konbinatuan

Uztailaren 11n Iruñeko Sanferminetako herri kirol erakustaldian parte hartu zuen herriko alebin mailako taldeak, proba konbinatuan. Bigarren izan ziren, Andra Mari taldearen gibeletik eta Artzanegiren aitzinetik.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

30 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute txirrindulariek iraileko lehen igandean.



**LEIHOAK / KONTRALEIHOAK
SARRERAKO ATEAK / ITXITURAK
PERTSIANAK / MOSKITERAK**

Ordoki ind. ARIZKUN / T. 948 453 259 / F. 948 453 423
betikopvc@betikopvc.com / www.betikopvc.com





Mundua ikusi, dirua aurreztu eta natura zaintzea zure esku ere badaغو

**BETIKON LEIHOAK
NEURTU, FABRIKATU eta
INSTALATZEN DITUGU**





**PVC-zko sistema bakarra*
Passive house ziurtagiriarekin
BETIKON daukagu.**

**6 kamara 82 mm-ko profila
Merkatuko isolamendurik
hoberena.**

* 70 mm

A ++++

SUNBILLA



UTZITAKO ARGAZKIA

Ane Petrirena (ezkerretik hasita bigarrena), Europako txapeldun suertatu zen laukotean.

KIROLA → 20 URTEZ BEHEITIKO 4X100 LASTERKETAN

Ane Petrirena Europako txapeldun

Espainiako marka ere hobetu du laukoteak

Ba al zenekien

Arretxekobordako bizikleta igoera abuztuaren 5ean egingen dela. Animatu!

Maider PETRIRENA

Poloniako Bydgoszcz hirian egin duten Europako 23 urtez beheitiko atletismo txapelketan urrezko domina historikoa lortu du korrikalari sunbildarrak Espainiako selekzioarekin, 4x100 errelebo lasterketan uztailaren 16an.

Paula Sevilla, Ane Petrirena, Lara Gomez eta Cristiana Larak osatutako laukoteak Europako txapelketa irabazteaz gain (Espainiako selekzioak ez zuen inoiz dominarik lortu erreleboan), Espainiako errekor berri bat ezarri zuen (43.96).

Aipagarria da Ane Petrirenak 20 urte bertzerik ez dituela, baina palmaren handia. Azken garaipen honetaz gain, 2013ko martxoan Espainiako txapeldun izan zen jubenil mailan 200

metroko lasterketan, aire librean nahiz barnean. Uztailaren 2an jokatutako Espainiako txapelketan, promesa mailan zilarrezko domina lortu zuen distantzia horretan.



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

Herriko musikariak Iturengo bestetan eta Baztandarren Biltzarrean

Mendaur trikitixa eta pandero eskolarekin sunbildarrak han hemen ibili dira uztailleko hirugarren asteburuan. Iturengo bestetan lehenik, uztailaren 14an suziria bota ondotik, herriari buelta ematen eta uztailaren 16an, berriz, Baztandarren Biltzarrako ibilbidean zehar hainbat kanta jo eta dantzatzen. Segi horretan!



ARGAZKIAK: OLAIA GANDARA ETA IRATI AGESTA

Ludoteka arrunta ttikientzat eta ingelesez koxkorrentzat

Urtero bezala, aurtan ere ttikienak ludotekaz gozatzeko aukera dute Olaia Gandara Urtxegi eta Elixabel Lekuberría Gamio irakasleekin. 09:00etatik 13:00 bitarte egoten dira egunero eskulanak, irteerak eta hainbat gauza ezberdin egiten eta gozaten. Horrez gain koxkorrenak ere ludotekaz gozaten dute baina hauek ingelesez. Irakasle lanetan Ainara Antuña Zelaieta eta Irati Agesta Lata-sa daude. Hauek ere eskulanak, kantak, irteerak eta hainbat gauza ezberdin egiten dituzte.

KIROLA → ABUZTUAREN 5EAN

Laxoa txapelketako final handia Bearzanan jokatuko dute

Doneztebe Apeztegia taldeak finalerdietako itzulerakoa jokatu du larunbatean Iruritan (joanekoan 3-9 galdu zuen)

Marga ERDOZAIN

2017ko txapelketa poliki-poliki aurrera doa eta finala prestatzeko herriak Bearzana plazan hainbat hobekuntza egin ditu. Pasa den udaberrian Udalak sa-

re berria ipini zuen eta uztailearen bukaeran garbiketa, txukunketa eta pintaketa lanak burutuko ditu plaza historiko honetan aurtengo finala behar den bezala jokatuko dute.

Finalerdietan herriko talde bakarra daukagu, Doneztebe Apeztegia. Ez du xamurra izane finalerako sailkatzea, Bearzanan jokatuakoa joaneko partidaren 3-9 galdu baitzuen Irurita Migueleneren kontra. Larunbat honetan, uztaileak 29, itzulerakoa jokatuko dute Iruritan,

Herriko talderik ailegatu ez balitz ere, final ederra izan dadila.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Udako Kirol Eskola berreskuratu du Errekak

Erreka Kirol Elkarteak udako Kirol Eskola berreskuratu du (argazkia 2012koa da). Ekimen hau uztailearen 31tik abuztuaren 24ra burutuko da (astelehen, asteazken eta ortziraletan 11:00etatik 12:00etara eta 12:00etatik 13:00etara). Eskolaren helburuak honako hauek dira: Kirol ezberdinak lantzea eta uda pasatzeko bertze modu bat eskaintzea. Interesatuak jakin behar dute Imanol de Rueda begiraleari deitu behar diotela (telefonoa: 638537754). Prezioak honako hauek izanen dira: 33 euro bazkideentzat, eta 36 euro bazkide ez direnentzat.

GAZTETXOEN TXAPELKETAK ABIAN

Azkeneko urtetan bezala, aurten ere gure gazteek eta gaztetxoek laxoaren bertze txapelketa interesgarri batean lehiatzeko aukera izanen dute. Dagoeneko gure plazan pilotakadaren asotsak entzuten dira. Zorte on! Txapelketa honen berri aurrerago emanen dugu.

FLASH

Liburutegi Sareko arduradunen bisita

Clara Flamarique Goñi, Sareko Liburutegietako Koordinazioko Buruzagitzaren bisita izan genuen pasa den uztailearen 14an. Bisita honen helburua gure liburutegia bertatik ezagutzeko eta une honetan zerbitzu honek dituen gabeziak eta erronkak zerrendatzeko izan zen. Aipatu behar da bisita horretan Udaleko arduradunak eta bertako liburutegia egon zirela. Sareko arduradunak fondo eta zerbitzuen informatizazioaren beharra hagitik kontuan hartuko duela erran zuen. Udalak eta Liburutegiko sareak negoziaketa hasiko dute informatizazioa gauza dadin.

EGA ikastaroa abuztuan

Doneztebeko IKA euskaltegiak, urtero bezala, EGA ikastaroa antolatu du. Ikastaroa abuztuaren 7tik 31ra burutuko da eta bi eratara egin daiteke: klase presentzialak edo/eta on-line edo autoikaskuntzaren bidez. Interesatuak abuztuaren 3ra arte dute apuntatzeko aukera. Argibide gehiago 948 451555 telefonoan edo malerreka@ikauskaltegiak.eus helbidean.

Kontsumitzailearen Udal Bulegoa

Malerrekako Mankomunitatearen Kontsumitzailearen Udal Bulegoaren harrera eguna izanen da abuztuaren 18a. Irailean, berriz, ohiko egutegira itzuliko da; hau da hilabetearen bi ortziraletan: irailaren 8 eta 22an. Iratxek eskainitako doako bitartekaritza eta laguntza juridiko hau erabiltzeko Mankomunitatera deitu behar da: 948451746 telefonoa. Etxebizitza, aseguruak, banku eta aurrezki kutxak, etxeko zerbitzuak... gure kontsumoari buruzko galderak, zalantzak... aintzat hartzen dira.

ORTZEGUN ETA IGANDETAN 11:15EAN HASITA

Bisita gidatuak eskaintzen ditu Peio Iriartek

Marga ERDOZAIN

Turismo bulegotik abiatuko dira aurtengo udan eskainiko diren bisita gidatuak. Aipatu behar da ortzegun eta igandetan burutuko direla, 11:15etik aitzinera. Peio Iriartek bideratuko ditu eta gure herriko bisitaren ondoren interesatuak Donamariako Dorretxea bisitatzeko aukera izanen dute. Bi bisita hauek 5 euroren truke egin daitezke. Interesatuak Turismo Bulegoan izena eman dezakete edo 948 451808 telefonoa deitzen ahal dute.

Aipatu behar da Udalak argitaratu dituen Doneztebeko mapa eta gida dagoeneko banatuta eta erabil-

garri daudela. Horretaz gain, azpimarratu behar da bertako bulegotik turistek zuzendutako euskara hiztegitxoak ere banatzen ari direla. Gogorarazi behar da bertako Euskara Zerbitzuak argitaratutako eskuorrigida hau bulegoan, ostatu, landetxe eta informazio guneetan eskuragai dagoela. Gure herria eta ingurua bisitatzera etortzen direnek, gure hizkuntza ezagutzeko aukera ere izanen dute aurrerantzean. Bertan, kanpotik datorren bisitariak oinarritzko hitzak aurkituko ditu bost hizkuntza desberdinetara itzulita: frantsesa, ingelesa, gaztelania, kataluiniera eta galegoa.

ITUREN

KIROLA → 99 ALTXALDI EGIN DITU IRUÑEAN

Ingude altxatzen marka berria egin du Maika Ariztegi

Nafarroako txapela janzteaz gain Euskal Herriko errekorra hobetu du

Ingude Altxatze txapelketan. Minutu eta erdian 9 kiloko ingudearekin 99 altxaldi egin zituen eta horrela Euskal Herriko marka berria ere ezarri zuen.

Baztandarren Biltzarrean

Baztandarren Biltzarraren egunean, urtero bezala, Joaldunek eta Mendaur trikitixa eskolako ikasleek ere parte hartu zuten. 40 bat ikasleek osatu zuten taldea eta ibilbidean zehar ika-



ARGAZKIAK: MARIA LARRETXE

Uztailaren 14tik 17ra ospatu ziren herriko bestak. Adin guzietako herritarrak parte hartzeko aukera izan zuten. Ekitaldi jendetsuak (haur jokoak, herri kirolak, frontenis, dantzak, trikitixa, herri bazkaria...) eta parte-hartze haundia izan zen denetan ere. Guttiago falta da hurrengo bestetarako!!

sitako kantak jo zituzten hurbildu ziren guztien

aitzinean. Joaldunek ere beraien saioa egin zu-

ten orgei hasiera eman ez.

URROZ

GIZARTEA → TOKIKO AZPIEGITURA PLANAREN BIDEZ

Aspaldi geldirik dagoen errota erosi du Udalak

Argindarrak mugitzen zuen, ez urak

Joseba URROTZ

Aspaldiko urtetan geldirik dagoen errota, erosi egin du Udalak, Tokiko Azpiegitura Planaren bidez hartuko duen diruaz baliatuz.

Herri guztietan badira edo baziren errota, baina gaur egun ez ditugu erabiltzen, garai ba-

tean bezala, bertan ekoiztutako aleak ehotzeko; martxan direnak museo bezala daude.

Baina Urrozko errota badu historia berezi samarra, ez baitzen uraz mugitzen, indar elektrikoaz baizik. Ez da bakarra izan, baina kasu gutti izan dira halakoak.

Presiki aurtan bete dira 100 urte orduko erroren sozioek hura mugitzen zuen uraren ustiapena Mugica y Arellano

elkarteari (geroago Iberduero izanen zena) eman ziotenetik. Errota hura herrikanpo zegoen, eta elkarte hark Oizko zentral elektrikoa mugitzeko ura hartzearen ordainetan, herrian bertan errota elektriko berri bat erakitzeko hitza eman zuen. Horrez gain, bertze konpromiso batzuk ere hartu zituen, karriketako argiteria paratu, etxe bakoitzari argindarra eman...



ARGAZKIA: JOSEBA URROTZ

Historia berezia duen errota erosi du Udalak.

1925ko bertze eskritura batean ageri da baldintzak aldatu zituztela, orduko Distribuidora General de Electricidad bidez zenarekin, eta bertu zen artean, errota partek eta teilatua sozioen kontura izanen zela hitzartu zuten. Gorabehe-

rak izan zituzten 1913an lehenbiziko aldiz eskritura pribatuan akordioak egiten hasi zirenetik, eta 1925ean nonbait errota berria oraindik egitekoa zen; ez dago garbi noiz egin zuten. Errotako elkartearen paperetan berderen ez da ageri.

KULTURA → UZTAILAREN 14AN HERRKO OSTATUAN

Emanaldi gustagarria eskaini du Lamia taldeak



ARGAZKIAK: MATTIN LARRALDE
Kontzertu bikaina eskaini zuen Lamia.

Beraien lehen estudioko lana, 'Bakarhilketa' aurkeztu zuten

Mattin LARRALDE

Lamia taldeko bi ki-deek berriro ere emanaldi liluragarria eskaini zuten Herriko Ostatuan uztailaren 14an. Itoiz, Led Zepelin eta bertze zenbait talderen bertsioak ez ezik, beraien estudioko lehen lana, *Bakarhilketa* aurkeztu zuten. Entzuteko moduko kalitateko musika jotzen dute, euren kitarra soinua eta ahotza zoragarriaz magiaz bete zuten arratsa. Animo bikote, zuten talentu dizdiratsua da.

Bikain joan dira bestak

Bertze aldetik, Santio bestak izan ditugu eta bertara jendea hurbildu da urteroko ekin-tzak eta ospakizunak gozatzera. Lehen egunean gazteak eta euren konzertuak izan ziren protagonista; igandean zikiro eguna izan zen, herrikoentzat egunik potoloena. Astelehenean haurren eguna eta mus txapelketak eraman zuten eguna eta Santiago egunean, meza ondolik dantzariak aritu ziren eta aizkora apustua eta tortilla lehiaketekin ailegatu zen Gaixoa Ni. Dena giro onean joan da eta guttiago geratzen da hurrengoetarako.

Erakutsi eta probexu aukerak!

TTIPI TXARTELA MALEKREKA

<p>%10 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan</p> <p>Nagusia, 12 DONEZTEBE T. 948 45 01 13</p>	<p>%5 DESKONTUA kosmetikan %5 DESKONTUA oparietan 50€tik gora. Promozioetan ezik</p> <p>Amezia DONEZTEBE T. 948 45 01 63</p>	<p>%10 DESKONTUA Skeyndor Eternak kremenetan</p> <p>Eliza, 18 behea 2 DONEZTEBE T. 948 45 02 86</p>	<p>%10 DESKONTUA produktuetan</p> <p>Intzakardi, z/g DONEZTEBE T. 948 45 03 64</p>
<p>%10 DESKONTUA arropa guztietan</p> <p>Amezia DONEZTEBE T. 948 45 16 70</p>	<p>%5 DESKONTUA kosmetikan, opari artikuluetan eta haur-eramailetan</p> <p>T. 948 45 14 73 DONEZTEBE info@kimetzelardenda.com</p>	<p>%10 DESKONTUA pijama eta barruko arropetan</p> <p>Zazpigarutze, 1 DONEZTEBE T. 948 45 02 52</p>	<p>%5 DESKONTUA elikatzeko kontzienteko kontsultetan: elikatzeko nutrizional, energetiko eta emozionala</p> <p>T. 948 45 14 73 DONEZTEBE lorea@kimetzelardenda.com</p>
<p>%5 DESKONTUA 50€ arteko erosketetan %10 DESKONTUA 50€tik gorako erosketetan Promozioetan ezik</p> <p>Nagusia, 4 DONEZTEBE T. 948 45 07 27</p>	<p>%5 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan</p> <p>Nagusia, 1 DONEZTEBE T. 948 45 15 71</p>	<p>%10 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan</p> <p>Parrokia, 11 DONEZTEBE T. 948 45 01 12</p>	<p>%10 DESKONTUA erloju eta bitxietan 30€tik gorako erosketetan</p> <p>Amezia, 1 DONEZTEBE T. 948 45 09 25</p>
<p>%5 DESKONTUA zakur eta katuen pentsuari</p> <p>Mourges, 20 Nabe 1 DONEZTEBE T. 948 45 18 45</p>	<p>%10 DESKONTUA oinetakoetan</p> <p>Parrokia, 17 DONEZTEBE T. 948 45 02 89</p>	<p>%10 DESKONTUA 12€tik gorako erosketetan</p> <p>Elizagibela, 7 DONEZTEBE T. 948 45 05 21</p>	<p>%10 DESKONTUA eskeletan</p> <p>Koskontako bidea, 7-1. LESAKA T. 948 63 54 58</p>

GAZTELU

BESTAK → ABUZTUAREN 3TIK 6RA

Santo Domingo bestak ospatuko dituzte abuztu hasieran

Larunbatean herri bazkaria eta igandean aizkora apustu mistoa jokatuko dute

TTIPI-TTAPA

Lau eguneko Santo Domingo bestak antolatuko dituzte aurten Gaztelun. Egun handiko meza eta partxis lehiaketaz gain, larunbatean herri bazkaria eta mariatxiak eta igandeko aizkora apustu mistoa dira ekitaldirik aipagarrienak.

ORTZEGUNA, ABUZTUAK 3 BEZPERA

- Goizez eta arratsaldez puzgarriak.
- 20:00etan suziriak eta ondolik txistulariak herria alaitzen ibiliko dira.
- 21:00etan Zopak Herriko Ostatuan.

ORTZIRALEA, ABUZTUAK 4 SANTO DOMINGO EGUNA

- 11:00etan kalejira txistulariekin.
- 12:00etan Meza Nagusia eta ondolik salda Herriko Ostatuan.
- 17:00etan partxis txapelketa eta ondolik txokolate jatea.
- 20:00etan dantzaldia Agerralderekin.

LARUNBATA, ABUZTUAK 5

- 09:00etan gosaria herriko plazan.
- 10:00etan kalejira herria alaitzeko.
- 14:00etan herri bazkaria plazan.
- Arratsaldean dantzal-



UTZITAKO ARGAZIAK

dia Agerralderekin.

- 00:30ean dantzaldia Txamukos mariatxi taldearekin.

IGANDEA, ABUZTUAK 6

- 10:00etan kalejira.
- 13:00etan aizkora apustua: Nerea Sorondo eta Joxe Etxeberria, Xanta Sousa eta Donato Larretxea -ren kontra ariko dira.
- 17:00etan mus txapelketa Ostatuan.
- 20:00etan dantzaldia Agerralderekin. Ondotik, Gaixoa Ni bestak akitzeko.

Aurten ere giro polita izanen dute Gazteluko bestetan.

NAFARROAKO GOBERNUAK

Udal artxiboak antolatzeko 60.000 euroko dirulaguntza eman die 33 toki erakunderi

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuko Kultura, Kirola eta Gaztearen Departamentuak 60.000 euro bideratuko ditu tokiko erakundeek beraien udal artxiboak antolatzeko, bezeko artxibo-sistema sendotzeko eta udal artxiboak aurten funtzionamenduan jartzeko.

Nafarroa osoan 49 toki erakundeek aurkeztu zuten dirulaguntza eskaria eta horietatik 33k eskuratu dute, gehienak 500 bizilagun baino guttiagoak. Eskualdean, Baztan, Beintza-Labaien, Bera, Donamaria, Ituren, Urroz eta Zubietako udalek jasoko dute artxibo antolatzeko laguntza.

Ongi pasa bestak!

TXARUTA, S.L.

Iturgintza | kalefakzioa | Gasa

BIOMASA INSTALAZIOAK
KOMUNAK | SUKALDEAK
BEROKUNTZAKO INSTALAZIOAK
EGUZKI PLAKEN INSTALAZIOAK
AEROTERMIA
PELLET | EGURRA | GASOLIOA | GASA

31750 - GAZTELU - DONAMARIA NAFARROA
T. 948 451 728 M. 659 770 015 M. 659 234 825
@.txarutasl@yahoo.es

TTIPI-TTAPA
ALDIZKARIA
SARE SOZIALETAN

facebook

www.facebook.com/ttipi.ttapa
www.facebook.com/ttipi.eus

EGIN ZAITEZ GURE LAGUN

BEINTZA-LABAIEN

BESTAK → ABUZTUAREN 4TIK 7RA

Herri bazkari eta kantu zaharrek akituko dituzte bestak

Euskal Herriko 3. mailako aizkora txapelketaren kanporaketa igandean

TTIPI-TTAPA

Lau eguneko bestak antolatu dituzte Beintza-Labaienen. Beti bezala, ekitaldiak txandaka eginen dira, egun batean Labaienen eta hurrengoan Beintzan:

ORTZIRALEA, ABUZTUAK 4 (LABAIEN)

- 20:00etan altxaferoak, beste hasiera emateko.
- Ondoren karrikarronda herriko trikitilariekin
- 21:00etan zopak, Itturondo elkartean.

- Gauetz dantzaldia DJ Txingudiren eskutik.

LARUNBATA, ABUZTUAK 5 (BEINTZA)

- Goizean karrikarronda herriko trikitilariekin.
- 11:30ean Mus Txapelketa.
- Goizez eta arratsaldez karts eta puzgarriak.
- 18:00etan pilota partidak Erreka pilota eskolako pilotariekin.
- Arratsaldez eta gauetz dantzaldia Trakets taldearekin.

IGANDEA, ABUZTUAK 6 (LABAIEN)

- Goizean karrikarronda Iturengo txistulariekin.
- 11:00etan Meza nagusia.
- Ondotik, herriko dantzariak eta Luntxa.



ARGAZKIAK: ARANTXA ITURRALDE
Aizkora apustua, buruhan-
diak eta kantu bazkaria
izanen dira aurten ere.

- 18:00etan Euskal Herriko 3. mailako aizkora kanporaketa.
- 21:00etan Tortilla eta postre lehiaketa.
- Arratsaldez eta gauetz dantzaldia Frantzisko soinulariarekin.
- Goizez eta arratsaldez puzgarriak.

ASTELEHENA, ABUZTUAK 7 (BEINTZA)

- Goizean karrikarronda Iturengo txistulariekin.
- 14:00etan: herri bazkaria. Ondoren, Kantu zaharrak abestuko dituzte, Anjel Mari-
ezkurrenaren eskutik.
- Bazkal ondoren, karrikarronda Iturengo txistulariekin.
- Arratsaldez eta gauetz azken dantzaldia Frantzisko soinulariarekin.
- 24:00etan "Gaixoa ni" bestak akitzeko.



*Besta onak
opa dizkie
herritar
eta bisitari
guztiei*

Orbela
SENDERISMO ATERPETXEA

Ongi pasa bestak!

Idoia - Mikel | T. 948 450 014 | BEINTZA-LABAIEN
orbela@alberquesnavarra.com | www.beintza-orbela.com

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA SARE SOZIALEAN

www.facebook.com/ttppi.eus

ZUBIETA

GIZARTEA → UZTAILAREN 13AN

Uraren tratamendua ezagutzeko jarduerak egin dituzte

Herriko neska-mutikoei zuzendua, NILSaren eskutik

Fermin ETXEKOLONEA

Hondakin uraren tratamendua ezagutzen laguntzen duten jarduerak egin zituzten herriko neska-mutikoei uztailaren 13an, Nilsak antolatuta. Jarduerak doakoak izan ziren.

Goizeko 10etan 3 eta 6 urte bitartekoentzat egin ziren jarduerak ludotekan, eta 7 urtetik gorakoentzat goizeko 11etan hasi zen plazan. Bertan, ura zerk kutsatzen duen, zer bota dezakegun txorrotatik eta zer ez, araztegiaren funtzionamendua ulertzeko esperimenduak, ura galtzearen garrantzia eta abar jorratu zituzten ekitza ezberdinak erabiliz.

Ondoren, araztegiara



ARGAZKIAK: IZASKUN ZUBIALDE

Tailerraren arrakasta ikusita, urriaroan gazte eta helduei zuzendua antolatzeko asmoa dute.

joan ziren, beti itxirik daogoen eremua barrene-

tik ezagutzera. Oso esperientzia aberasgarria

izan dela esan dute parte-hartzaile guztiek.



ARGAZKIAK: IZASKUN ZUBIALDE

Ingelesa praktikatzeko ikastaroa eskolan

Duela bi hamarkada baino gehiago itxi zen Zubietan eskola, baina aurtengo udan, berriz ere irakaskuntzarekin lotu da eskola. CNAI-k ingelesa praktikatzeko hamabostaldiko ikastaroa antolatu du eta herriko eta inguruko 20 haurrek eman dute izena bertan. Uztailaren 17an hasi ziren ikastaroarekin eta uztailaren 31 arte luzatuko da. 10:00etatik 13:30 arte egonen dira gure gazteak ingelesez jo eta ke. Bi taldetan antolatu dituzte haurrak, Haur Hezkuntzakoak alde batetik eta Lehen Hezkuntzakoak bestetik. Ea esperientzia ona izaten duten eta aurrerantzean eskolak bizitza aktiboa izatea lortzen duen.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Abuztuan ere ludoteka egiteko asmoa

Uztaileko lehen bi asteetan ludoteka eskaini zaie herriko neska-mutikoei, Naroa Elizalde eta Maritxu Sanchezen eskutik. Abuztuko lehen hamabostaldian ere eskaintzeko prest azaldu dira.

KIROLA → 21 KILOMETROKO IBILBIDEA

Mendi Martxak 10. edizioa beteko du irailaren 3an

Antolakuntzako hurrengo bilera abuztuaren 22an izango da

Juana Mari SAIZAR

Iraileko lehenbiziko asteburuan ospatuko da Mendi Martxaren hamargarren edizioa. Aspaldian hasi ziren herritarrak antolakuntzalanetan eta dagoeneko azken xehetasunak lotzea falta da. Horretarako, abuztuaren 22an iluntzean bilera deitu dute Udaletxean. Aurretik hainbat lan egin behar badira ere, egunean bertan jende askoren laguntzaren beharra izaten da: aparkalekuak antolatu, ibilbidea markatu, hornidura puntuetan egon, bazkaria prestatu... animatu zaitezte!

Aurtengoan ere, 21 kilometroko luzera eta 1.250 metroko desnibela duen ibilbidea osatu beharko dute parte-hartzaileek. Izen-ematea aldez aurretik egin daiteke internet bidez www.mendizmendi.com atarian edo egunean bertan proba hasi baino ordubete lehenago plazan.

Goizeko 8etan Aresoko plazatik abiatuta Ulizar, Urkita, Pagozelai eta Lau Mugarietatik (Guratz) pasatu ondoren Aresora itzuli beharko dute. Batz bestea, 4 edo 5 ordu inguruan bukatu ohi dute proba mendizaleek. Bidean, indarrak hartzeko, edariak eta jakiak ere jarriko dituzte antolatzaileek eta proba bukatzean bazkaria.

IZEN-EMATEA
Aurrez izena ematen dutenek, 12 euro ordaindu beharko dituzte eta egunean berean egiten dutenek 15 euro.

PESTETAKO BERRIKUNTZAK

Bakartxo Anizen erakusketa

Abuztuaren 15ean eta 17an, herrian bizi den Bakartxo Aniz argazkilariaren lanak ikusteko aukera izango da Udaletxean. Paisaia, animalia... zozagarriak ikusteko aukera izango dugu argazki-erakusketan.

Kuadrilen eguna

Aurtengo kuadrillen egunaren antolakuntzan kuadrilla guztien parte-hartzea eskatuko da. Kuadrilla bakoitzeko bi lagun arduratuko dira mahaiak jartzeaz eta jasotzeaz eta bazkaria prestatzeaz.



UTZITAKO ARGAZKIA

Nafarroako txapela eta errekorra lortu dituzte berriro ere Iruñean Itxaso Onsalok eta Leire Astiasarane

Euskal Herriko txapelarekin nahikoa ez eta Nafarroako txapela ere lortu dute Itxaso Onsalok eta Leire Astiasarane. Gainera, iaz lortu zuten errekorra hautsi zuten Iruñeko sanferminetako jaialdian, 45 ontzako enberrari 10 epai emateko 3 minutu eta 47 segundo behar izan zituzten. Garaipen eta errekor berriarekin erremate polita eman diote denboraldiari. Aresotik animoak ematera joan zen kuadrillak ere mereziko du txapelaren zati bat...



UTZITAKO ARGAZKIAK

Hamalau ume ari dira udako ludotekan

Abuztuaren 4ra bitarte, goizak giro ederrean pasatzeko aukera izango dute herriko haur eta gaztetxoek. Hamalau ume ari dira parte hartzen ludotekan, Ane Miren eta Ainara ari dira begirale lanetan eta astero gai desberdinak landuz, hainbat jarduera egiten dituzte: mendi irteerak, eskulanak, jolasak... Ludoteka zerbitzua 11:00etatik 13:00etara eskaintzen dute eta aurretik, 08:30etik 11:00etara harrera zerbitzua eta ondoren nahi duenarentzat baita jangela ere.

LEITZA

GIZARTEA → HERRIZ HERRI FESTETAN ZABALDUKO DITUZTE PEGATINAK

‘Errespetuz blai’ kanpaina abiatu dute Gizarte Zerbitzuek

Udako jai guneeetan 10 pegatina mota eskura izanen dituzte gazteek

TTIPI-TTAPA

Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak, Ultzamakoarekin batera, martxan jarri du aurtengo prebentzio kanpaina *Errespetuz blai* izenburuarekin. Gazteei zuzendua dagoen kanpaina da eta festetan errespetuzko harremanak sustatzea da helburua.

Kanpainak hiru arlo garrantzitsu lantzen ditu. Hasteko gehiegizko kontsumoak ekidin nahi dituzte kontsumo arduratsua bultzatuz. Emakume eta gizonek festetan baldintza berdinetan disfrutatzea ere lortu nahi dute, eraso sexisten prebentzioan arreta jarritz. Nabaritu baita maiz festa giroan emakumeen duintasun eta askatasunarekiko begirunea ez direla betetzen.

Teknologia berrien zentzuzko erabilera area-

HELBURUAK

- Gehiegizko kontsumoak ekiditea, kontsumo arduratsua sustatuz.
- Emakume zein gizonek festan baldintza berdinetan disfrutatzea.
- Teknologia berrien zentzuzko erabilera.

gotzea da kanpainaren azken helburua. Momentua disfrutatu eta bizitzera animatu nahi dituzte, mugikorrek eta teknologia berriak alde batera utzi eta jai guneko giroan murgilduz.

KANPAINA INTERAKTIBOA

Aurtengo kanpainari beste kutsu bat eman nahi zion Mankomunitateak, «interaktiboagoa izatea nahi genuen, hau da, jendearen parte hartzea lortzea, gazteak kanpainaren zati bat izatea eta kanpainan inplikatzeari. Horregatik, jolas antzekoa asmatu dugu».

Udako jai guneeetan 10 pegatina mota jarriko dituzte eskura. Pertsona bakoitzak erabakiko du zein jarri nahi du-



en. «Zein pegatinak definitzen ditu hobekien nire egoera edo nire nahiak?». Hori aukeratu eta soinean jarri. Adibidez, *gaur dantzatu nahi dut* edo *gaur jolastu nahi dut*. Mozkordoiak ez dituztenek gustuko *mozkordoirik ez!* diona aukeratu dezakete. Aldiz, ligatzeko gogoz daudenek hau hautatu dezakete: *Ligatzeko prest!*

Eta nahi duenak ere aukeratu izanen du *aparkatu mugikorra... eta begietara begiratu* diona.

Kanpaina abian jarri zen Larraintzareko Rugby Gaupasa maiatzaren 6an eta arrakasta handia lortu zuen. Aranoko festetan txanda izan zen gero eta datozen asteetan Leitza, Goizueta eta Aresoko festetan ere jarriko dituzte pegatinak.

GIZARTEA

Alkohol kontsumoa murrizteko kanpaina abian da

TTIPI-TTAPA

Ohi dena edatea gehiegi izan daiteke. Ezagutzen dituzu zure mugak? izenburupean kanpaina abiatu du Nafarroako Osasun Sailak. Alkoholaren kontsumoa osasun publikoko arazo bat da. Droga bat izan arren, gizartean oso errotua baitago. Gure bizitza sozial eta kulturalaren zati bat da eta onartuegia dago baita kontsumo hori gehiegizkoa denean ere.

Hori ikusirik, beharrezkotzat jo dute gizarteak alkohol kontsumo gehiegizkoarekin duen tolerantzia murriztea. 18 urtetik gorako helduei zuzendua dagoen kanpaina abiatu dute. Gizartean eztabaida sustatzeko alkohol kontsumoaren, familiaren rola eta gehiegizko kontsumoak dakartzan ondorioen inguruko informazioa banatuko dute Osasun Zentroetan. Uste faltsuen inguruan hausnarketa ere bultzatu nahi dute: izan ere, jende guztiak ez du edaten, ohi dena ez da beti gomen-dagarriena, ospakizunetan eta bilkuretan ez da beti alkohola edaten, etab. Gizarte osoa inplikatzeari beharrezkoa da eta batez ere, adingabearen babestea, helduak eta haien jokarakerak eredu baitira berantzat.

12-14 URTE ARTEKO GAZTETXOENTZAT

Gozamenez festa antolatu dute abuztuaren 4rako Leitza

TTIPI-TTAPA

Leitza, Gozamenez programaren baitan urtero ospatzen duten festa berezia, arratsaldean hasiko da aurtengoa: ohiko ur festaz gain, ginkana ere antolatu dute eta. Udaletxeko plazan izanen da ginkana 18:00etatik aurrera eta ongi pasatzeaz gain, sariak eskuratzeko aukera ere izanen dute gaztetxoek. Ur festa berriz, igerilekuan izanen da 22:00etatik aurrera. Alkoholik gabeko festa izanen

da, baina gozamenez beteriko gaua: muskarik ez da faltako eta jokoak, bideoak, gaueko murgilaldia uretan, alkoholik gabeko maitasun edabeak... Lagun-arteke giro onean ongi pasatzeko aukera izanen dute beste behin ere.

Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak, Leitza Udalak, Gozamenez koordinadorak, Nafarroako Gobernuak eta Leitza kiroldegia antolatzen dute ekimena.



GIZARTEA → 450.000 EUROKO INBERTSIOA

Ibero berritzeko lanak hasi dituzte

XVI. eta XX. mende arteko zeramikak aurkitu dituzte

JM BARRIOLA

Urte hasieran jakin genuen Nafarroako Gobernuak 450.000 euroko inbertsioa eginen zuela Ibero dorrea eta inguru berritzeko. Bada, berrikuntza lanetaz arduratu den Zubillaga enpresa dagoeneko hasia da lanean eta tartean aurkikuntzarik ere izan da. Torreari gehitutako elementu moderno batzuk kendu dituzte eta azpian zeramika arrastoak bilatu ditu Iñaki Sagredoentzakoak. XVI. mendetik XX. mendera artekoak dira gehienak, eta piezak osatzeko asmoa dute gerora bisitariei erakusteko. Inguruko lurre-

tan drenaketa lanak egin dira horrela eraikinaren oinarria gehiago ez kaltetzeko. Barruko abeak eta egurrak nahiko hondatuak daudenez kendu eta karbono 14 arekin datatu nahi dituzte. Honekin batera inguruko hainbat puntutan ere dataketa hori egin nahi dute.

Ingurua berreskuratu baina ahalik eta gutxien aldatzeko ahaleginak eginen dituzte eta natur ingurunea errespetatzeko. Olazarharrean txukunketa lanak ere abiatu nahi dituzte, garbiketa lanak eginez eraikina bistaratu eta berriro hondatu ez dadin. Berrikuntza lan hauek eginda galtzeko arriskuan zegoen ondarea babestu eta biziberrituko dute, historiaren zati bat gordez.



Ba al zenekien

Atekabeltzen urteurrenaren harira, ospakizunik ez dutela falta izan pasa den astean. Hitzaldiak, kontzertuak, afari eta bazkariak, jokoak... Zorionak eta segi lanean!



UTZITAKO ARGAZKIA

Jose txo Urruti eta Migel Angel Sukuntza txapeldun Iruñean

Txapela soinean dutela bueltatu dira Leitzako herri-kirolariak Iruñeko sanferminetatik. Migel Angel Sukuntza izan zen Nafarroako txinga txapelketako txapelduna, 16 plaza egin ondotik. Jose txo Urrutiak berriz, ingude altxatzen eta harri jasotzen nagusi dela erakutsi zuen. 18 kiloko ingudea zuen lanerako eta Jose txok 87 altxaldi emanda lortu zuen garaipena. Harri jasotzen berriz, 5.250 kilo altxatu zituen Urrutiak (20 altxaldi 125 kiloko zilindroari, 12 altxaldi 112,5 kiloko kubikoari eta eta 14 altxaldi 100 kiloko bolari).



ARGAZKIA: UDALA

Udako tailerretako haurrak margolari lanetan aritu dira

Udako tailerretan dabilzan haurrak (ttikienak) igerilekua apaintzen aritu dira. Hormetako batean zuhaitz bat margotu eta beraien eskuak koloretako pinturretan busti ondotik, beraien arrastoa utzi dute. Apain apain utzi dute.



ARGAZKIA: UDALA

Puzgarri pesta igerilekuan

Uztailaren 15ean hurrei zuzendutako puzgarri pesta ospatu zuten igerilekuan, Anikotek antolatuta. Eguraldi bikaina medio jende asko hurbildu zen igerilekura, arratsaldean gehienbat. Bertan lau begiralderen laguntza eta zaintzapean puzgarrietaz gozatu ahal izan zuten haur eta gaztetxoek.

GOIZUETA

OSPAKIZUNAK → UZTAILAREN 15EAN

Karmen bezperako herri afarian giro bikaina izan dute

Patata tortilla lehiaketara bi besterik aurkeztu ez zirenez, aurten ez da ospatu

garren aldiz egin dena. Tortilla lehiaketara bi tortilla besterik aurkeztu ez zirenez, aurten hutsean utzi zen lehia. Hori bai, ondotik, plaza inguruan jarritako mahaietan bapo afaldu zuten goizuetarrek, tortillak ez ezik parrillan egindako haragia eta beste hainbat jaki dastatuz, eta suaren gainean saltoka ibili ziren animatuenak.

TTIPI-TTAPA

Gau giro bikainean joan zen Karmen bezperako afaria, aurten zazpi-



ARGAZKIAK: FELIX LOIARTE

Nafarroako Auroroen Topaketan parte hartu du aurten ere Umore Ona Abesbatzak

Nafarroako Auroroen berrogeita batgarren topaketa egin zen uztailaren 16an Milagron. Bertan, 74 taldetako 2.300 bat aurorok hartu zuten parte, gehienak Nafarroakoak, baina baita Gipuzkoa, Errioxa, Katalunia, Aragoi eta Valentziakoak ere. Hauetatik, 70en bat Ereñotzuko Ozenki eta Goizuetako Umore Ona abesbatzakoak ziren. Hamaiketako eder bat egin ondoren kantatzen segitu zuten eta bazkaldu eta gero ere kanta artean egun beroa bukatu zuten umore ederrean.

OSPAKIZUNAK → UZTAILAREN 16AN

Zigako orga nagusitu da Baztandarren Biltzarra jendetsuan

54. edizioan Baigorriko Basaizea elkartearekiko elkartasuna omendu nahi izan dute

TTIPI-TTAPA

1963. urteaz geroztik egiten duten moduan, Baztango hamabortz herrietako bizilagunak Elizondon bildu ziren uztailaren 16an. Egune-ko ekitaldi nagusia orga apainduen desfilea izan zen, 54. edizioan ere. Desfilea irekitzen, Baztandarren Biltzarra Mikel Iriarte, Maider Sobribo eta Lorea Atxarekin batera Baigorriko Basaizea elkarte-ko Grazi Etxebere, Bixente Bidegain eta Kaiet Lapey-rade izan ziren, aurten- goan, bi elkar-teen arte-ko elkar-lana omendu nahi izan baitute.

Almandozek *Tunelaren inaugurazioa, a ze espektazioa!* orga ka- rrikarratu zuten, Almandoz eta Belateko tune- len inaugurazioaren 20. urteurrenean.

Amaiurrek *Jauntxo- ena, frantzesena, espai- nolena... Noizko herria- rena?* izenburupean Borda Jauregia Zahar Etxe moduan erabiltze-

ko eskaria egin zuten.

Anizek *Auzolana eta pintterdia: Aniz eraiki- tzen* izenburupean au- zolana agertu zuten.

Berroetak *Baserriko lanak: belarrak* egiten erakutsi zuten.

Zigak *Maitena zinea* gogora ekarri zuten, due- la 50 urteko kartelera eta guzti.

Azpilkuetak dultzea egitea antzeztu zuten.

Erratzuk *San Marti- netan aldaire, maizte- rrak jaunaren etxetik ai- re!* izenburupean, maiz- terrak nagusiarri ordain- keta egin beharreko eguna erakutsi zuten.

Arizkunderrek *1975- eko azaroak 20* izenbu- rupean, Francoren heriotzaren berri izan- dakoan maisuak klase- ak suspenditu zituene- koa gogoratu zuten.

Oronozek, San Mar- tin maristen eskola era- kutsi zuten.

Arraiozek *Herrie- utziz urrunera neskato* izenburuarekin, Iparral- dera eta Frantzialdera neskato joandakoak go- goratu zituen.

Iruritik zikiro jatea eraman zuten orgara, Le- karozek *Lekauzko tella- riko labaderua* Gartzai- nek *Buruekin zare itia*, Elbetek *Maixterra iza- tearen miseria* eta Eli- zondoko Sagatsak-Bel- atzak taldeak *Diktadu-*



raren kontra egotearen ondorioak, Francoren garaian balleko errepi- deak egitera behartu zi- tuzten langileak gogo- an.

Guztien artean, epai- mahaiaren ustez, Zigak apaindutako *Maitena zi- nea* izan zen orgarik do- toreena, bigarren saria azken hiru urteetan ira- bazle izan zen Gartzai- nen zare egiteak era- man zuten eta hiruga- rrena Berroetak.

Desfilea akitzean, Mutil-dantza egin zuten plazan, eta, ondotik, herri bazkari jendetsua izan zen, 1.400 lagune- kin. Bazkalondoan, Baztandarren Biltzarre- ko mezua irakurri zuten, sari banaketa egin, eta bertzelako animazioak ere izan ziren.



ARGAZKIAK: ALICIA DEL CASTILLO

Hiru orga sarituak eta Baztandarren Biltzarra eta Basaizeako ordezkariak desfilea irekitzen.

BAZTAN

BESTAK → ABUZTUAREN 9tik 12RA

Txamukos Mariatxiak ariko dira Zigako San Lorentzo besten egun handian

Hondar egunean, zikirojateaz gain haurren frontenis txapelketa jokatu da

TTIPI-TTAPA

Zigako San Lorentzo bestak abuztuaren 9tik 12ra ospatuko dituzte.

ASTEAZKENA, ABUZTUAK 9 BEZPERA

- 20:00 Txupinazoa eta ezkil jotzea.
- 20:15 Herriko trikitilariak herri itzulia eginen dute.
- 21:00 Baztan zopak (txartela maiordomok salgai).
- 00:00 Salaberriekin dantzaldia.
- 05:00 Zingar jatea.

ORTZEGUNA, ABUZTUAK 10 SAN LORENTZO EGUNA

- 10:00 Herriko trikitilariak herrian barna.
- 11:00 Meza nagusia eta ondoren elizako eskalaretan argazkia ateratzea.
- 12:00 Luntxa plazan.
- 19:00 Baztango haur dantzariak.
- 20:00 Txamukos Mariatxiak.
- 21:30 Joaldunak eta txalaparta.
- 22:00 Zingar jatea eliz gibelean.
- 00:30 Dantzaldia Hauspolariek taldearekin.

ORTZIRALEA, ABUZTUAK 11 HAUR ETA GAZTE EGUNA

- 10:00 Herriko trikitilariak herrian barna.
- 11:00 Haurren jokoak.
- 14:00 Herri bazkaria eta mus txapelketa.
- 16:00 Haurrendako



- puzgarriak.
- 19:00 Txokolate-jatea.
- 20:00 Agerralderekin dantzaldia.
- 22:00 Afaria.
- 00:00 Agerralderekin dantzaldia.
- 05:00 Zingar jatea.

LARUNBATA, ABUZTUAK 12 ZIKIRO JATEA

- 10:00 Herriko trikitilariak herriko itzulia ibiliko dira.
- 11:30 Haurren frontenis txapelketa.
- 13:00 Ezkil jotzea.
- 14:00 Zikirojateia.
- 17:00-00:00 Dantzaldia Frantziskorekin.
- 23:00 Zingar jatea eliz gibelean.
- 01:00 Dantzaldia Oharkabetaldearekin.
- 05:30 Gaixoa Ni beste akabera emateko.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Zikiroko zopak prestatzen eta zikiroa dastatzen.

ARMUA JATETXEA

T. 948 599 131
Zugarramurdiko errep. 3 km
URDAZUBI

744 484 361

ttipi-ttapa

zergalan | **asegi**
asesores y consejeros de empresa
enpresa kontseilari eta aholkulariak

ORAIN ZERBITZU BERRIAK ESKAINTZEN DITUGU

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa

Baztanberri plaza, 6
31700 ELIZONDO
T. 948 581 300 · F. 948 580 648

www.zergalan.es | info@zergalan.es
www.asegi.com

Eliza Kalea, 22
31740 DONEZTEBE
T. 948 450 395 · F. 948 451 304



ARGAZKIA: DIARIO NOTICIAS

Xabier Urrutia arraioztarra orga jokoan.

HERRI KIROLA → NAFARROAKO TXAPELKETAK

Txapel uzta polita lortu dute herri kirolariek sanferminetan

Orga jokoan, lasto altxatzen eta arpanan txapeldun suertatu dira eta txingetan txapeldunorde

Baztango Basaburuko Unai Aleman eta Xabier Mitxelena suertatu ziren txapeldun Nafarroako kadete mailako arpana txapelketan. 5 minutu eta 38 segundo behar izan zituzten lana akitzeko.



ARGAZKIAK: DIARIO NOTICIAS

Iñigo Goienetxe amaiurtarra lasto altxatzen eta Basaburuko bikotea arpanean.

TTIPI-TTAPA

Inoiz baino txapel uzta emankorragoa ailegatu da Iruñeko sanferminetan jokaturako herri kirol txapelketetik.

Orga joko txapelketan, Arraiozko Xabier Urrutia suertatu zen txapeldun, 2 itzuli eta 5,12 metro eginez.

Gizonezkoen txinga eramate txapelketan txapeldunordea izan zen Daniel Saldias.

Lasto altxatze txapelketan, bi amaiurtar aritu ziren nor baino nor gehiago eta 14 altxaldi eginez, Iñigo Goienetxe nagusitu zitzaion Lander Landiribarri (11 altxaldi).

Mármoles SOULE
HILETA ARTEA
T. 948 453 444 | M. 688 605 182
ARIZKUN

tanatorios **IRACHE**
24 ORDUKO TELEFONOA
948 581 959 | 948 637 404

BERA (SAN JOSE) | BERA (ITURLANDETA)
DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)
ELIZONDO (BAZTAN) | LESAKA

TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA
LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE
abokatuak

Santiago, 59 2C · ELIZONDO
T. 948 581 468 M. 630 354 818

Oharriz Auzoa z/g · LEKAROZ
T.948 452 143 · 948 452 449
info@harrilan.com
www.harrilan.com

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

HARRI LAN, S.L.
ESTRUCTURAS

BAITA ERE **HORMIGOI INPRIMATUA**

BAZTAN

GIZARTEA → HOGEI URTE DARAMAZKI GELDIRIK

Elizondoko Zahar-Etxeko erlojua moldatzeko kanpaina hasi da

E+P Nafarroako Kontsumo Elektrikoko lehen kooperatibaren bitartez

duenez, bertan dago. Zahar-Etxeko patronatuak ez du diru-ahalmenik lan hori gauzatzeko, baina E+P kooperatibak gizarte egitasmoetarako bultzatzen dituen diru-bilketa kanpaina baten bidez egiteko aukera dago orain.

Josebiñe eta Koro

Elizondoko Francisco Joaquín de Iriarte Zahar Etxeko erlojua konpondu eta berriz ere martxan jartzeko helburuarekin kanpaina abiatu dute, E+P Nafarroako Kontsumo Elektrikoko lehen kooperatibarekin elkarlanean. Zerbait urte daramazki Zahar-Etxeko erlojuak matxuratuta. 1982an, 225 milioi pezetako aurrekontuarekin Zahar-Etxea osorik moldatu zenean, jarri zuten erlojua, baina hogeitabat urte baditu geldirik. Tresneria Iruñeko San Martin erloju-dendara eramane zuten, baina moldatzeak gastu handia

Irurritako Dorrea

Nafarroako Gobernu Kultura Zuzendaritza Nagusia-Bianako Printzea Erakunde Ondare Historikoaren Zerbitzuak Balleko Etxearen baimena jaso du Irurritako Dorrearen zaharberritze lanen bigarren faseko zati bati ekiteko. Hiru urteko epea izanen du lan hori egiteko.

Dorrearen egoeraren ondorioz, lehen fasean, Nafarroako Gobernuak sendotze lanak egin zituen eta bigarren fasean, Leache eraikuntza enpresarekin sendotze lan horiekin segitzeaz gain, zaharberritze lanak hasi nahi dira.



UTZITAKO ARGAZKIA

Elizondoko abesbatzaren plazako iturria berriz martxan

Egiturazko arazoengatik urteak geldirik zeramatzan Elizondoko Abesbatzaren plazako iturria konpondu eta abiarazi du Baztango Udalak. Konponketak Elizondoko Abesbatzari buruzko keinua izan nahi du, aurten 75 urte bete dituelako. Horrela, uztailearen 12an, abesbatzako kideekin ospakizun ekitaldi tipia egin zuten. Tartean zen, bertze hainbatekin, Maria Jesus Arregi garai bateko abesbatzaren zuzendaria. Iturria berrabiarazteko Udalak iturriaren askako zolan material iragazgaitza paratu du eta ur-bomba berria ere bai. Iturriak ur-zirkuitu hetsia du eta gaueko hamarrak artio pizturik egonen da.



ARGAZKIA: ISABEL GAMIO

Saharako neska-mutikoak Erratzun egunpasa

Gure inguruan dabilzan Saharako neska-mutikoek egunpasa egin zuten Erratzun eta Ierro hauen bidez, Erratzuko herria eta bereziki Kastoneko Xanti eta Idoiari eskerrak eman nahi dizkiete.

Festarik festa zuekin!

Bidali argazkiak eta IRABAZI SARIAK!

744 484 361

erran
eus
Mendialdeko Albistek
ANIMATU!

JAIETAN NAFARROAKO
BERDINTASUNAREN BERDINTASUNERAKO
ALDEKO UDALAK INSTITUTUA



GEURE
EZETZA
ZEUENA
ERE BADA

ZEUEN
EZETZA
GEUREA
ERE BADA



JAIAK ERRESPETUZ BIZI

URDAZUBI

OSPAKIZUNAK → AGORRILAREN 5EAN OSPATUKO DA

Burdinaren Egunak hamargarren edizioa beteko du egitarau zabalarekin

Burdin minerala idiek nola ekartzen zuten eta monastegian urrezko txanponengatik nola trukatzeko zuten ikusgai

Iñigo IMAZ

Burdinaren Eguna hamargarren edizioa agorrilaren 5ean, hila-beteko lehen larunbatean ospatuko da Urdazubin. Horretarako egitarau zabal prestatu dute. Ohikoa denez, burdin minerala idi-gurdietan garraiatzen zeneko ibilbidea antzetzuko da. Izan ere, meatzetatik Monasteriora eramaten zuten, eta abadeari ematen zitzaion, urrezko txanpon batzuen truke. Gainera artisautza merkatua, zikiroa, Burdin Aroari buruzko erakusketa, solasaldia, Bankako Menditarrak taldearen emana-



ÚTZITAKO ARGAZKIA

Uztailaren 15ean Ikaburuko lezearen eguna ospatu zuten

Ikaburuko Lezearen Eguna hirugarren edizioak jende aunitz bildu zuen uztailaren 15ean. Ehunka bisitarik, 20-25 pertsonako taldetan banatuta, Leorlasen dagoen kobara txangoa egiteko aukera egin zuten. Goizeko 11etan hasi eta arratsaldeko 6etan amaitu zen festaren baitan ikusi ahal izan zituzten Ikaburuk eskaintzen dituen altxorak. Historiaurreko ehiza teknikak eta tresnak egiteko tailerrak, txalaparta ikastaroa, artisautza merkatua eta lezean barna ibiltzeko aukera izan zuten bisitari eta herritarrek. Bisitarien artean artisautza produktuen saskia zozketatu zen arratsaldeko 5etan. Eta egun osoan zehar, facebook-eko orrialdearen bidez, nahi zuen orok lezean eginiko argazkien lehiaketan parte hartu ahal izan zuen.

naldia eta sorpresak.

Famili guztiarendako aktibitate ugari izanen dira egun osoan.

Artisautza azoka herriko plazan eta horrez gain umeentzako puzgarriak eta joko ugari.

Monasterioa, lezeak edo errota bisitatzeko aukera ere izanen dute bertaratzen direnek.

EGITARAUA

- 10:00etan artisautza azoka herriko plazan. Horrez gain hurrentzako puzgarriak eta itsasontziak eta joko ugari ttikientzako.
- 12:00etan burdin mineralaz kargatuak dauzuden orgak, idiek tiratuta ailegatuko dira Monastegira. Olagizonek aztertuko dituzte, eta abadeak benakeroei ordainduko die. Burdina urrezko txanponengatik trukatzeko ekitaldia.
- 13:00etan *Burdin Aroa* erakusketaren inaugurazioa egingen dute Kultur Etxean.
- 13:15ean Zentro Kulturalean solasaldia izanen da: José Maria Salgadok *Euskaldun eta nafarren arteko harremana eta eragina Galiza eta Asturiasko burniaren kulturaren hitzaldia* eskainiko du.
- 14:30 Zikiro jate bazkari herrikoia (Mechoui).
- 16:00etan Bankako Menditarrak taldearen kantaldia.

JATETXE-ERRETEGIA
MONTXO
OSTATUA-TABAKO-DENDA

Egunero irekia
 09:00etatik
 02:30era

Dantxarinetik
 2 km. tara

PLATER KONBINATUAK · OGITARTEKOAK
 MENUAK ENKARGUZ · PINTXOAK
 ESPEZIALISTAK ARRAIN ETA TXULETOIAN

ANZAN-BORDA · URDAZUBI | 948 599 039
 montxoblanco@gmail.com

VENTA PEIO
 T. 902 210 800 • www.venta-peio.com

Bera (Administrazioa) 31780 BERA Dantzarinea 31712 URDAX Ibardin 31780 BERA Luzaide 31660 LUZAIDE

tabac maroquinerie

Landibar

restaurant super

cadeaux

KULTURA → LARREKO GELAN

Arranoa argazki elkarteak ideki du erakusketa

Urte guziz bezala, elkarte kideek beren lanak erakutsi dituzte

Pierre BASTRES

“Materia guziez...” lan gaia zuten aurten Arranoa-ko 12 kideek, eta beren lanen emaitzak baliatu dituzte erakusketa eder bat muntatzeko Larrekon.

Bakoitzak hautatu behar zuen materia bat, eta erakutsi bere gisarat argazkietan. Batek *Sokak eta hariak* hautatu du, bertze batek *Harrikedo Berina*. Vincent elkarte kideak adierazten duen bezala, «gaia hautatuta, helburua da kideen artean elgar languntzea, argazki ahal bezain pollitak eta landuak egiteko. Lehenik bakoitzak bere aldetik argazkiak hartzen ditu,



ARGAZKIA: VINCENT LAFON

Materia ezberdinen inguruko argazki-lanak pausatu dituzte Larrekon.

eta gero elkarretarazten garenean astean behin, potretak elkarri erakutsi diozkagu, bertzeen gomendioak eta aholkuak izaiteko. Horri esker gure lanak hobetzen ditugu!».

Badu 7 urte sortu dela Arranoa elkarte, aktibitate mota ainitz pro-

posatuz. «Izgarri giro goxoa badugu elkartean», jarraitzen da Vincent, «aita zenaren argazki tresna banuen etxean, eta pentsatu nuen zerbait baliosa eta jostagarri egin nezake-la hauekin. Izena eman nuen argazki tailerrear, eta pittanaka-pittanaka

ene eskuak eta begiak baliatzen berriz ikasi ditut. Aktibitate huneke ahal eta ideien biltzerat behartzen nau. Bururatzeko, interesatua denari gomendatzen nioke etortzea!».

Xehetasunak atsemaiteko: <http://arranoa.canalblog.com/>

OSPAKIZUNAK → UZTAILAREN 8 ETA 13TIK16RA

Amotzeko bestak ezin hobeki iragan dira

Usaia ekitaldiez gainerat, herritarrek eta udatarrek berrikuntzak ere preziatu dituzte

Pierre BASTRES

Urte oroz bezala, egitarau nasaia osatu zuten komiteko kideek eta beren lehendakari berria, Peio Lopez, Jean-Marc Errandonea *Mentari* segida hartu diona. Hastapenetik bururaino

denetarik egiten, ikusten edo aditzen ahal zen: pilota trinketea edo plazan, mus txapelketa, Senpereko auzo arteko lehiaketak, kantaldiak etab.. Ekitaldi eder horietarik, Zarena Zarelako dantza taldeak emandako ekitaldia egonen da behatzaileen gogoan. Lehen aldian *Giz'arte* izeneko sorkuntza hau emaiten zutela, eta Pascale Lazkano sortzaileak dioen bezala, «lehentze izaitzak emozioak handitzen ditu oraino gehiago. *Giz'arte* izeneko gizonen bakkari dantzatzen dute,



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

Zarena Zarelako dantza taldeak *Giz'arte* sorkuntza eskaini zuen.

hala zen ene egitasmoa. 26 dantzari badira orotarar, eta adin ezberdinetakoak: adinaren arabera dantzak badira: bixi-bixiak gazteenentzat, eta grazia handiak adin handiagokorentzat. Tradizioari nahi nion jarraiki *Giz'arte* emanaldiko lehen alderdian: ezaguna den mutil dantzako *Ana Xume* rekin hasten da, eta gero munduko 4 mutil dantza arraberriturik

emaiten ditugu: Greziakoa, Turkiakoa, Boliviakoa eta azkena Argentinako gizonen arteko tango bat da, goi mailako irakasle profesionalekin ikasia! Behatzaileek maitatu izan dute ainitz!

Emanaldiko azken alderdian, Eskual Herrirat itzultzen gara guk sortutako makil dantzekin, Bertzalde, jakin behar da Burgaintzi taldeko musikariek soina zu-

zenez egiten dutela, eta zoin ederki! Horrek ere edertzen du emanaldia. Orogen buru arras ongi iragan da *Giz'arte*, xaturrik gaudede. Bertze herrietan ere emanen ditugu, kontent gara orain jendeek maitatu dutela badakigulakotz».

Hitz laburrez, jende guzien gustokoak izan dira aurten ere Amotzeko bestak. Auzo ttiki, besta handi.

SARA

OSPAKIZUNAK → UZTAILAREN 29AN

Pottokaren Besta ospatuko dute larunbatean

Uda garaian hainbat kontzertu eta erromeria izanen dira

Joana GERENDIAIN

Urtero bezala uztailean pottokaren besta eginen da Saran, uztailearen 29an aurten. Egun horretan Sara inguruko pottoka hazleak plazan elkartzan dira beraien animaleak erakusteko, aukera izaten da aferak egiteko. Ondotik bazkari animatu bat antolatua da plazan.

Kontzertuak

Heldu den uztailearen

31n elizan kobrezko musika-tresnen kontzertu bat entzuten ahalko da. Landatar eta Bordelekoek osatutako talde honek filmetako musikak eta musika klasikoak berriz hartzen ditu. Kontzerturako sartzea librea da eta 21:00etan hasiko da.

Abuztuaren 3an, 21:30ean Ainhoako Atsulai abesbatza mistoak kantaldi bat emanen du elizan. Sartzea 10 eurotan izanen da eta urririk 15 urte baino guttiagokoentzat.

Abuztuaren 10ean Donibane Lohitzuneko Goraki abesbatza mistoa entzuten ahalko da elizan, 21:30ean hasitako.



ARGAZKIA: SUD OUEST

Jabe berriak trinketean

Joan den apirila bukaeratik Pleka trinketea berriz ideki da, gazte hirukote bat sartu da abentura horretan. Patrick Etchegaray, Elodie Barbier eta Luc Labruquère bikotea aurkituko dituzue orain barra gibelean. Lehen helburua da trinketea berriz biziartztea, tokiko ekoizleekin lanean aritzen dira eta kalitatezko karta bat proposatzen dute prezio onetan.

Abuztuaren 21, 22 eta 23an, bertalde, Kalkan taldeak eta bertze artista batzuek kontzertu bat emanen dute lezeetan. Xehetasun gehiagorentzat edo erreserbatzeko lezeetara deitu behar da: 05.59.54.21.88.

Abuztuaren 24an, Ezpeletako Ezpeletan kantuz gizonen abesbatza entzuten ahalko da elizan, 21:00etan. Sartzea 10 eurokoa izanen

da, eta urririk 12 urte baino guttiagokoentzat.

Kontrabandisten lasterketa

Abuztuaren 20an 54. Kontrabandisten lasterketa eginen da Saran. 8,4 kilometrako lasterketa honek inguruko herrietako bi korrikalari gonbidatzen ditu lasterka egitera. Korrikalariak ez dezaten eguraldiaz sufritu, lasterketa

arratsalde bukaeran abiatuko da, 18:00etan. Egun osoan ostatu bat, merkatu bat eta jateko aukera izanen dira.

Erromeriak

Abuztuaren 5ean Sarako izarrak bere erromeria eginen du plazan; eta aste bat berantago, 12an, Zazpiak Bat dan-tza elkartearen itzulia izanen da eta azkenik pilota eskolak antolatuko du 26an.

KULTUR 2017 PROGRAMAREN AZKEN EKITALDIAK ESKUALDEAN

Elizondo, Donamaria eta Lesakara dator kultur eskaintza zabala

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuo Kultura, Kirol eta Gazterriko Departamentuak antolatutako Kultur 2017 programaren baitan ekainaren 23tik irailaren 9ra musika, dantza eta arteko 40 emanaldi gauzatzen ari dira. Eskualdean, azkeneko hirurak eginen dituzte abuztuaren eta irailean.

Abuztuaren 4an, ortziralean 20:30ean Dantzaz dantza taldearen saioa izanen da Elizondoko plazan. Dantzaz taldearen produkzioak, Mikel Laboaren musikak, Josu Mujikaren koreografiak eta Iñaki Salvadorren musika-aholkularitzak bat egiten dute emanaldian.

Egun berean, *Zaindari ikusezina* bisita gidatua eskainiko dute, 17:00etan ha-

sita. Bi ordu eta erdiz Elizondo herria eta hilerria ezagutzeko aukera izanen da, Foru Plazatik abiatuta. Prezioa 10 eurokoa da. Erreserbak 670 336232 telefonoan edo visita-elguardianinvisible@hotmail.com helbide elektronikoan.


Abuztuaren 17an, ortzegunean 20:00etan Donamariako Jauregian Lurpekariak musika taldeak emanaldia eskainiko du. Ion Celestino (tronpetak), Nerea Erbiti (ahotsa), Ander Garcia (kontrabaxua), Javier Callen (kontrabaxua), Daniel Lizarraga (bateria) eta Israel Tubilleja (bateria) dira taldekideak.

Egun berean, 19:00etan Jauregia dorrera 50 minutuko bisita gidatua eskainiko dute, 4 eurotan. Erreserbak 652 162103

telefonoan edo jauregiarte@gmail.com helbide elektronikoan.

Irailaren 1ean, Lesakako Plaza Zaharrean Tenpora taldeak emanaldia eskainiko du 20:00etan. 2013an sortutako taldeak musika eta literatura uztartzen ditu. Hasier Oleaga (bateria), Itsaso Etxebeste (baxu elektrikoak), Juantxo Zeberio Etxetxipia (teklatuak), Beñat Barandiaran (gitarra) eta Elene Arandia (ahotsa) dira taldekideak.

Egun berean, Burdinaren Museora ordubeteko bisita gidatua eskainiko dituzte, 12:00etan eta 17:00etan, Turismo Bulegotik abiatuta. Prezioa: 2 euro. Erreserbak, 948 638007 telefonora deituz edo kultura@lesaka.eus helbide elektronikoan.



EZKONTZAK

Fabien Emile Jean Cantamessi eta **Maria Virginia Sanchez Quiles**, Chateay-Malabry (Frantzia) eta Iruñekoa, Lesakan uztailaren 1ean.


Miriam Luque Martinez eta **Asier Hermoso Huarte**, Irungoak, uztailaren 15ean, Etxalarren.

Lorena Etxenike San Martin eta **Joaanes Irigoien Perez**, Doneztebekoa eta Etxalarkoa, uztailaren 15ean.

Gregorio Ursua Leiva eta **Beatriz Vendrell Santamaria**, Irungoak Arantzan, uztailaren 8an.

Tomas Uterga Ezkurra eta **Ana Francisca Bautista Mora**, Doneztebekoak, uztailaren 13an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.



SORTZEAK

Aimar Ariztegi Altzugarai, Lesakakoa, uztailaren 8an.

Naire Telletxea Piñuela, Zubietakoa, uztailaren 13an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.



IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN

Urte osoan 24 orduko zerbitzua
Beilatoki zerbitzua Bortzirietan
baita eskualdeko etxeetan ere
T. 948 05 90 90

HERIOTZAK

Santiago Telletxea Telletxea, Lesakakoa, uztailaren 8an, 93 urte.

Luis Agerrebere Oteiza, Arraiozkoa, uztailaren 11n, 84 urte.

Salvadora Arburua Arribillaga, Etxalarkoa, uztailaren 12an, 101 urte.

Josetxo Arbelaitz Baleztena Amolatx, Zubietakoa, uztailaren 13an, 92 urte.

Bernardo Ugarte Gortari, Oronoz-Mugairikoa, uztailaren 15ean, 56 urte.

Pedro Irigoien Igoa, Lesakakoa, uztailaren 16an, 82 urte.

Maria Asuncion Lujanbio Etxeberria, Goizuetakoa, uztailaren 14an, 75 urte.

Juan Arretxea Zunda, Sunbillakoa, uztailaren 14an, 99 urte.

Antonia Etxenike Iturriria, Elizondokoa, uztailaren 17an, 96 urte.

Martin Mariezkurrena Alduntzin, Leitzakoa, uztailaren 17an, 82 urte.

Natividad Larralde Tapia, Lesakakoa, uztailaren 15ean, 74 urte.



Santiago TELLETXEA TELLETXEA
Lesakan, 2017ko uztailaren 8an, 93 urterekin
Dena eman zenigulako adiorik ez, gero arte baizik.
ZURE FAMILIA



Maite AROZARENA BENGOTXEA
Amaiurren, 2014ko uztailaren 27an
III. URTEMUGA
Ama, zure irrifar eder eta polita gogoratu,
gure ondoan momenturo zaudela sentituz,
zure ilusio eta ametsen bidea jarraituz,
aitzinat segituko dugu beti zu bihotzez maitatuz.
BERE ALDEKO MEZAK:
Urdazubin uztailaren 29an
Amaiurren uztailaren 30ean



Rekordatorioak egiten ditugu

ttipi-ttapa
Koskontako Bidea, 7-1
LESACA | 948635458

HERRI KIROLAK → UZTAILAREN 8TIK 14RA

Nafarroako hainbat txapel erabaki eta markak hobetu dira Sanferminetan

Maika Ariztegi iturendarrak 99 altxaldi eman zizkion ingudeari, errekor berria

TTIPI-TTAPA

Arpanan, Itxaso Onsalo aresoarra eta Leire Astiasaran ziren favoritoak eta ez zuten barkatu. Aurkariei aukerarik eman gabe, Nafarroako txapela eskratu eta iaiz ortu zuten errekorra hautsi zuten, 45 ontzako enberrari 10 epai emateko 3 minutu eta 47 segundo behar izan zituzten. Amia Garcia eta Nerea Sorondo beratarak hirugarren izan ziren (5:36) eta Elgorriagako Iruñe Izkue, Iruñe Biurruneekin laugarren (6:45).

Orga joko txapelketan Arraiozko Xabier Urrutia suertatu zen txapeldun, 2 itzuli eta 5,12 metro eginez.

Binakako aizkolari txapelketan Donato Larretxea eta Ruben Saralegi azpitxapeldun izan ziren, Iker Vicente eta Ruben Saralegiren gibeletik. Jon Rekondo leitzarra eta Juanjo Lioez hirugarren izan ziren.

Emakumezkoen txinga eramate txapelketan, pronostikoak bete eta Xanta Sousa lesakarrak jantzi zuen txapela, 26 plaza eginez. Iruñe Izkue eta Berako Nerea Sorondo hirugarren (8 pla-



UTZITAKO ARGAZKIA

Xanta Sousa, Migel Angel Sukuntza eta Iñigo Goienetxe txapelekin.

za eta 1,25 metro).

Gizonezkoen txinga eramate txapelketan, berriz, Leitzako Migel Angel Sukuntza izan zen txapeldun, 16 plaza egin ondotik. Daniel Saldias arraioztarra izan zen txapeldun orde (9 plaza eta laurden eta 4 metro), Beunzako Mikel Eugi hirugarren eta Berriozarko Imanol Martin laugarren.

Lasto altxatze txapelketan, bi amaiurtar aritu ziren nor baino nor gehiago eta 14 altxaldi eginez, Iñigo Goienetxe nagusitu zitzaion, Lander Landiribar-i (11 altxaldi).

Baztango Basaburuako Unai Aleman eta Xabier Mitxelena suertatu ziren txapeldun Nafarroako kadete mailako arpana txapelketan. 5 minutu eta 38 segundo behar izan zituzten lana burutzeko. Bigarren postua Josu Elizal-

de eta Beñat Goikoetxearentzat izan zen (6:05), hirugarrena Axular Jaka eta Aimar Arañarentzat (7:23) eta laugarrena Irati Igoa eta Pello Altzelairentzat (8:55).

Nafarroako txapela ez ezik Euskal Herriko marka berria ezarri zuen ingude altxatzen Maika Ariztegi iturendarrak 99 altxaldi eginez. Gizonezkoetan Josetxo Urrutia leitzarrek ortu zuen txapela.

9 kiloko ingudeari 99 altxaldi eman zizkion minutu eta erdian Maika Ariztegi, marka berria eta bikaina ezartzeko. Virginia Finol izan zen bigarren (92 altxaldi), Antsoaingo Iruñe Biurrun hirugarren (83 altxaldi) eta Elgorriagako Iruñe Izkue laugarren (79 altxaldi).

Gizonezkoetan, 18 kiloko ingudeari Jose-

txaldi eman zizkion eta Berako Aritz Izuzkizak eta Berriozarko Imanol Martinek 83na. Berakoak ortu zuen bigarren postua, pisuz arinena delako.

Harri jasotzen ere Josetxo Urrutia leitzarrek irabazi zuen Nafarroako txapela. Denera 5.250 kilo altxatu zituen (20 altxaldi 125 kiloko zilindroari, 12 altxaldi 112,5 kiloko kubikoari eta 14 altxaldi 100 kiloko bolari). Xabier Ariztegi Santxin etxalartarra bigarren izan zen, 4.925 kilo altxatuta eta Iruñeko Albaro Zugarrondo hirugarren, 4.100 kilorekin.

ERAKUSTALDIK

4x4 sokatira torneo mistoa jokatu zen eta bertan Lesakako Beti Gazteko laukotea (Aitziber Goienetxe, Oihana Mindegia, Iñigo Altzugarai eta Gerardo Te-

lletxea) nagusitu zen, Berriozarko Antsoain eta Txantrearen aitzinetik. Binakako emakumezkoen aizkora erakustaldian, Elgorriagako Iruñe Izkue eta Leire Astiasaran nagusitu ziren. Aresoko Itxaso Onsalo eta Berako Nerea Sorondori hartu zioten aurrea eta Iruñe Izkue eta Berako Amaia Garciari. Bigarren eta hirugarren postuak ortu zituzten, hurrenez hurren.

HIRUGARREN MAILAKO AIZKORA TXAPELKETAKO FINALISTAK

Nafarroako hirugarren mailako aizkora txapelketako kanporaketa ere jokatu zen Iruñean, eta Ezkurrako festetan jokatu den finalerako borts txartelen bila aritu ziren hamar aizkolari, bi kanaerdikotara. Arostegiko Xuban Kañamare izan zen bizkorrena (6:21). Bigarren Ezkurrako Moises Gogorza izan zen (6:47), hirugarren Beintza-Labaiengo Jesus Etxeberría (6:53), laugarren Segoviako Emilio Garcia (7:45) eta bosgarren Uharte-Arakilgo Iker Gorriti (8:06). Bortzek ortu dute finalerako txartela. Finaletik kanpo, geratu direnak, berriz, hauek izan dira: seigarren izan zen Beintza-Labaiengo Jacinto Etxekonanea (9:00), Arbizuko Joan Flores (10:35), Anozko Eneko Pagola (13:02), Etxarri Aranatzeko Ander Jaka (16:35) eta Uharteko Koldo Garcia (16:14).

ERREMONTA → SANFERMINETAKO PEÑEN TXAPELKETA ETA ADANOREN ALDEKO JAIALDIA IRABAZI DUTE

Uterga eta Etxeberria III.a nagusi izan dira Iruñean jokaturako txapelketetan

Finalean 35-40 irabazi zieten Endika eta Barrenetxeari

TTIPI-TTAPA

Xanti Uterga eta Joxe Etxeberria III.a doneztebarrek irabazi dute San Ferminetako peñen bosgarren txapelketa, uztailaren 11n Uharteko Euskal Jai pilotalekuan jokaturako finalean Endika Urrutia saldiastarrari eta Barrenetxea IV.ari 35-40 irabazi ondotik.

Partida orekatua eta berdindua izan zen (markagailuan hamar berdinketa baino gehiago izan ziren, hogeita hamarnakoa bitarte),



ARGAZKIA: MAIALEN ANDRES

Uterga eta Etxeberria III, Incansables txarangako *Canario* eta peñen ordezkariarekin.

baina azkenean hutsegite guttiago egin zuten bikoteak lortu zuen txapela janztea. 30-30 berdinketa horretatik ai-

tzinera min egin zuen Etxeberria III.ak sakearekin eta urdinek lau tantuko aldea hartu zuten (32-36) eta azkenera ar-

te eutsi zioten (35-40). Xanti Uterga izendatu zuten, merezimendu osoz, finaleko pilotaririk onena. San Fermin

txapelketa bikaina jokatu du eta finalean 22 tantu egin zituen.

Etxeberria III.ak ongi eutsi zion Barrenetxeari gibelean eta horrek urdinen lana erraztu zuen. Joxe Etxeberriak, gainera, sakearekin lau tanto egin zuten azken txanpan eta eragin handiagoa izan zuen azken markagailuan. Azkenean, ongi merezitako txapela doneztebarrentzat.

Bertzalde, estatuko zirkuituaren baitan, ADANO elkartearen alde Labriten jokaturako triangeluarrean ere Uterga eta Etxeberria gailendu ziren, Urriza eta Ionon eta Ezkurra II eta Barrenetxearen kontrako partidak irabazita.

LAXOA → UZTAILAREN 22AN JOKATU ZUTEN LEHEN JARDUNALDIA

Gazte eta gaztetxoek txapelketa abiatu da

Irailaren 16an jokaturako dituzte bi kategorietako finalak Doneztebeko Bearzanan

TTIPI-TTAPA

Uztailaren 22an abiatu dira Laxoa Elkartek antolatutako gazte eta gaztetxoek laxoa txapelketak. Bortz taldek eman dute izena gazteetan, Doneztebeko bik eta Arraioz, Irurita eta Oizko banak. Gaztetxoetan,

berriaz, zortzi talde ariko dira, Doneztebeko lau, Iruritako hiru eta Oizkoa. Bi txapelketetako finalak irailaren 16an jokaturako dituzte Doneztebeko Bear Zana plazan.

Ligaxkako eta finalerdietako partidak 7 jokoetara jokaturako dituzte eta finala 9 jokoetara. Ligaxkako sailkapenaren arabera, gazte mailan finalerdia lehenbizikoak laugarrenaren kontra eta bigarrenak hirugarrenaren kontra jokaturako dituzte. Gaztetxoek mailan, berriaz, bi multzotan banatuak arituko direnez, lehen multzoko le-

henak bigarren multzoko bigarrenaren kontra eta alderantziz jokaturako dituzte finalerdia.

JOKALARIAK

Gazte mailan, honako taldeak ariko dira: **Arraioz** (Eki Etxandi, Josu Etxandi, Urki Etxandi eta Mikel Organbide); **Doneztebe A** (Goio Mindedia, Aimar Jabalera, Oier Aldabe eta Mikel Tajadura), **Doneztebe B** (Unai San Miguel, Iñigo Belarra, Aimar Sarratea eta Joseba Bengoetxea); **Irurita** (Pablo Dorregarai, Unai Aleman, Asier Mariezkurrena eta Unai

Bikondo) eta **Oiz** (Ioritz Zelaieta, Aimar Saldias, Zorion Zelaieta eta Jon Oiartzabal).

Gaztetxoek mailan:

Doneztebe A (Urko Oiartzabal, Asier Gelbentzu, Pello Sein, Mikel Juanotena eta Marttin Retegi); **Doneztebe B** (David Mitxeo, Ander Ruiz, Erik Garcia eta Eneko Maylin); **Doneztebe C** (Oier Apezetxea, Markel Jabalera, Jokin Arotzena eta Julen Pikabea); **Doneztebe D** (Ekaitz San Martin, Oihan Elizondo, Ugaitz Aldabe, Gari San Miguel eta Patxi Oiartzabal); **Irurita A**

(Xuban Iturregi, Egoi Iturregi, Mikel Bidegarai eta Ander Lakosta); **Irurita B** (Jon Sagaseta, Hodei Aleman, Unax Eraso, Aritz Bikondo eta Julen Urreaga); **Irurita C** (Bernat Mariezkurrena, Arturo Iturregi, Imanol Zoko eta Garai Dendarieta) eta **Oiz** (Xuban Iturregi, Mikel Mikelarena, Markel Leatxe eta Aimar Ariztegi).

Lehen multzoan Doneztebe C, Doneztebe D, Irurita A eta Oiz ariko dira eta bigarren multzoan, Irurita B, Irurita C, Doneztebe A eta Doneztebe B.

uztailak 27 - abuztuak 10

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.eus edo 948 63 54 58

Tailerrak



LESAKA | 2017.09.01-04

Ur-terapia eta kirol egokituaren inguruan tailerra haurrentzako

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Udako Ikastaroen baitan izanen da, eta izena lehenbailehen eman behar da Bortzirietako osasun zentroan, mediku kontsultetan edo guztiokbortziriak@gmail.com-en.

Ospakizunak



SARA | 2017.07.29

Behor eta behoken lehiaketa Pottokaren Bestan

Uztailaren 29an Pottokaren eguna ospatuko dute Sarako plazan. Zaldiko eta behorren lehiaketaz gain, eguerdian bazkaria izanen da plazan eta ez da animaziorik faltako.

Kontzertuak



ARANTZA | 2017.08.19

Arantza Rock jaialdiaren 22. edizioa abuztuaren 19an

Estu & Larri, Liher, Bad Sound System, Trikizio eta DJ Jotatxo ariko dira abuztuaren 19an Arantzán, 22:30etik aitzinera. Baina Gazte Asanbladak egun osoko besta antolatzen du: bazkaria, ginkana, poteoa eta guzti.

Tailerrak

LESAKA

Ur-terapia eta kirol egokituari buruz tailerra haurrentzako

Irailaren 1, 2, 3 eta 4an Lesakako Udal Kiroldegian.

Izen-ematea: Bortzirietako Osasun zentroan, mediku kontsultetan edo bertzelan:

guztiokbortziriak@gmail.com helbidean.

Erakusketak

SARA

Gogora sorkuntza grafikoak

Uztailaren 15etik 31ra

10:00-12:00 eta 15:30-19:00.

Larrungo Koloreak

Elkartekoen margolanak ikusgai

Uztailaren 23tik abuztuaren 8ra 10:00-13:00 eta 15:30-19:00 Lur Berri gelan.

Jantzien diseinuak ikusgai

Abuztuaren 1etik 31ra

10:00-12:00 eta 15:30-19:00.

ARIZKUN

Teresa Lafraguaren margoak

Uztailaren 16tik abuztuaren 31ra Santxotena Museoan. Asteartetik larunbatara 11:00-14:00 eta 16:30-19:30 eta igandetan 11:00-14:00.

Xabier Soubeleten margoak

Uztailaren 15etik irailaren erdialdera Sasternean. Ortzegunetik igandera 11:00-13:30 eta 16:00-20:00.

BERA

Oaia Peruarenaren margoak

Uztailaren 14tik abuztuaren

6ra Bidasoa Karrika 4.an.

Egunero: 17:30- 20:30.

ELIZONDO

Jose Luis Alzugarairen lanak

Uztailaren 20tik irailaren

17ra Jaime Urrutia karrikako

3.ean. Ortzegunetik igandera 19:00-21:00.

Tomas Sobrinoren margoak

Uztailaren 22tik irailaren 3ra

Arizkunenean. Astelehenetik ortziralerara 18:00-21:00 eta larunbat eta besta egunetan 11:30-13:30 eta 18:00-21:00.

Ana Mari Marinen margoak

Abuztuaren 13tik irailaren

17ra Bergarenean, 11:30-13:00 eta 18:00-21:00.

Miquel Cazañaren margoak

Uztailaren 27tik abuztuaren

13ra Arizkunenean, 11:30-20:30.

Lesagibelen eskulturak

Abuztuaren 16tik irailaren

6ra Arizkunenean, 11:00-14:00 eta 18:00-21:00.

BERTIZ

Bego Antonen argazkiak ikusgai

Uztailaren 20tik irailaren 4ra Bertizko Natur Parkean.

ERRATZU

Jose M^o Apeztebakearen lanak

Uztailaren 27tik abuztuaren 27ra Zubietea Etxean, 18:00-20:30.

Roque Lasaren margoak

Uztailaren 28tik abuztuaren 27ra Zubietea Etxean, 18:00-20:30.

Diana Iniestaren margoak

Abuztuaren 1etik 31ra 18:00-21:00.

PROPOSAMENA

URDAZUBI

Burdinaren Eguna abuztuaren 5ean

Garai bateko burdin mineralaren etorrera oroitzuz, Burdinaren Eguna ospatuko dute abuztuaren 5ean Urdazubian. 10:00etatik 14:00etara artisautza azoka eta haurrentzako jokoak izanen dira. 12:00etan ailegatuko dira burdin mineralak kargatutako idiak plazara. 13:15ean hitzaldia izanen dute eta 14:30ean herri bazkaria. 16:00etan Bankako Menditarrek kantaldia eskainiko dute.



SUNBILLA

Baztan-Bidasoko emakumeen margoak

Abuztuaren 1etik 30era
udaletxeko ganbaran, 11:00-14:00.

Bestak

BERA

Herriko bestak

Abuztuaren 2tik 6ra.

GAZTELU

Herriko bestak

Abuztuaren 3tik 6ra.

BEINTZA-LABAIEN

Herriko bestak

Abuztuaren 4tik 7ra.

ZIGA

Herriko bestak

Abuztuaren 9tik 12ra.

SUNBILLA

Herriko bestak

Abuztuaren 10etik 14ra.

LEITZA

Herriko pestak

Abuztuaren 10etik 15era.

Abuztuaren 5ean reparto eguna eta abuztuaren 6an umeen eguna.

Ospakizunak

SARA

Saguxarren gaua

Uztailaren 28an hitzaldia eta saguxarrak ikusteko aukera, 20:00etatik aitzinera lezeetan.

Pottokaren besta

Uztailaren 29an 09:00etatik aitzinera frontoian lehiaketa, eguerdian bazkaria eta animazioa.

Errugbi taldearen eguna

Abuztuaren 5ean frontoian.

Zazpiak Bat dantza taldearen eguna

Abuztuaren 12an 18:00etan frontoian.

Eskubaloit taldearen eguna

Abuztuaren 19an kiroldegian 17:00etatik aitzinera.

Nire aukera



Iciar MIKELPERIZENA

Sunbillan bizi den margolari beratarra

«Margolaritzak mundua ulertzeko bertze ikusketa bat ematen dizu»

Umetatik datorkio Iciarri margotzeko afizioa «nire haurtzaroa marrazkiak egiten gogoratzen dut». Orduetik ez dio atsedenek eman pintzelari eta afizioa ofizio bihurtu du. Bere lanetan, «erretrotoak, animaliak, ehizako kontuak, paisaiak...» nagusitzen direla azaldu digu, «eta gehien gustatzen zaidana, dena elkartu eta istorio pertsonal bat kontatzea da». Hainbat teknika baliatu izan ditu urte hauetan: «lehendabizi inpresionismoarekin hasi nintzen baina berehala figuratibora pasa nintzen». Inguru eta eguneroko gaiak izaten dira bere inspirazio iturria, «Picassok ederki erraten zuen bezala, inspirazioak lanean harrapatu behar zaitu». Orain eskualdeko herritarrei margolaritzako harra piztu nahi die eta horretarako, «Beran, Lesakan, Donezteben eta Elizondon margolaritza ikastaroak emanen ditut eta marrazketa teknikoko klaseak ere bai gazteei». Hamar urtetik aurrerako gaztetxoetatik hasi eta adin mugarik gabe eskainiko ditu ikastaroak, «denentzat aberasgarria baita». Irailaren hasieran izenemate epeak ireki eta taldeak osatu ahala urrian ekinen diote lanari. Horren aurretik, ordea, besta giroan sartuko da bete betean. Egutegian gorriz markatutako egunak bi aldiz borbildu beharko ditu, Bera eta Sunbillako bestak garaitu berean izaten dira eta. Bietan gozatzeko modua izaten du: «zonalde honetan, ohitura dugun bezala, ospakizun guziak mahai-inguruan egiten ditugu. Otordu ezin hobeak eginez familia eta lagunekin. Gustuko dut bi herrietako ekitaldietara joatea». Margolaritzaz aparte, baditu bertze afizioak ere, «zaldiak eta musika ere gustuko ditut, akordeoia jotzen dut». Asteburuko plan baten inguruan galdetuta «hondartza eta mendia» erantzun digu. Eta bere ezkutuko ametsak kontatzeko ere eskatu diogu; argi du erantzuna: «maite ditudan pertsonak, momentu berexiak, afizioak eta bizitzako plazerak ahalik eta denbora gehienez disfrutatuta ahal izatea». Seguru margoak, pintzelak eta mihisea ez dituela urruti izanen.

«Haurrak, gazteak eta batez ere helduak animatu nahi nituzke pintura ikastaroetan parte hartzera, aberasgarria baita denentzat».

URDAZUBI

Burdinaren Eguna

Abuztuaren 5ean.

Ospakizun eguna

Abuztuaren 19an dantzak, herri kirolak, dastaketa...

Kontzertuak

SARA

Saiberri taldea elizan

Uztailaren 27an 21:30ean.

Atsulai abesbatza elizan

Abuztuaren 3an 21:30ean.

Goraki abesbatzaren saioa

Abuztuaren 10ean 21:30ean elizan.

Kalakan taldearen kontzertua

Abuztuaren 21, 22 eta 23an 21:00etan lezeetan.

Ezpeletan kantuz elizan

Abuztuaren 24an 21:00etan.

ARANTZA

Arantza Rock jaialdia

Abuztuaren 19an Estu & Larri, Liher, Bad Sound System, Trikizio eta DJ Jotatxo 22:30etik aitzinera.

Azokak

SARA

Bertako ekoizleen azoka

Ortziralero 16:30etik 20:30era frontoian.

Artisau eta merkatariak

Astelehenero 09:00etatik aitzinera plazan.

ELIZONDO

Batzango artisauen azoka

Uztailaren 29an plazan, goizez.

Lehiaketak

ESKUALDEA

III. Argazki Lehiaketa erran.eus-en

Irailaren 12ra arte

aurkez daitezke lanak.

GOIZUETA

'Zuk aukeratu, zuk dantza egin' II. lehiaketa

Uztailaren 31ra arte

aurkez daitezke lanak.

ETXEBIZITZAK

salgai

ELIZONDO. Akulegi ka-
rrikan 2 logelako pisua
salgai. Prezioa: 57.900
euro. ☎646 774117.

ITUREN. Neurri desber-
dinetako apartamentuak
hagitz prezio interesga-
rrian salgai. ☎948 451337
/ 667 275013.

ANZABAL

INMOBILIARIA

**BAZTAN, BIDASOA,
ULTZAMA eta
IPARRALDEAN**

- Pisuak, apartamentuak,
partzelak, baserriak,
bordak, lokal komertzia-
lak eta nabeak salgai.

**IPARRALDE eta
BIDASOA alderdian**

- Eskaintzagatik base-
rriak, bordak eta
lurak behar ditugu.

URDAZUBI

- Etxe berri bat salgai,
moleztatua. 2000
m²ko lursailarekin.

DONEZTEBE

- **Aukera:** 102 m²ko
pisua salgai. Egoera
oso onean dago. 3
logela, jangela, egon-
gela, 2 komun, sukald-
de moleztatua eta
17 m²ko trastelekua.

Tel. 948 580 804
anzabal@anzabal.com

ORONOZ-MUGAIRI. Pi-
sua salgai, 90 m²ko aza-
lerakoa. Etxe moleztat-
ua, margotu berria, be-
rogailua, igogailua eta
trastelekuarekin. 3 loge-
la, egongela, sukaldia
eta bainugela ditu. 90.000
euro negoziagarriak.
☎948 585036.

ETXEBIZITZAK

errentan emateko

IRUÑEA. Ikasleentzako
pisua errentan emateko.
Hirigunetik gertu, ongi
komunikatua eta bi uni-
bertsitateen tartean.
☎626 899349.

ETXEBIZITZAK

errentan hartzeko

LESAKA. Errentan

MERKATU TTIKIA

948 63 54 58

info@ttipi.eus edo erran.eus

SAIL HONETAN IRAGARKIA JARTZEKO 10€ ORDAINDU BEHAR DA
ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO 12€
IRAGARKI BAKOITZEKO **GEHIENEZ 25 HITZ** ONARTUKO DIRA

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako ES13 3008 0080 5607 0330 4329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz
sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

DONEZTEBE
ETXEBIZITZA BERRIAK
SALGAI!

- ✓ 3 logela+terraza
- ✓ Egongela
- ✓ 2 bainugela
- ✓ Trastelekua
- ✓ Sukaldea
- ✓ Garajea

✓ **BABES OFIZIALEKO** etxebizitzaren
baldintzekin %15eko desgrabazioa
errenta aitortpenarekin.

EZKAIN ERAIKUNTZAK
Inrakalari kalea z/g | **DONEZTEBE**

629 951 170

hartzeko pisu baten bila
gabiltza. Ahal bada igog-
gailuarekin. Luzerako
kontratua nahi genuke.
☎615717679.

GARAJEAK/LOKALAK
salgai

DONOSTIA. Bi garaje
marra salgai. ☎678
855056.

LANA

eskaintzak

**On-line lanean aritze-
ko** zerbitzariak, komer-
tzialak, autonomoak edo
bertze langileak behar di-
ra. ☎699 382673.

ARESO. Herriko pestan-
tabernan lan egite-
ko zerbitzaria behar da.
☎636 586335.

ELIZONDO. Estetikan
esperientzia duen lan-
gile bat behar da. ☎618
411005 / 948 580283.

ZUGARRAMURDI. Al-
tzenean sukaldari lag-
untzailea behar da.
Ahal bada esperientzia
duena. Abuztu erdial-
dean hasi eta urte oso-
rako. ☎948 599187.

LANA

eskariak

Garbiketa arloan, hau-
rrak zaintzen edota adi-
nekoak zaintzen **lan bi-
la eskualdean.** Garbiket-
tan eta haurrak zaintzen
esperientziaduna. ☎618
961807.

Adinekoak eta haurrak
zaintzen edo etxeak **gar-
bitzen** lan egiteko prest.
☎686 947418.

**Emakume esperientzia-
duna** eskaintzen da adi-
nekoak zaintzeko inter-
na edo orduka, baita gar-

biketa lanetan ere. ☎631
379865.

Adinekoak zaintzen **esper-
ientzidun emaku-
mea** adinekoak zaindu
edo garbiketa lanetan ari-
ko litzateke, orduka. As-
telehenetik ostiralera.
☎632 071203.

MOTORRAK


salgai

Peugeot 307 autoa sal-
gai. 1.6 hdi, 5 ate. 129.000
km. ITV-IAT 2018ra arte.
Gris aluminio kolorekoa!
Egoera onean eta gutti
ibilatikoa. 6.999 euro ne-
goziagarriak. ☎687
926414.

**ANIMALIAK**

oparitzeko

Katakumeak oparitze-
ko. Bi eme eta ar bat.
☎626 335398.

**ANIMALIAK**

salgai

30 **ardi** gazte, 28 mutur
gorri, beltz bat eta **aha-
ri** mutur gorria salgai.
☎660 251884.

BASERRIA

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**
(uztailaren 7tik 14ra bitarteko prezioak)



Zerrikumea
(19 kilo): 63 €

Zerri gizena
1,435€ kiloak.

Zerramak:
0,810 € Kg/bizirik.



Aretze gizenak:
Idixkoak: €/k Kanal

Extra 4,32
1.koa 4,10
2.koa 3,90

Urruxak: €/k Kanal
Extra 4,34
1.koa 4,20
2.koa 4,00

Oharra: Prezioak 180-220
Kg. kanalean pisatzen du-
ten aretzeenak dira.

Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:
urruxak 168,00
idixkoak 210,00

Aretze nabarrak:
urruxak 140,00
idixkoak 185,00

Zaldikoak: €/k
Sortuberriak: 3,29/3,39
Zaldi-behorrak: 1,93/2,10

Bildotsak: €/k
6-8 kilokoak: 7,20/7,80
8-10 kilokoak: 5,80/6,30

LEITZA. 4 urteko behia hilabeteko txekorrarekin salgai. ☎679 126188.



DENETARIK
salerosketak

ORONOZ. Egurra xehe-tua salgai. Pagoa eta haritza. Etxera eramanen da. ☎676 242520.



Altzairuzko sei fregadera salgai, 1,5 metro luze, forma borobildunarekin. ☎948 585036.

DONEZTEBE. Haritz egurra salgai, 39 euro tonana. Prezioa Donezteben jarria da. ☎686 314036 (deitu 09:00-13:00 edo 15:00-17:00 astetartez).



ARANTZA. Taxi plaza salgai. ☎617 296458.

GARTZAIN. Ospitaleko ohea salgai, erdi-prezioran. Arras guti erabilia. Interesa baduzu edo ikusi nahi baduzu, deitu. ☎606 932466.

AVIA www.doneztebe.com
E.S. SANTESTEBAN
Leitzako errepeidea, 49 | DONEZTEBE | T. 948 451 679

KOTXE GARBITEGI BERRIA!
ShineTecs
"KONPONTZE EFEKTUA" duen pintura babeslearekin

FURGONETA GARBITEGI BERRIA!
2,60 m

> "Acrylonic" formula patentatua. Argizaria baino hobea.
> Kapa babeslea indartzen du garbiketa bakoitzean
> Distirak denbora gehiago irauten duela bermatzen du

2,60m bitarteko furgoneta edo kotxea garbitu gurean!

DENETARIK
galdu-aurkituak

BERA. Sanferminetako asteburuan, emakumeen bizikleta bat agertu da kanda du hautsiarekin. ☎648 803205.


744 484 361


KATEA BIKE
2. eskuko bizikletak



Kanttonberri, 1 | BERA
T. 948 631 218
kateabera@telefonica.net

Atera
TTIPI TXARTELA
hemen
probextu aukera!



Erabili Ttipi txartela pegatina hau ikusten duzun denda eta zerbitzuetan

PLAZAN BAZAN

MARIPURTZIL

PELOZIRI

NON DA PAREA!

Pellozirik galtzerdia galdu du, hain zuzen eskuan daukanaren parea.
Non demontre dago ordea! Gelan egon beharko luke, baina non?
Despistatu xamararra da eta lagundu egin beharko diozu bilaketan



► Bost biribilotatik bat ez da zuzena. Zein da?



Egilea: Garbine Ubeda (Aiturri)

JOLASTU INTERNETEN!! AUKERA ZABALA!

KIOSKOA | JOLAS-PARKEA | AZOKA | UDALETXEA |
IKUSKIZUNAK | IPUINAK | KOMIKIAK | MARRAZKIAK

plazanbazan.eus



SUDOKUA, MARGOTU, OSATU, PUZZLEAK, ALDEAK, ARROTZA, BAKOITZARI BEREAK, BILATU, DOMINOA, EZETZ ASMA,
GOGOAN HARTU, HANDITIK TXIKIRA, IRUDI ENGAINARIAK, ITZALAK, LABIRINTOA, LERROA EMAN...

AIBALA!



Zomorroa naizela badakizu ondo, baina **INTSEKTU** ez naizta ez naiz izango. Aldea zein ote den dizuet esango: intsektuek dituzte **HIRU** pare zango.

Arraioa, zenbat hanka ditu ba alu horrek!




Egin gurutzea laukian, erantzun zuzenari

- Armiarmak begiak adina zango ditu.
- Lau pare zango.
- Guztira hamar zango

LABIRINTOA

Lagundu igelari urmaelera heltzen. Zomorroak dituzten laukietatik pasatuz, gora, behera, ezker edo eskuin jo, baina ez diagonalean. Animo!



Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak

urtebetetzeak

Argazki soila: 5€; bikoitza: 10€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,50€ko 10 edo 20 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 5 edo 10 €ko txekoa; 4) erran.eus bitartez



AINARA BARBERENA GAMIOK 2 urte bete ditu uztaillaren 21ean. Zorionak sorgintxo! Segi orain arte bezalako bihurri! Muxu handi bat Berroetatik.



Berako **TIANE LARRETxea DE MATEOK** 14 urte beteko ditu uztaillaren 30ean. Ongi pasa eguna, bestak eta oporrak. Muxuak etxekoan partetik.



AUZA IPARRAGIRRE ITURZAETAK urteak beteko ditu uztaillaren 31n. Aunitz urtezzzzzzzzz pollite!!!!!! Etxeko guzien partetik!!! Prestatu merendu goxo-goxoa, e!!



Uztaillaren 17an eta 28an eta abuztuaren 26an atxa-seeek urteak beteko dituzte. Zorionak **IOSEBA, IKER eta ANDER**, Doneztebeko familia guztiaren partetik!!! Muxu handi bana!!



Legasako **ARAI ARTEAGA ANDRESENAK** 4 urte bete ditu uztaillaren 23an. Zorionak Legasako familiaren partetik. Mila muxu potolo zuretako!!!



Berako **MARKELEK** 8 urte bete zituen ekainaren 25ean. Zorionak eta muxu handi bat familia guztiaren partetik.



Aunitz urtez **XUBANI** Gure mononok 2 urte beteko ditu uztaillaren 29an. Aunitz urtez Arantz eta Azpeitiko familiaren partetik. Bi muxu potolo!



Legasako **NAHA MARINELARENA ELIZALDEK** uztaillaren 25ean 6 urte beteko ditu. Zorionak! Familia eta bere-xiki Maren, Janire, Aimar, Enaitz, Naroa eta Maddi.



Arantzako **IKER ALZURI LUJANBIO**, zure urtebetetzea delako, 5 urte potolo bete dituzulako, asko matte zaitugulako, espainarekin, sudurra-rekin, bihotzarekin familia guziak muxu-muxu muaaaa.



AROA, EKAITZ eta beraien atattao INAKIK 4, 2 eta 37 urte beteko dituzte uztaillaren 19, 20 eta 26an. Aunitz urtez familia guziaren partetik eta bere-xiki amattoren partetik. Muxu potolo bana!!



AIMAR GARTXITORENAK uztaillaren 12an 7 urte bete ditu. Urte askoz! Leitza eta Doneztebeko familien partetik.

Hemen agertu nahi duzu?

5€ko argazki soila
10€ko bikoitza

ALDIZKARIEN eta INFLUJEN
GIDARIA

erran.eus

DISEINU GRAFIKOA

Komunikazio elementuak garatzen ditugu:

IRUDI KORPORATIBOAK

- Logotipoak eta Papergintza •

ARGITALPENAK

- Aldizkariak, Katalogoak, Bestetako programak •
- Udal aldizkariak, Folletoak, Liburuak •
- Mapak •

BERTZE EUSKARRIAK

- Boletoak, Pegatinak, Lonak, Roll Up,
- Panelak Poltsak, Txapak, Rotulazioak •

EGUTEGIAK

- Sakelekoak, Paretakoak, Mahai gainekoak •

LESAKAKO BALKOI LOREDUNEN III. LEHIAKETA
III. CONCURSO DE BALCONES FLORIDOS DE LESAKA
Parte hartu eta irabazi! Hartu zure baldia.
2016ko ekaina

Koskontako bidea, 7 31770 LESAKA | T. 948 635 458 | kulturkari@ttipi.eus | www.kulturkari.com

Urdazubi Urdax

Burdin eguna

2017 Abuztua **05**

www.urdax-dantxarinea.com



10.00 - 14.00

Artisautza azoka
Haurrentzako jokuak

12.00

Burdin mineralez kargatuta datozen idien helduera
Burdina urrezko txanponengatik trukatzeko ekitaldia

13.00

"Burdin Aroa" erakuzketaren inaugurazioa Kultur Etxean

13.15

Hitzaldia, Zentro Kulturalean:

José M. Salgado

"Euskaldun eta nafar arteko harremana eta eragina galego eta asturiako burniaren kulturari"

14.30

Herri bazkaria: "Zikiro jatea" (Mechoui)

16.00

Ekitaldia : BANKAKO MENDITARRAK

BABESLEAK

Pio XII
Santiago Villares
Venta Peio

Arrechea
Biok
A. Bengochea

Joxemi Bengochea
Rte Indianobaita
Rte La Koska

Nikolaurenea Erretegia
Parque comercial Axular



Urdax-Urdazubi
Dantxarinea
www.urdax-dantxarinea.com

Ttipi Txartela rekin
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSUTRUK
-%80ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:
TTIPI-TTAPA
Koskontako bidea, 7 LESAKA
T 948 63 54 58 | F. 948 63 54 57
info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipitxartela.info

690 aleko irabazleak >



ZOZKETAK

Martiko - Lote bat
Jabi Otxandorena Juankorena | ARRAIOZ
Irrisarri land - 2 sarrera
Joseba Elizagoien Arruti | NARBARTE
Donostiako aquariuma - 2 sarrera
M^a Concepción Chipi Etxabide | IRURITA
Eureka! Zientzia Museoa - 2 sarrera
Salbador Ansalas Oskariz | ETXALAR
Onddo ta punto - Kamiseta bat
Joxe M^a Graziarena Elizondo | DONEZTEBE
La Rhune - 2 sarrera
M^a Juana Iturria Arburua | URDAZUBI
Ibaizabal argitaletxea - Liburu bat
Rafael Sanjurjo Retegi | LIZARRA
Ibaizabal argitaletxea - Liburu bat
Garbiñe Lizarraga Lazkano | LEITZA

2 tiket

BAZTAN
ABENTURA PARK
ELIZONDO

BKZ ABENTURA
www.navarraaventura.com

2 sarrera

ZUGARRAMURDIKO LEZEAK
SARRERA
#ttipi-ttapa

ZUGARRAMURDIKO LEZEAK
www.turismozugarramurdi.com

2 sarrera

AQUARIUM
DONOSTIA / SAN SEBASTIAN

DONOSTIAKO AQUARIUMA
www.aquariumss.com

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA
www.eurekamuseoa.es

Eureka!
Museoa+Planetario
GONBIDAPENA / INVITACIÓN

2 sarrera - Heldu bat eta gazte bat

BUATXABAL
www.buatxabal.com

BUATXABAL
Basque Clothing Co.

Poltza bat

LA RHUNE
www.rhune.com/eu

RHUNE

2 sarrera helduentzat

LIBURUAK



- Aminatak sosak nahi ditu
- Peruk ogia erosi du inork lagundu gabe
- Julene bakarrik dago ikasgelan

TTARTALO
www.ttartalo.eus

LAGUNTZAI LEAK

